



ba rre txe

ORAIN INOIZ
BAINO GEHIAGO

HAUTESKUNDE
EGITARAUUA 2009

700 ekimenetik gora zeure esku

The background of the image is a lush green, featuring a close-up of a leaf with serrated edges in the upper left. The rest of the image is filled with a soft, out-of-focus bokeh of various shades of green, creating a sense of depth and natural beauty.

AUR
KIBI
DEA

I.- Konfiantza eta konpromisoa Euskadirekin	7
I. 1.- EAJ-PNV. Euskadirako bermea	8
I. 2.- Printzipioak eta balioak. Mundu globalean integratzeko sustraiak	9
I. 3.- Think Gaur. Bost erronka eta bost konpromiso	11
I. 4.- Premiazkoa, garrantzitsua eta ezinbestekoa dena	13
I. 5.- Hurrengo legegintzaldirako 25 helburu estrategiko	16
 II.- Krisi ekonomikoa gainditu, ongizatea handitu eta enplegua sortzeko estrategia integrala	 19
II. 1.- BERRIKUNTZA, hazkunde iraunkorraren eta enpleguaren eragilea:	
“Pertsona aktibo eta sortzaileak”	21
• <u>Arlo Estrategikoak</u>	
1. Enplegu egonkor eta kalitatezkoaren aldeko apustu irmoa	24
2. Enpresen garapena, lehiakortasunaren eta enpleguaren bermea	26
3. Berrikuntza eta informazioaren teknologia berriak	28
4. Nazioarteko bihurtzea: aukera eta exijentzia	31
5. Azpiegiturak garapenaren zerbitzura	32
6. Energia iraunkortasuna eta autosufizientzia	34
7. Euskadiko lehen sektorearen garapena	38
8. Turismo eta merkataritza sektorea indartzea	41
9. Administrazio eraginkorragoa	43
 II. 2.- BERDINTASUNA, gizarte orekaren eragilea:	
“Pertsona zaindu eta solidarioak”	45
• <u>Arlo Estrategikoak</u>	
10. Kalitatezko osasuna	50
11. Etxebizitza, norbanakoen eta gizartearen eskubidea	53
12. Familia, kohesio sozialaren muina	55
13. Elkartasuna pertsona behartsuenekin	53
14. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta sexu aniztasunaren errespetua	58
15. Konpromisoa adinekoekin	60
16. Justizia herritarren zerbitzura	62
17. Etorkinak eta garapenerako lankidetzak gizarte ireki eta integratzaile batean	64
18. Herritarren segurtasuna, bizikidetzarako bermea	65
 II. 3.- Hezkuntza eta kultur NORTASUNA, Euskadik munduan duen proiektzioaren eragilea:	
“Pertsona prestatuak eta munduari irekiak”	68
• <u>Arlo Estrategikoak</u>	
19. Hezkuntza iraunkorra eta bikaina	71
20. Kultura Euskal Gizartearen garapen pertsonal eta kolektiboaren mesedetan	74
21. Euskara, gizarte eleaniztunaren berezko hizkuntza	77
22. Diaspora, Euskal Herriaren erreferentzia munduan	79
23. Gazteria, gure etorkizunaren hartzaile	80
24. Kirola, gure nortasunaren sinboloa	82
25. Erakundeen Kanpoko Proiektzioa, Herrialde konpromisoa	83

III.- Kultura politiko berria normalkuntzarako eta bizikidetzarako	85
1. ardatza: Giza Eskubideen babesa:	
“Bakea, funtsezko konpromisoa”	88
• <u>Proposamen estrategikoak</u>	
- Giza Eskubideak Sustatu eta Defendatzeko Plan Integrala	88
2. ardatza: Partaidetzako demokraziaren kultura berria	
“Partaidetza: taldeko konpromisoaren eragilea”	91
• <u>Proposamen estrategikoak</u>	
- Herritarrei informazioa eman, haiek entzun eta haien iritzia errespetatzea	92
- Herritarrei kontsultatzeko gaitasuna garatzea	93
- Lidergo partekatua eta integratzailea bultzatzea	94
3. ardatza: Erabakitzeko Eskubidea demokratikoki baliatzea	
“Autogobernua: gure ongizatearen eragilea”	95
• <u>Proposamen estrategikoak</u>	
- Geure autogobernua garatzea	95
- Esparru politiko berria. Euskal Nortasun Nazionala eta elkarrekiko berme sistema onartzea	96



A large crowd of people is shown from the chest up, with their arms raised and hands open, reaching towards the top of the frame. The background is a dense sea of people, slightly out of focus. The lighting is warm, suggesting an outdoor event at dusk or dawn. The overall mood is one of excitement and collective participation.

KONFIANTZA ETA KONPROMISOA EUSKADIREKIN

I. 1.- EAJ-PNV: Euskadirako bermea

Une ekonomiko garrantzitsua

Hurrengo lau urteetan, Euskadik datozen hamarkadetako etorkizun ekonomikoa izango du jokoan. Nazioartean bizi den krisi ekonomikoak orain arte menderaezintzat jotzen ziren enpresa eta finantza erakunde handiak kolokan jarri ditu. Kapitalismoaren benetako ikonoak lurra jotzen ari dira. Giza garapenari dagokionez abangoardian dauden herrialdeek, Islandiak esaterako, ordainketak etenda ditu.

Euskal enpresentzat ohikoak diren sektoreak eta merkatuak (automozioa, eraikuntza edo kontsumo ondasunak adibidez) atzeraldian daude eta horrek eragin negatiboa du jardura ekonomikoan eta enpleguan.

Ez dakigu zenbat iraungo duen egungo egoerak. Ekonomista batzuen ustez hilabete batzuk iraungo du; beste batzuek, ezkorrenek, iragarri dute urteetan egongo garela geldialdian.

Ziur dakiguna da hau ez dela egoeraren araberako krisi hutsa. Egun ezagutzen dugun sistema ekonomikoa aldatu eta goitik behera eraldatzeko unean gaude.

Krisiaren ostean nazioartearen ekonomi suspertzea etorriko da, baina kasu horretan ere gauzak ez dira lehengoak izango.

XX. mende osoan zehar kapitalismoaren erreferente izandako industri korporazio handiak eta finantza inperioak desagertuko dira. Eragile zaharrek protagonista berriei emango diete bidea, eta azken hauek XXI. mendeko ekonomia berriaren aitzindari izango dira. Herrialde berriak, sektore berriak, industri berriak, merkatu berriak, harreman geoestrategiko berriak, ekonomia eta politika arloetako eragin-eremu berriak. Euskadik etorkizun berria izango du aldaketarako aukera hau aprobetxatzeko gai bagara.

Euskadik bermeak dituen aitzindaritza ekonomiko eta soziala behar du

Euskadik inoiz baino gehiago behar du aitzindaritza ekonomiko eta sozialerako proiektu bat, konfiantza eta konpromisoa eskainiko dizkiona.

Konfiantza, krisi ekonomikoaren eragin lazgarrienei epe laburrera aurre egin ahal izateko, baina lanpostuen mantentzea defendatuz eta ETEei laguntza irmoa emanez.

Konpromisoa, gure lehiakortasunaren oinarriak finkatzeko eta suspertze ekonomikoa hobeto aprobetxatu ahal izateko; horrela, giza garapen iraunkorrari dagokionez nazioartean abangoardian egongo gara.

Konfiantza eta konpromisoa. Aktibo horiek EAJ-PNV alderdiaren proiektua islatzen dute, hau da, krisiaren ondorioz indartuta ateratzeko eta gaur daukagun eta gure seme-alabek etorkizunean izango duten ongizatea bermatzeko proiektua.

Prest gaude. Kudeaketa onaren bermea gara

Euskadik badu nazioarteko krisi ekonomiko honetatik onik ateratzeko beharrezkoa den egitura, baita susperraldia aprobetxatzeko sarea ere.

Etekin handiko finantza publikoak ditugu, baliabide publikoak modu eraginkorrean kudeatu direlako.

Industri sare sendoa eta lehiakorra daukagu.

Euskadiren bigarren eraldaketa ekonomikorako oinarriak jarri ditugu eta, horretarako, berrikuntzaren aldeko apustua egin dugu.

Euskal enpresek gero eta agerpen handiagoa dute goraka ari diren merkatu berrietan. Lan merkatuak inguruan ditugun herrialdeek baino hobeto eusten dio egoerari, laneku prestatua eta lehiakorra daukagulako. Elkartasun eta gizarte justiziarako berme osoa ematen duen gizarte babesaren sarea daukagu.

Prest gaude.

EAJ-PNV alderdia da Euskadirako bermerik onena.

Herri hau modu eraginkorrean kudeatzeko eta zuzentzeko gaitasuna, zintzotasuna eta esperientzia dituen liderra daukagu, eta orain arte horrela erakutsi izan du.

Gure Herriaren errealitatetik hurbil dauden gizon eta emakumeez osatutako taldea daukagu. Krisi ekonomikoa gainditzeko, enplegua sortzeko eta Euskadi munduko giza garapenaren abangoardian jartzeko proiektua daukagu.

Itxaropenez betetako erronka datorkigu.

Baina denon artean lortuko dugu!

I. 2.- Printzipioak eta balioak. Mundu globalean integratzeko sustraiak

Printzipioak:

Pertsonak, kosta ahala kosta

Hauteskunde egitarau honek helburu nagusi bi ditu: arrakastaz gainditzea egungo krisi ekonomikoa eta gure gizartearen normalizazio politikoan laguntzea. Bide horretan, pertsonak dira gure iparroratz zehatzena. Gure historian zehar, oraingoak bezain zailak izan diren egoerak gainditu ditugu, beti entzun dugulako gure Herriko gizon eta emakumeen ahotsa. Badakigu nola egin eta horretarako behar den indarra daukagu.

Autogobernuaren defentsa

Autogobernuari esker, Euskal Erakundeek euskal herritar guztien ongizatea hobetu dute. Gaurko testuinguruan, Euskadik globalizazioari aurre egiteko beharrezkoak diren bitarteko guztiak eduki behar ditu etengabe bilakaera prozesuan dagoen mundu honetan.

Hazkunde iraunkorra

Euskadik natura du beti gogoan, eta horren arabera jarduten du. Azken urteotan, orokorrean azaldu den erronkaren garrantzia barneratu dugu; eta krisi ekonomikoaren eraginez dugu aldatuko garapen iraunkorreko politiken gainean hartutako konpromisoa. Aitzitik, energia berriztagarriek, ingurumen arloan munduko lehenak izateko aukera ona eskaintzen diote euskal ekonomiari.

Elkartasuna

Hauteskunde egitarau honek modu aktiboan lagunduko dio Euskadiko edo munduko beste edozein herritako pertsona guztien ongizateari, eta batez ere beharrian handiena duten pertsonen ongizateari. Urteotan gure ongizate mailak gorakada handia izan du, baina ezin dugu ahaztu ahulenak zaintzeko beharra duen familia handi bat garela.

Demokrazia eta askatasuna

Globalizazioak dakartzan erronkei heltzeko ezin ditugu askatasunak mugatu eta ezin dugu demokraziaren interpretazio murriztailea egin. Etorkizunak demokrazian sakontzeko eskatzen digu, baita herritarren parte hartzerako bide berriak bilatzeko ere.

Bakea eta indarkeriari uko egitea

Bakea eta elkarriketa, horiek dira gure herriaren eskakizun nagusienak. Hori dela eta, gure alderdiak ezinbesteko konpromiso moduan hartzen ditu. ETA gure bizitzatik desagertu behar da, eta ordezkari politiko garenok elkarriketan aritzeko asmoz eseri eta akordio berriak lortu behar ditugu.

Euskal herritarren erabakitzeko eskubidea

Printzipio demokratiko horren arabera Euskadik eta Estatuak negoziatu egin behar dute, denen artean ezar daitezkeen euskal gizartearen borondate demokratikoa betearazten lagunduko duten baldintza politiko berriak.

Balioak:

Ahaleginaren eta erantzukizunaren balioa

Herri hau nazioartean erreferentzia arrakastatsua bihurtu da, 80. hamarkadan gure ahaleginari esker lortu baikeuen krisi ekonomiko larri bat gainditzea. Iraganeko esperientzia daukagu eta badakigu zer egin behar den krisi honetatik indartuta ateratzeko. Ez dago konponbide magikorik; banakoen eta taldeen ahalegina da gakoa, baita gure erabakiak hartzeko gaitasuna edukitzea ere.

Lanaren eta zintotasunaren balioa

Indar politikoek argi hitz egin dezagun eskatzen du euskal gizarteak. Egia erdiak eta gezurrak ezin dira ezkutatu marketing kanpainen bidez. Gauza bakoitzari dagokion izena eman behar diogu eta, batez ere, emandako hitza bete behar dugu.

Esperientziaren eta Euskadiri diogun maitasunaren balioa

EAJ-PNV alderdia buru duen Eusko Jaurlaritzak onartu egiten ditu bere kudeaketaren ondorioz izan diren jardun onak eta okerrak. Autokritika funtsezko balioa da euskal herritarren aldeko lan hobe egin nahi bada. Beti jardun dugu apaltasunez, leialtasunez eta gardentasunez. Bestalde, euskal gizarteari erakutsi beharreko enpresa-txartel hoberenak euskal herriarenganako maitasuna eta pilotutako esperientzia dira.

Aitzindaritzaren partekatuaren balioa

Ondo josita ditugu oinak euskal lurretan eta ez diegu beldurrik erronka berriei. Bigarren eraldaketa ekonomikoan lehenak izateko eta euskal gizartearen normalizazio politikoa lortzeko indarra daukagu. Erronka horri aurre egin ahal izateko euskal erakunde guztiekin eta herri honetako eragile ekonomiko eta sozialekin partekatu beharreko gidaritzaren eduki behar dugu. Gurea bezalako gizarte askotarikoan, gizarte harreman eta portaeren oinarria aniztasunaren errespetua izan behar da.

I. 3.- Think Gaur. Bost erronka eta bost konpromiso

EAJ-PNV alderdiak hausnarketa prozesua egin du Euskadi 2020. urterako prestatzeko asmoz. Mundua inoiz baino arinago ari da aldatzen. Eta Euskadik egoera horretara azkar egokitzen eta giza garapen iraunkorraren abangoardian egoten jakin behar du.

Euskal gizartearen alde lan egingo duen bitartekoa izan nahi dugu eta, horrela, denok batera lan egin epe ertainera aurre egin behar diegun erronketan. Erronka horiei ematen diegun erantzunaren arabera izango da orain dugun eta etorkizunean izango dugun ongizatea.

Herri gisa bost erronka hartu ditugu:

• Mundu globalean lehiakorrek diren gizartea eta ekonomia prestatzea

Euskal herritarrak eta enpresak testuinguru ireki eta globalizatu batean lehiakorrek izan daitezen lortu behar dugu. Gure aberastasun maila handituz bakarrik lortuko dugu gizarte politika hobekuntza garatzeko gaitasuna izango dugula bermatzea. Enpresa lehiakorrek edukitzeko ezinbestekoa dugu euskal gizarte osoa eta gizarte eta erakunde mailako sarea ere lehiakorrek izatea. Hain zuzen ere, EAJ-PNV alderdiaren asmoa da gizartea eta enpresak irekiak, malguak, helburuen aldetik asmo handikoak eta xede gisa duten gizartearekiko erantzuleak izatearen alde lan egitea.

Gure konpromisoa: enplegua leheneratzea eta Euskadiko langabezia % 5 inguruan uztea.

• Gure garapena iraunkorra izan dadin lortzea

Hazkunde iraunkorra ekonomia, gizarte zuzentasunaren eta ekologiaren garapena batzen ditu. Ingurumena eta gizartea iraunkorrak izateko irizpide aurreratuagoak ezarriko ditugu ekonomiari eta azpiegiturari lotutako plan guztietan. Gure aurrekoen lurraldea zaindako dugu eta inguru onuragarriagoa utziko diegu XXI. mendeko euskal herritarrei.

Gure konpromisoa: energia berriztagarriak etxeetako kontsumo elektrikoaren % 100eraino heltzeko behar den ekoizpena areagotuko duen plana garatzea.

• **Gizarte kohesioa eta ongizatea hobetzea, gizarte babeseko eredu iraunkorraren bidez**

Garapen handiagoa lortu ahal izateko, gizarte ongizatea bermatu behar diogu euskal gizarteari. Gizarte babeseko eredu eraginkorra izan behar da, beharrianak gero eta gehiago izango direlako eta baliabideak ezinbestean mugatuak izango direlako. EAJ-PNV alderdiak argi hitz egiten du. Aurreikuspenen arabera piramide demografikoak izango duen bilakaerak tentsioak sortuko ditu sisteman; eta mundu globalizatuan presio fiskala areagotzeko aukera txikia izango da. Hori kontuan hartuta, Herrialde eskandinaviarretako gizarte babesaren eredu inspiratzen diren kudeaketarako metodo berriak aplikatuko ditugu, horien bidez erantzun sozial handiagoa eta gure ongizate sistemaren eraginkortasun eta iraunkortasun maila handiagoa bermatu ahal izateko.

Gure konpromisoa: Herrialde eskandinaviarretako eredu bat oinarritzat hartuta gizarte ezberdintasunak murriztea eta Europar Batasuneko txirotasun tasarik txikiena lortzea.

• **Euskal nortasuna mantendu eta bultzatzea mundu globalizatu honetan**

EAJ-PNV alderdiak konpromisotzat hartu du hezkuntza, kultura eta euskara euskal nortasunaren ezaugarri moduan garatzea gero eta globalizatuagoa den mundu honetan. Kulturak berdintzeko arriskuaren aurrean euskal nortasuna eratu behar dugu, eta horretarako, batzen gaituena, ezberdina denarenganako errespetua, gure ondarea eta memoria kolektiboa hartu behar ditugu kontuan. Prozesu hori irekia, dinamikoa eta integratzailea izango da, barruan eta nazioartean zabaltzeko bokazio argiarekin.

Gure konpromisoa: euskal nortasuna eta kultura munduan zehar zabaltzea eta European hezkuntza arloan bikaintasun handiena duten herrialdeen artean Euskadi sartzea.

• Gure autogobernua guztiz garatzea eta bakea lortzea

Bakeari eta normalizazio politikoari lehentasuna ematen diegu; eta horiek dira euskal gizartearen aurrean hartzen ditugun funtsezko konpromisoak. Ziur gaude azkenean bakea eta normalizazio politikoa lortuko dugula gure gizartean; horretarako testuingurua, mugarik ez duen eta barneko herri eta nazioak errespetatzen dituen Europa izango da. Testuinguru hori lortzeko, pertsona guztien giza eskubide guztiak defendatzea eta gure ongizatea indartzeko asmoz autogobernua bultzatzea xede irmotzat dituzten oinarriak sortu behar ditugu.

Gure konpromisoa: gure autogobernua bultzatzea eta parte hartzeko demokraziaren kultura berria garatzea.

I. 4.- Premiazkoa, garrantzitsua eta ezinbestekoa dena

a) PREMIAZKOA DENA: krisiari aurre egitea eta langabeziaren kontra borrokatzea

EAJ-PNV alderdiaren ustez lehenbizi krisi ekonomikoak enpleguan duen eragin larria eten behar da, hori premiazkoa da.

Horretarako, hain zuzen, Gobernu programan indartu egingo dira hurrengo ardatzetan abiarazitako neurriak:

Laguntza ekonomikoa eta finantza laguntza euskal industri sareari

Finantzen Euskal Institutuaren bitartez abal gehiago emango zaizkie eta finantza laguntzako programa guztiak indartuko zaizkie ETEei.

Lan itunak

Enpresa eta langileen arteko akordioak bultzatuko dituzten neurriak sustatuko dira lantokietan, ondokoak bideratzeko asmoz: ekoizpenaren egokitzapena, ordutegien egokitzapena eta sobera dauden langileak berriz laneratzeko konpromisoa. Baina, betiere, helburu nagusia enpleguak ez galtzea izango da.

Berriz laneratzeari

Enplegu-erregulazioko espedienteak izan dituzten pertsonen lanbide heziketa bereziko programak aplikatuko zaizkie.

Laguntzeko eta berriz laneratzeko bide pertsonalizatuak abiaraziko dira; horrez gain, diru-laguntzak emango zaizkie haien egoera hobetzen duten eta berriz lanean hasteko ahalegina egiten duten langabetuei.

b) GARRANTZITSUA DENA: enplegua leheneratzeko eta ongizatea areagotzeko oinarriak ezartzea. Bost eragileak:

Herrialde moduan dugun erronka ezin da soilik izan krisiaren eraginak epe laburrera arintzeko. Krisia amaitu egingo da. Gure erronka ondo prestatzea da, lehenengo lerroan egoteko, hau da, ekonomiaren suspertzearen abangoardian egoteko. Hori da gure bermerik onena **enplegua modu iraunkorrean sortzeko eta Euskadi nazioarteko Giza Garapenaren lehenengo postuetan kokatzeko.**

Hori guztia lortzeko, bada, EAJ-PNV alderdiak euskal gizarteari begira konpromisotzat hartu du gure ongizatearen eta enpleguaren maila gorenaosatzen duten **bost eragileetan** oinarritutako estrategia orokorra garatzea. Hona hemen aipatutako eragileak:

- BERRIKUNTZA

Hazkunde iraunkorraren eta enpleguaren eragilea.

Euskadi berrikuntzan lehenengoak diren 20 herrialdeen artean sartzea da gure erronka. Eta lortuko dugu, ziur baikaude berrikuntza dela ekonomia globalean lehiatzeko apusturik onena, inguruan ditugun herrialdeetakoak baino altuagoak diren hazkunde tasa iraunkorrak bermatuz eta enplegu gehiago eta kalitate hobeagokoa sortuz.

- BERDINTASUNA

Gizarte orekaren eragilea.

Helburua ez da gehiago haztea, modu orekatuan haztea baino. Horretarako, biztanle guztien bizi kalitatea eta itxaropena hobetu behar da, inor baztertu gabe.

Hurrengo legegintzaldian, gure **erronka Herrialde eskandinaviarretako gizarte babeseko eredua Euskadira egokitzea** izango da. Izan ere, erronka hori lortze aldera EAJ-PNV alderdiak proposatu du gizarte elkartasuneko sistema integrala garatu behar dela hurrengo esparruetako politikak oinarritzat hartuta: osasuna, familia eta pertsona behartsuenen babesa.

- HEZKUNTZA ETA KULTURA ARLOETAKO NORTASUNA

Euskadi munduan ezagutarazteko eragilea.

Euskadik agerpen handiagoa izan behar du nazioartean, eta ekonomia eta kultur arloetako joera berriekin bat egin behar du. Gure kultur arloko nortasunagatik eta hezkuntza arloko bikaintasunagatik izan behar da gure herrialdea ezaguna mundu globalean. Horri dagokionez, EAJ-PNV alderdiak erronka moduan hartu du **Euskadi eskola-porrotaren tasa txikienak dituzten Europako bost herrialdeen artean sartzea.** Prestakuntza onena eta prestatutako pertsonak dituzten herrialdeek bakarrik izango dute ahotsa munduan.

- AUTOGOBERNUA

Gure ongizatearen eragilea.

Gure askatasunaren eta ongizatearen eragile nagusienak beti izan dira geure burua gobernatzeko gaitasuna, geure erabakiak hartzeko gaitasuna, nola bizi nahi dugun erabakitzeko eta gure arazoak konpontzeko eskubidea.

Zenbat eta autogobernu handiagoa, orduan eta hazkunde ekonomiko eta ongizate handiagoak.

Krisi ekonomikoa gainditzeko eta enplegua sortzeko ezinbestekoa dugu autogobernua zabaltzea. Hori dela eta, hurrengo legegintzaldiko **erronka** izango da **daukagun autogobernua bultzatzea, estatutueta dagozkigun eta etorkizunean izango ditugun eskumenak erabiliz.**

- PARTE HARTZEA

Ahalegin kolektiboaren eragilea.

Herrialde moduan aurrera egin nahi badugu gizarte osoak egin behar du ahalegin kolektiboa, itxaropenez betetako ahalegina.

Demokrazia berriak eskatzen du herritarren iritziak beti hartu behar direla kontuan eta errespetatu behar direla. Arrakasta duten herrialdeek herritarren parte hartzearen aldeko apustua egin dute, proiektu komun eta integratzaile bateko elementu dinamizatzaile moduan.

EAJ-PNV alderdiak Euskadiko kultura demokratiko berriaren buru izan nahi du. Horretarako, hain zuzen, hurrengo legegintzaldirako **erronka** moduan hartu dugu **Herritarren partaidetzari buruzko Legea aurkeztea Eusko Legebiltzarrean**, lege hori izateko zuzenean gudan eragina duten gaietan erabakitze eskubidea bitartekoa.

c) EZINBESTEKOA DENA: Giza eskubideak defendatzea eta bakearen alde lan egitea

Gizarteak Bakea nahi du eta euskal gizarteak horretarako eskubidea du.

Gure **erronka** etenik gabekoa da eta bakearen alde lan egiten jarraituko dugu lortu arte.

Bakerako bidean gure urratsak orientatuko dituen gida, pertsona guztien giza eskubide guztien defentsa da. Distantziakidetasunik eta bazterketarik gabe.

Hori da EAJ-PNV alderdiaren bidea, euskal gizarte gehienaren bidea ere badelako.



I. 5.- Hurrengo legegintzaldirako 25 helburu estrategiko

- 1.- 2009. urtearen amaieran krisiak eragingo duen lanpostuen galera geldiaraztea eta ordura arteko lanpostu kopurura heltzea. Horretarako, langabezia tasa % 5etik beherakoa izan behar da legegintzaldiaren amaieran.
- 2.- Enpresa garapena bultzatzea krisia gainditzeko eta Europar Batasunean biztanleko errentan 2. postura iristea.
- 3.- Europarekiko konbergentzia teknologikoa gainditzeko eta 10 langile baino gehiagoko euskal enpresen % 50ak berrikuntzaren arloko jarduerak egitea lortzea; patentei dagokienez milioi bat biztanleko 100 patenteko kopurura iristea.
- 4.- Euskal enpresek merkatu berrietan duten presentzia zabaltzea. Kasu honetan konpromisoa esportazioetan 25.000 milioi euroko marka gainditzeko da.
- 5.- Ekonomia Indarberritzeko Planaren betearazpena aurreratzea; Planak 12.800 milioi euroko inbertsio publikoa du. Halaber, trenbidearen euskal Ya beteko dela bermatzea.
- 6.- Ingurumenaren arloko politika publikoetan Europako erreferente bihurtzea, energia berriztagarrien bidez euskal etxeetan kontsumitzen den energia elektrikoaren % 100 sortzeko plana garatuz.
- 7.- Euskadiko lehen sektorearen ekoizteko balioa % 25 handitzea.
- 8.- Euskadi bisitatzen duten turisten kopurua % 20 handitzea eta 10.000 merkataritza enpresa modernizatzea.
- 9.- Herritarrei informazioa eta arreta emateko mekanismo berriak sartzeko kudeaketa publikoan.
- 10.- Gure osasun publikoa erreferente bihurtzea Europan, apurka-apurka osasunaren arloko biztanle bakoitzeko gastu publikoa gehitu eta pertsona bakoitzeko 2.000 eurokoa izan arte.
- 11.- Etxebiden inskribatuta dauden eta zama eta erantzukizun familiarak dituzten pertsona guztiei babes ofizialeko etxebizitza bat eskaintzea; lehentasuna emango zaio alokatzeari eta ez jabetzari.
- 12.- Legiegintzaldian zehar familiei laguntzeko politika publikoak bikoiztea.
- 13.- Herri eskandinaviarrek duten gizarte babes eredua Euskadiko errealitateari egokitzea.
- 14.- Euskadi munduko lehen 5 herrialdeen artean kokatzea Nazio Batuek ezartzen duten Genero Berdintasunaren Adierazleari dagokionez. Sexu aniztasunaren aintzatespen eta erabateko begirunean aurrera egitea.
- 15.- Zahartze aktiboa lortzeko politika berriak bermatzea eta 80 urtetik gorako pertsonentzat aurrearreta eta laguntza zerbitzu berriak sustatzea.
- 16.- Justizia herritarrengana hurbiltzea, Bake Epaitegien zerbitzuak sustatuz.

- 17.- Etorkinei abegia berme osoz ematea eta Garapenerako Lankidetzarako Programetan % 0,7ko konpromisoa betetzea.
- 18.- Euskadiko kriminalitate tasa Europar Batasuneko baxuenetakoa izatea lortzea, eta Ertzaintza Segurtasunaren Marko Europarrean (Schengen) integratzea.
- 19.- Eskolako arrakastaren tasa % 95eraino igotzea eta informazioaren teknologiak hezkuntza sisteman integratzea, ikasle bakoitzari ordenagailu bana zuzkituz.
- 20.- Kulturaren arloko azpiegitura berriak bultzatzea: Guggenheim Urdaibai Museoa, Gasteizko Erakusketa eta Kongresu Jauregia, eta Kultura Garaikideko Donostiako Nazioarteko Zentroa (Tabakalera).
- 21.- Gizartean euskara erabiltzeko urrats sendoak ematea, benetako elebitasun eraginkorra gauzatze aldera.
- 22.- Euskal diasporak euskal erakundeetan duen ahotsa indartzea eta euskal kolektiboen artean lanbide arloko profil eta ezaugarri egokiak dituzten pertsonak bilatzeko egitaraua sortzea, etorkizunari begira gure harremanak sendotzeko asmoz.
- 23.- 18-25 urte bitarteko gazte guztiei erabilera partekatuko gizarte alokairuzko etxebizitza eskaintzea.
- 24.- Kalitaterik handieneko kirol oinarria prestatzea, Euskal Herriko kirol selekzioen ofizialtasuna erdieste aldera.
- 25.- Euskadi munduko 50 herririk garatuenen artean izatea bermatzea.



**KRISI EKONOMIKOA
GAINDITU, ONGIZATEA
HANDITU ETA ENPLEGUA
SORTZEKO ESTRATEGIA
INTEGRALA**

A R D A T Z A K :

II. 1.- BERRIKUNTZA, hazkunde iraunkorraren eta enpleguaren eragilea:
“Pertsona aktibo eta sortzaileak”

II. 2.- BERDINTASUNA, gizarte orekaren eragilea:
“Pertsona zaindu eta solidarioak”

II. 3.- Hezkuntza eta kultura arloetako NORTASUNA, Euskadi munduan ezagutarazteko eragilea:
“Pertsona trebatuak eta mundura irekiak”

Euskadi birsortu behar dugu. Azken hamarkadetakoa eraldaketa ekonomiko garrantzitsua da hau. Munduko herrialde guztiek bizi dugu antzeko erronka, baina guztiek ez dute modu berean erantzungo. EAJ-PNVren apustua Euskadi arrakastaz erantzungo dutenen artean egotea da. Krisiari konfiantza, lanaz eta sormenez aurre egiten jakinez gero, etorkizunerako aukera handi bihurtu ahal izango ditugu gaur egungo mehatxuak.

Zailtasun nabariak izango ditugu, batez ere enpleguaren alorrean, baina azken urteotan ondo egin ditugu gauzak, eta inguruko ekonomia gehienak baino hobeto prestatuta gaude. Gainera, antzeko egoerak bizi izan ditugu iraganean, eta orduan ere arrakastaz gainditu genituen.

Esperientzia hori kontuan hartuta, EAJ-PNVk krisia gainditzeko duen proposamena estrategia integrala bultzatzea da, etorkizunerako proiektu sendoa eraikitzeko berrikuntza, berdintasuna eta nortasuna uztartzen dituen estrategia integrala, hain zuzen ere.

Gure oinarria pertsonak dira. Pertsonak dira gure lehengai nagusia. Pertsona aktibo eta sortzaileak. Pertsona zaindu eta solidarioak. Pertsona trebatuak eta mundura irekitzeko prestatuak.

Horiexek dira Euskadiren hazkuntza ekonomiko orekatu eta iraunkorra bultzatuko duten eragileak. Berrikuntza, hazkunderaren eta enpleguaren eragile handia. Aukera berdintasunaren aldeko apustua, gizarte orekaren eta elkartasunaren eragile izan dadin. Eta gure kultura nortasunaren eta hezkuntza bikaintasunaren defentsa, Euskadi munduan ezagutarazteko eragile izan dadin.

Gure erronka etorkizunean aukera handiena izango duten eta munduko herrialde gutxiak eskaini ahal izango dituzten arloetako (energia berriagarriak, nanoteknologia, neurozientzia, etab.) ikerketetan liderra izateko gai izango den herrialdea eraikitzea da. Hori lortzeko, gure historian prestakuntza onena duten pertsonak ditugu, eta munduko talentu onenak erakarriko ditugu Euskadik berrikuntzaren alorrean duen lekua indartzeko.

Krisia gaindituko dugu, pertsona egokiak, beharrezko esperientzia eta inguruabarrek eskatu dutenean birsortzen jakin izan duen milaka urteko herriaren motibazioa ditugulako.

II. 1.- BERRIKUNTZA, hazkunde iraunkorraren eta enpleguaren eragilea: *“Pertsona aktibo eta sortzaileak”*

Euskadiren bigarren eraldaketa ekonomikoa **berrikuntzarena** da. Zeharkako ardatza da hau, gizarte guztiari eragiten diona. Izan ere, Euskadi lehiakor eta iraunkorra izan dadin, gizarte babes egokia, berezko nortasuna, autogobernua eta bake giroa izan ditzan, gure herriari dugun onena emateko gai izan behar dugu. EAJ-PNVk konpromisoa hartu du Euskadi Europar Batasuneko 20 herrialde berritzaileen artean ipintzeko.

Berrikuntza zentzu zabalean ulertu behar da; horrela bada, ez dira enpresek egiten dituzten berrikuntza teknikoak, merkatukoak edo antolakuntzakoak bakarrik kontuan hartuko, gizarte eta erakunde alorreko berrikuntzak ere izan behar ditugu gogoan. Herrialde berritzailea da bere inguruan, mundu orokorrean eta euren artean erlazionatuta abantaila lehiakorrek egin eta mantentzea lortzen duena. Horretarako, ezagutzak, prestakuntzak eta talentuak eraldatzeko gai izan behar du, tokiko eta nazioarteko eragileak uztartuz, baliabide estrategikoak erakarri eta atxikiko dituen lehiakortasun eta iraunkortasuneko abantailan.

EAJ-PNVko gizon eta emakumeek ez dugu zalantzarik, gure ustez horixe da Euskadiren **lehiakortasuna** mantentzeko aukera bakarra eta, beraz, gaur egun dugun bizi kalitatea hobetzeko aukera bakarra. Berrikuntza da gure etorkizunaren giltza. Ezberdinak izaten jakitea. Beste inork eskaini ezin duen balio erantsia eskaintzea. Balio horren oinarria ezagutzaren kudeaketa, **pertsonek** gaitasunen garapena, aldaketak, metodologia berriak eta produktu eta zerbitzuak zein prozesuak, antolaketak eta merkatuak beste era batean ematea izan beharko da.

EAJ-PNVren proposamena “made in Euskadi” alde batera utzi eta **“thought and made in Euskadi”** bultzatzea da. Berrikuntzak gizarte osoa blaitu behar du, bai eta erakundeak, sektore pribatua eta hezkuntza sistema ere. Ikuspegi irekia da, integrala eta eraldaketakoa, esparru eta sektore guztietara iritsiko dena, bai eta enpresa eratzen duten sail eta pertsona guztiengana ere, hau da, zuzendaritzako arduradunengana, langileengana, eta gainerako guztiengana. Lehiatzeko ezinbestekoa da partekatzea, lankidetzan aritzea eta elkarren arteko harremanak izatea.

EAJ-PNVk konpromisoa hartu du **sormena** berrikuntzaren oinarri gisa sustatzeko, hau da, teknologia eta zientzia, arte eta kultura, eta ekonomia alorretako sormena. Gizarte aurreratueta sormena gero eta gizarteratuago eta sarean eraikitzen da.

EAJ-PNVk konpromisoa hartu du Euskadi **nazioarteko bihurtzeko**, ikuspegi zabalean, ekonomia, gizarte eta kultura alorretan Euskadi herrialde lehiakor bihurtzeko beharrezko tresna dela uste dugulako. Lehiakortasuna hobetzeko bidea izateaz gain, nazioarteko bihurtzeko aukera “herrialde marka” eraikitzeko ere erabili beharko litzateke, Euskadiren desberdintze kritikoa eragingo lukeena.

Puntako **azpiegiturak** izatea ere funtsezkoa da Euskadiren garapen ekonomikorako. Azpiegitura fisiko handiak egin ditugu, eta garrantzitsuenetako batzuk amaitu behar ditugu (Abiadura Handiko Trena). Halaber, ezin ditugu ahaztu gure orain dela gutxiko garapenerako funtsezkoak izan diren beste azpiegitura batzuk, esaterako teknologia, hezkuntza eta kultura alorretakoak.

Azpiegitura fisiko horiekin batera, azpiegitura birtualak ere beharrezkoak dira, hau da, gure garapen ekonomikoari laguntzeko estrategiak eta, batez ere, hazteko aukera handia duten sektore ekonomiko berrien garapenari laguntzeko estrategiak

Garapen iraunkorrak garapen ekonomikoa eta gizarte eta ekologia oreka uztartzen ditu. Herrialde guztiek bete behar dituzte aldaketa klimatikoaren kontrako Kiotoko konpromisoak eta, ondorioz, gizarte eta ingurumen alorreko iraunkortasunaren irizpideak aplikatu behar ditugu plan ekonomiko eta azpiegitura plan guztietan.

EAJ-PNVk beste era bateko hirigintza sustatuko du, etxebizitza, lana eta aisia uztartuko dituzten hiriak bultzatuz. Hiri “topakorrak”, pertsonen arteko topaketa errazten dutenak eta lurzoru, energia eta materialen kontsumo txikiagoa dutenak. Garraio publikoa izan beharko da mugikortasunerako eredu, sare zabala eta hainbat modu eskainiko dituela (trena, metroa, tranbia, autobusa, etab.), elkarren artean lotuta. Gure erronka uraren azpiegiturak eta uraren zentzuzko erabilera bultzatzea da. Euskadik birziklatze tasak handitzen jarraitu behar du hondakin guztiekin, herrialde aurreratueto buru izateko.

Energia funtsezko sektorea da Euskadin, bai bere bolumenagatik bai eta duen garrantzi estrategikorengatik ere. Jarduera ekonomikorako oinarritzko inputetako bat izateaz gain, energia erabiltzeak zuzeneko eragina du gizartearen iraunkortasunean eta, era berean, ekonomia mailan oparotasuna sortzen duen industria sektore nabarmena ere bada. EAJ-PNVk uste du funtsezkoa dela energia aurreztearen, erabilera eraginkorraren eta hornikuntzaren bermearen balioak eta energia berriztagarrien babesa helarazten jarraitzea, Euskadi nazioarte mailan alor honetako erreferentetzat har dadila lortzearen.

EAJ-PNVren proposamena, hauteskunde-programa honetan, energia berriztagarrien esparruan egindako inbertsioak nabarmen handitzea da, batez ere energia **eolikoan**, eta **eguzki** energia fotovoltaiakoaren eta eguzki energia termoelektrikoaren garapenaren aukerak bultzatzea. Halaber, **labore** energetikoen (algak) eta **mare**a energiaren aukera handiak aprobetxatu nahi da, etorkizuneko energia sisteman **hidrogenoa** sartzea ahaztu gabe.

EAJ-PNVk Euskadin aplikatzeko proposatu duen energia iraunkorraren ikuskera berria energia hibridoaren iturrietan dago oinarrituta (batez ere berriztagarriak eta iturri anitzekoak: biomasa, eolika, eguzkikoa, ur bidezkoa, etab.), biltegiratu eta sortzeko lekua eskatzen duen gunera eramanez, eta banaketarako tresna eta sare berriak prestatuz.

Euskadiko lehen sektorea izango da iraultza berde honen protagonista nagusietako bat. Jarduera ekonomiko tradizionalak mantendu eta sustatzeaz gain, EAJ-PNVk konpromisoa hartu du energia berriztagarriekin zerikusia duten enplegu txoko berriak sortzeko. Estrategia horrek errazago egingo du belaunaldi aldaketa eta bizi baldintzak hobetzea.

Berrikuntza

Gure konpromisoa pertsonak dira

“Pertsona aktiboak eta sortzaileak”

Arlo estrategikoak:

1. Enplegu egonkor eta kalitatezkoaren aldeko apustu garbia
2. Enpresa garapena, lehiakortasun eta enpleguaren bermea
3. Berrikuntza eta informazioaren teknologia berriak
4. Nazioarteratzea: aukera eta exigentzia
5. Azpiegiturak garapenaren zerbitzura
6. Iraunkortasuna eta autonahikotasun energetikoa
7. Euskadiko lehenengo sektorearen garapena
8. Sektore turistikoa eta merkataritza sendotzea
9. Administrazio eragingarriagoa

1. arloa: Enplegu egonkor eta kalitatezkoaren aldeko apustu irmoa

Gure hitza bete dugulako...

Enplegua areagotzeko konpromisoa hartu genuen...

Aurreko legegintzaldian lehenengo aldiz izan ditugu, autogobernua berreskuratu genuenetik, erabateko enplegutik hurbil utzi gaituzten langabezia tasak. EInen arabera, Lehendakariak 1998an lehenengo agintaldia hasi zuenean % 17,8koa zen langabezia tasa, eta harrezkero ia herenera jaitsi da, % 6,3koa izan baita 2008an, hau da, Europar Batasuneko batezbestekoa baino txikiagoa (% 6,9) eta Espainiako langabezia tasaren ia erdia (% 11,4).

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... 2009. urtearen amaieran krisiak eragingo duen lanpostuen galera geldiaraztea eta ordura arteko lanpostu kopurura heltzea. Horretarako, langabezia tasa % 5etik beherakoa izan behar da legegintzaldiaren amaieran.

Hauek dira gure Konpromiso eta Ekimenak...

Enplegua sortzeko helburu estrategikoa Programa osoan proposatutako neurri eta jarduera arlo guztien emaitza da. Berrikuntza garatzea, enpresa garapena bultzatzea, Inbertsio Publikoen Aparteko Plana, nazioarteko bihurtzea, energia berriztagarrien arloan enplegu iturri berriak sortzea, osasuna, behartsuen arreta, eta bereziki prestakuntza: arlo horiek guztiek dute enplegua sortzeko helburua. Atal honetan berriro laneratzeko eta enplegua ziurra eta kalitatezkoa izateko zuzeneko neurriak aurkeztu dira bereziki.

1.- Lan merkatuari oreka itzultzea

- Ekonomia Indarberritzeko Aparteko Plana gauzatzea, 20.000 lanpostu berri sortzeko aukera sendotu eta bultzatzeko.
- Enplegu erregulazioko espedienteek eragindako pertsonak berriro laneratzeko programa. Programa horrek honakoak izango ditu:
 - Pertsona bakoitzaren gaitasunei eta enpresen beharrezaneiei egokitutako prestakuntza plan profesionala, ordain ekonomikoa eskainiko diona lan gabe dauden pertsonen, prestakuntza ikastaroetara joan eta aprobetxatu dutenaren arabera.
 - Lan gabe dauden pertsonak inbertsio publikoko programek eta Gobernuaren gizarte programek sortutako enplegu eskarrietan sartuko direla bermatzea.
 - Autoenplegua. Lan gabe dauden pertsonen enpresak sortzea babesteko programa. Inbertsioaren % 30era arteko diru-laguntzak eman ahal izango dira, ez itzultzeko funtsera, gehienez 18.000 €, bateragarria izango dela Gizarte Segurantzak eskaintzen duen langabeziagatik estaldura kapitalizatzeko aukerarekin.
- Giza kapitala kudeatzea pertsonen prestakuntza eta gaitasun profesionala (eta euren txartel elektronikoa eta kontu pertsonala) azalduko dituen erregistroaren bitartez.
- Hezkuntza orientazioko politika aktibatzea, orientatzaileak prestatzeko plana hartuko



duena, ikasleek merkatuaren eskari eta joerak eta enpresen errealitatea nolakoak diren jakin dezaten.

- Erabateko okupazio tasa lau puntutan handitzea, emakumeak laneratzeko eta genero berdintasunaren aldeko gizarte konpromiso handia bultzatuz.
- Laneratzeko zailtasunak dituzten taldeen integrazioa sustatzea, etorkinek prestakuntza ekintzetan, lan praktiketan eta jakintza hobekuntzetan parte hartzea sustatuz.

II.- Prestakuntza, egonkortasun eta gogobetetasun profesionala handitzea

- Prestakuntza maila ezberdinak integratzea, horien artean iragaitako aukerak erraztuz, batez ere lanbide heziketaren eta unibertsitatearen artean, eta lana eta prestakuntza bateragarri eginez gazteen artean.
- “Bizitzako bigarren aukera” programa pilotuak sustatzea, gazteak zirenean ikasketak amaitu ezin izan zituzten pertsonentzat, edo lan merkatuaren gaur egungo eta etorkizuneko eskariei egokitzen ez zaien karrera aukeratu dutenentzat.
- Langileen partaidetza bultzatzea enpresaren kudeaketa eta emaitzetan, hori sustatuko duten zerga neurrietan oinarrituz, besteak beste.
- Laneko gogobetetasuna sartzeko enplegu politikaren helburuen artean, diagnosiak eginez eta hori sustatzeko eta absentismoa nabarmen murriztea lortzeko neurriak eskainiz.

III.- Laneko segurtasun eta osasuna bultzatzea

- Ezbehar kopurua murriztea, istripu larriak, oso larriak eta heriotza eragiten dutenak % 50ean murriztuz, batez ere eraikuntzaren sektorean. Horretarako, laneko segurtasunaren eremuko prestakuntza, ikuskaritza, prebentzio, informazio eta sustapen ekintzak areagotu eta egokituko dira.
- Erosketa publikoak modu intentsibo eta eraginkorrean erabiltzea, araudia bete ez izana zigortzeko eta laneko segurtasun eta osasunaren kudeaketa aktiboaren aitorpenak eskuratu izana saritzeko.
- Laneko Segurtasun eta Osasun Plan berria onestea, bere helburua laneko ezbeharren indizeak murriztea izango dela, Europar Batasuneko bost herrialde onenen artean egon arte.

IV.- Gizartearen eta erakundearen elkarriketa

- Ahaleginak areagotzea, benetako gizarte elkarriketa egin ahal izateko, topaketa organoak suspertu eta helburu hauetan aipatutako erronka estrategiko berriei eta gizarte hizketakideek planteatu nahi dituzten gainerako guztiei ekingo diena.
- Erakunde arteko elkarriketa hastea, aurreko helburuak bultzatzeko beharrezko baldintza gisa, eta batez ere enpleguaren politika aktiboak, lanaren ikuskaritza eta gizarte segurantzaren eskualdatzeko premia eskatzea.

V.- Laneratzea sustatzea

- Enplegurako Erakunde arteko Plan berria onestea, hiru helburu nagusi izango dituela: behin-behinekotasan tasa murriztea % 25 baino txikiagoa izan arte, zailtasun bereziak dituzten taldeak laneratzeko aukera erraztea eta krisi ekonomikoak eragindako pertsonak berriro laneratzea bultzatzea.
- Txanda kontratuaren erabilera sustatzea, gazteen enplegu aukera handitzeko.
- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren beste hiru bulego irekitzea, lanik gabe dauden pertsonen prestakuntza eta laneratzea hobetzeko.

2. arloa: Enpresen garapena, lehiakortasunaren eta enpleguaren bermea

Gure hitza bete dugulako...

... Biztanleko errentaren alorrean Euskadi Europako lehenengo bost herrialdeen artean ipintzeko konpromisoa hartu genuen...

“eta gaur bi herrialde baino ez ditugu aurretik: Luxenburgo eta Irlanda. Euskadi nazioarteko arrakastaren eredu bihurtu da, gure herrialdea industria alorreko erreferente eta Europar Batasuneko ekonomia puntakoenetako bat bihurtzeko izan dugun moduarengatik. Azken datu ofizialen arabera (2007. urtekoak), biztanleko BPGd (erosteko ahalmenaren termino homogeneoetan) 34.857 eurokoa da Euskadin, eta Europako batez besteko biztanleen BPGd baino % 41 handiagoa da.”

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... Enpresa garapena bultzatzea krisia gainditzeko eta Europar Batasunean biztanleko errentan 2. postura iristea.

Hauek dira gure Konpromisoa eta Ekimenak...

I.- ETEentzako finantza babesak

- Beharrezko finantziazioa ematea enpresa txiki eta ertainei, Finantzen Euskal Institutuaren bitartez, bideragarriak diren enpresa proiektuek krisi ekonomikoaren ondorioz zailtasunak izatea saihestearren.
- Finantzak egokitzeko programen estaldura handitzea, enpresa bakoitzeko berriro finantzatzeko bolumenak bikoiztuz eta berriro finantzatzeko beharra duten ETE talde guztiei zabalduz.
- Arrisku kapitalaren funts berria sortzea berregituratzearen eta krisi ekonomikoaren eragin berezia izan duten enpresa eta sektoreak sendotzea laguntzeko.
- Abalen eta berariazko finantziazio programen bitartez babestea euskal enpresak dibertsifikatu, ikertu eta nazioarteko bihurtzeko inbertsio berriak egitea.
- Finantza formula berriak prestatzea ETEek azpiegitura fisikoak, lurzorua, pabilioiak eta bulegoak eskuratu ahal izateko.
- “Proiektuaren arriskutan” lan egiten duten sektore ekonomikoetarako berme sistemak indartzea, esaterako ontzigintza edo aeronautikarako.
- Industria ehuna dibertsifikatzearen aldeko eta enplegua sortzen duten proiektu berritzaile berrien aldeko apustua, itzul daitezkeen aurrerakinekin (Gauzatu) eta gaur egungo egoerari hobeto egokituta dauden arrisku kapitaleko tresnekin finantza babeseko mekanismoak indartuz.
- EAJ-PNVk konpromisoa hartu du Euskal Kutxen bat-egitea bultzatzeko, Euskadiren finantziazioa, aurrezkia eta garapen ekonomikoa bermatzeko funtsezko tresna gisa.

II.- Kluster politika eta sektore estrategikoak sustatzea

Kluster politika, hau da, interes estrategiko bera duten enpresa eta erakundeen multzoa, erreferentea da nazioarte mailan, eta sakondu eta hedatu beharra dago. Horretarako, EAJ-PNVk euskal ekonomiaren sektore estrategikoen sendotzea sustatzea planteatu du, enpresa multzo indartsuenak berritu eta nazioarteko bihurtzea garatzeko ekintzak

II

KRISI EKONOMIKOA
GAINDITU, ONGIZATEA
HANDITU ETA ENPLEGUA
SORTZEKO ESTRATEGIA
INTEGRALA

indartuz, benetako euskal multinazionalak izan daitezen ekonomia orokorrean. Horretarako honako ekimen hauek egin nahi dira:

- Jarduera esparrua sektoreko ekimen berrietara eta lurralde esparru berrietara zabaldu, enpresa lankidetzaren estrategietan oinarritutako eskualde edo tokiko ekimenak babestuz.
- Euskadi nazioarteko erreferente bihurtu kluster politketan, "The Competitiveness Institute" izenekoaren presidentetzaren bitartez, Europako eta nazioarteko foroetan parte hartuz, eta Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren jardueren bitartez.
- Lankidetzak berrikuntzarantz bideratu, bai ideiak hedatzeko eta bai Sektoreko Berrikuntza Agendak osatzen dituzten proiektuak zehazteko.
- Sektoreentzako informazio estrategikoa eman, Sektoreko Behatoki Estrategikoak sortuz, kluster bakoitzeko hausnarketa estrategikoak mantentzeko.
- Prestakuntza programak garatu, sektoreen beharrianen arabera, zuzendarientzat zein sektore zehatzetako langileentzat.
- Sektore estrategikoen beharrianetara egokituta dauden azpiegitura teknologikoak bultzatu, horien bidez lehiakorrak izango badira eta eragile izateko gaitasun handiagoa izango badute industri sarean eta enpleguan.

III.- Jarrera ekintzailea eta enpresen sorkuntza sustatzea

Jarrera ekintzailea eta enpresa berrien sorkuntza sustatzeko plan bateratua abian jartzea, aberastasuna eta enplegua sortzeko tresna gisa: "Gizarte Ekintzailea Euskadi Plana".

Plan hori Jaurlaritzako hainbat sailek elkarlanean gauzatuko dute eta hurrengo jarduera eremuak hartuko ditu:

- Kultura arloaren eta ekintzaileen jardueren inguruan trebatzea hezkuntza inguruneetan.
 - Eskola eremuko taldeak enpresen sorkuntzaren garrantziaren eta onuren inguruan kontzientziatzea, enplegua zein aberastasuna sortzen duen eta ekonomiaren garapenari laguntzen dion iturria baita.
 - Kultura ekintzaileen inguruan trebatzen duten eta gaitasun zein ekimen ekintzailea garatzen duten programak bultzatzea ikasle taldeen artean (hasierako hezkuntza mailakoak, Lanbide Heziketakoak eta unibertsitateetakoak).
- Gizartearen jarrera ekintzailea sustatuko duten balioak eta programak zabaltzea, helburu hauetarako:
 - Gizarteak ekintzaile gisa aritzeari buruz eta ekintzaileari berari buruz iritzi ona izan dezan.
 - Sistema osatzen duten Jaurlaritzako sail bakoitzak ekintzaile aritzeko lanetan nola eta zein programaren bidez lagundu ahal dion jakin dezan ekintzaileak.
- Ekintzaileei babesa emateko Euskal Sistema eratzea, inplikaturako erakunde guztiekin elkarlanean:
 - Ekintzaileen ekimenei babesa emango diena (autoenplegua, ekintzailetza: oinarritzak eta goi-mailakoak).
 - Ekintzailearentzat homogeneoa izango dena, "abiapuntua" eta programak kudeatu eta gidatzeko ardura duen saila edozein dela ere.
 - Ekintzaileak enpresa sortu eta garatzeko "funtsezko une" guztietan laguntzak jaso ahal izatea bermatuko duena.
 - Ekintzaile izan litezkeen pertsonak bilatzeko prozesua baita ideia ekintzaileen sorkuntza babesteko prozesua ere hobetuko duena.

- Ekintzailearen Euskal Sistema beste sail batzuei lotzea, eta era berean, ekintzaileari enpresa sortu eta garatzeko prozesu osoan zehar laguntzea ahalbidetzea.

IV.- Gizarte ekonomia sustatzea eta familia enpresak babestea

- Gizarte ekonomia bultzatzea lan elkartuko kooperatibekin eta lan-sozietate anonimoekin lankidetzan arituz eta gizarte ekonomiako enpresa berrien sorkuntza sustatzea.
- Kooperatiben mugimendua bultzatzea eta Kooperatiben Goren Kontseiluaren eginkizunak indartzea baita gizarte ekonomiaren sektorearen gizarte- eta erakunde-ordezkaritza indartzea ere.
- Familia enpresa babestea, kudeaketa profesionalizatzea sustatzearen bidez eta ondorengoek enpresa hartu edo saltzeko prozesuetan laguntzearen bidez.

3. arloa: Berrikuntza eta informazioaren teknologia berriak

Gure hitza bete dugulako...

Euskadiren bigarren eraldaketari ekiteko konpromisoa hartu genuen...

“eta datozen urteetan berrikuntza arloan Euskadi Europako erreferente bihurtzea lortzeko oinarriak finkatu ditugu. Arlo honetan transferentzia lortzeaz gain, “berrikuntzarako euskal hiruhortza” eratu da. Honakoek, hain zuzen ere, osatzen dute: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseilua; Berrikuntzaren Euskal Agentzia; Innobasque eta Ikerbasque Fundazioa. Horrezaz gain, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako lau urteko plana abian jarri da, 7.000 milioi euroko inbertsio publikoa eta pribatua egin dela.

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... Europarekiko konbergentzia teknologikoa gainditzea eta 10 langile baino gehiagoko euskal enpresen % 50ak berrikuntzaren arloko jarduerak egitea lortzea; patenteei dagokienez milioi bat biztanleko 100 patenteko kopurura iristea.

Hauek dira gure Konpromisoa eta Ekimenak...

I.- Pertsonen eta Gizartearen esparruan

- Berrikuntzari loturiko balioak sustatzea, euskal enpresaren eta gizartearen etorkizuneko aurrerapenaren giltzarria baita:
Helburua: 25 eta 65 urte bitarteko biztanleen artean, etengabeko prestakuntzako jardueretan % 10etik gorako partaidetza izatea.
- Ikertzaileen eginkizunari prestigioa ematea eta ahalik eta gazte gehienek zientzietako karrerak egin ditzatela lortzea eta Euskadin I+G arloan aritzen diren pertsona guztiak lana duten biztanleen % 15 izan daitezela lortzea.
- Bizitza osoan zehar ikastea bultzatzea, eta, aldi berean, enpresaren estrategia eta pertsonen garapen profesionala lotzea.
- Informazioaren teknologia herritar guztien zerbitzura ipintzea, biztanleen % 60 Interneteko erabiltzaileak izan daitezen eta herritar guztiek postontzi elektronikoa izan dezaten (doakoa, segurua eta mugagabea): Metaposta programa.



- IKTen erabilera bultzatzea eta, era berean, pertsona guztiei prestakuntza jasotzeko aukera ematea eta herritarren beharrei benetan erantzungo dieten zerbitzuak sortzea sustatzea.
- Web orri pertsonalak sortzea sustatzea.
- Administrazioaren oinarritzko zerbitzuen % 100 Internet bidez eskaintzea.
- Behar bereziak dituzten pertsonen lehenago beraien ezintasunen, hezkuntza- ezberdintasunen eta abarren ondorioz jaso ezin zituzten zerbitzuak jaso ahal izatea.
Helburua: Euskadiko herritarren % 100i punta-puntako teknologiez baliatzeko aukera ematea, gainerakoen baldintza berberetan eta eremu geografiko guztietan.
- Zeharkako berrikuntza esparru berriak bultzatzea, hala nola, gizarte berrikuntza, gizarte zientzien esparruan aplikatutako ikerketa ildoen bitartez.
 - *Helburua:* Gizarte sareak sustatzea baita herritarrek parte hartzeko guneen garapena ere.
- Biztanleen artean kultura aldaketari bide emango dioten politikak sustatzea, informazioaren teknologia berriak gehiago erabil daitezen, eta, era berean, teknologia horien zabalkundea eta alfabetatze digitala bultzatzea, batik bat behartsuenen artean eta horiek erabiltzeko arazo handienak dituztenen artean.
- Hirietako eta landa inguruneetako herritarren artean IKTen erabilerari dagokionez dagoen jauzi digitala txikitzea, zuntz optikoa hedatuz.

II.- Enpresen esparrua

- Berrikuntza zientifiko eta teknologikoaren esparruan egin den 7.000 milioi euroko inbertsioa dinamizatzea; halaber, oraingo Zientzia eta Teknologia Plana amaitzea eta 2011-2014 epealdira arte luzatzea.
- Berrikuntzarako Euskal Hiruhortza indartzea: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Kontseiluak, Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziak eta Ikerbasque Fundazioak osatutako taldea, nazioarte mailako ospea duten ikertzaileak erakartzeko.
- Euskal erakundeetako kudeaketan kalitatea eta bikaintasuna sustatzea:
Helburua: erabateko kalitatearen EFQM sarietan Euskadik Europan duen nagusitasunari eustea.
 Hori lortzeko, Ebaluazio Kluba indartzeari ekingo zaio, 2.000 profesional baino gehiago izan daitezen eta % 10 nazioarte mailakoak izan daitezen.
- Enpresaren Gizarte Erantzukizuna sustatzeko Euskal Agentzia garatzea, egun dauden ekimen guztiak bilduko dituen eta arlo horretan Euskadi Europako erreferente bihurtuko duen elkarte indartuz.
- Euskal enpresek produktu berriak gauzatzeko duten gaitasuna indartzea, merkatu global batean gainerakoengandik bereizi ahal izateko.
- Berrikuntzaren Sektoreko Behatoki Estrategikoak bultzatzea mundu mailan eta haren emaitzak euskal enpresen eskura ipintzea, produktu eta zerbitzu berriak ikertzeko gidari gisa.
- Enpresen eta beste eragile batzuen arteko lankidetzak sustatzea, baterako jarduera berritzaileak gauzatu ditzaten, Sektoreko Berrikuntza Agenda egitearen bitartez.
- ETEentzako kontsulta teknologikoko zerbitzua sortzea. Hots, "e-Kontsulta" zerbitzua: ETEei orientabidea emateko ataria sortzea, haien enpresaren informazioaren teknologien kudeaketaren inguruko zalantzak konpondu ahal izateko, negozio-alor guztiak aintzat hartuta. Zerbitzu berri hori web bidez, emailaz eta call-center-en bitartez eskaintzen da.
Helburua: 10 langile baino gutxiagoko enpresen % 70ek Internet erabiltzea negozioan eta % 30ek web gunea izatea.

- Erosketa publikoen programa sustatzea, euskal ekonomiaren eragile diren enpresa nagusiei eta haien hornitzaileei zuzenduta dauden produktu berritzaileak garatzeko.
 - Hornitzaileen garapen programa egitea, ekonomiaren eragile diren enpresek (erosteko ahalmena dutenek) beraien hornitzaileen berrikuntzarako estrategiei babes eman diezaieten.
 - Patenteen Euskal Bulegoa garatzea, enpresa, ikerketa zentroeiei eta ikertzaileei laguntza eta aholkularitza emango diena, miloi bat biztanleko 100 patente egon daitezen.
 - Unibertsitatearekin eta enpresa-sektorearekin elkarlanean, hurrengo arloetan 10 ikerketa zentro eta unitate sortzea ahalbidetzea: biozientziak, nanozientziak, energia berriztagarriak, garraiorako elektronika eta osasun zientziak.
- Helburua:* Goi eta erdi teknologikoak manufaktura sektoreetan dagoen enplegua, hain zuzen ere, enplegu guztiaren % 15 izatea lortzea.
- Bikaintasuneko azpiegitura zientifikoak garatzea. Azpiegitura ertainak sendotzea da asmoa, Ikerketa Kooperatiboko Zentroen, plataforma zientifiko-teknologikoen eta Euskadirentzako interesgarri diren arloetan espezializatutako laborategien modura.
 - Eko-berrikuntzako estrategia bultzatzea, berrikuntzarako eta iraunkortasunerako politika publikoak barnean hartuta.
 - Espazio bidezko Neutroi Iturria Euskadin egon dadila bultzatzea, nazioartean zabalduko litzatekeen Europako azpiegitura zientifiko-teknologiko nagusia izango baita.
 - Enpresek eta ikerketa zentroek Europako I+G programetan duten partaidetza % 30 igotzea.
 - Berrikuntzaren euskal sistemako eragileak, esate baterako Enterprise Europe Network (EEN) delakoa, nazioarteko bihurtzen jarraitzea. Aipatutako eragile horrek ETEei laguntza eskaintzen die, besteak beste, beraien gaitasun teknologikoa gara dezaten.
 - Parke zientifiko eta teknologikoak garatzea, egun badauden edo sortzen diren azpiegiturretara zabalduz.
- Bizkaiko Parke Teknologikoa zabaltzea; Leioako Campusera (20 Ha) eta Ezkerraldeko Parke Teknologiko berrira (45 Ha) zabalduko da.
- Gipuzkoako Parke Teknologikoa zabaltzea; Hondarribian parke teknologiko berria egingo da (45 Ha) eta Unibertsitateko Ikerketa Zentroetarako proiektua garatuko da.
- Arabako azpiegitura teknologikoak zabaltzea; horretarako, Miñaoko Parke Teknologikoa (75 Ha) handituko da. Forondan Parke Aeronautiko eta Logistiko berria garatzea (114 Ha).
- Bioteknologia eta elikadurari lotutako ikerketarako azpiegiturak integratzea Arkauten, eta Arasurren Berrikuntza eta Logistika Gunea garatzea (75 Ha).

4. arloa: Nazioarteko bihurtzea: aukera eta exigentzia

Gure hitza bete dugulako...

Esportazioak % 20 gehitzeko konpromisoa hartu genuen...

“eta hiru urtean bakarrik, hau da, 2005-2007 epealdian, Euskadik Espainiako estatutik kanpo egin dituen esportazioak % 32 igo dira; izan ere, 2005. urtean 14.300 miloi eurokoak izan ziren eta 2007. urtean, berriz, 18.800 eurokoak. Horrezaz gain, euskal enpresek merkatu berrietan, hala nola, Txinan, Indian, Ekialdeko Europan eta Latinoamerikan, duten presentzia gero eta arinago zabaltzen doa, euskal erakundeen babesari esker”.

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu:

“Euskal enpresek merkatu berrietan duten presentzia zabaltzea. Kasu honetan konpromisoa esportazioetan 25.000 milioi euroko marka gainditzea da”.

Hauek dira gure Konpromiso eta Ekimenak...

- Euskal industriari merkatu berriak irekitzen laguntzeko programak eta pizgarriak indartzea, hurrengo alderdiotan: esportazioa, merkataritza ezarpena eta produkzio zentroen kokapena.
- Teknologian oinarritutako enpresa gazteak nazioarteko bihur daitezela bultzatzea, bereziki, sektoreetako estrategia teknologikoen baitan sortuko direnak: bioteknologia, nanoteknologia eta energia iturri berriak.
- Euskal produkzioaren sareak garatzeko bidean dauden merkatuetan duen presentzia handiagoa izatea eta merkatuetan gehiago barneratzea ahalbidetzea, eta bereziki lehentasunezko jarduera merkatutzat jo direneta bideratzea ahaleginak; honako hauetaz ari gara: AEB, Txina, India, Txekiar Errepublika, Mexiko, Brasil, Errusia eta Turkia; horrelakotzat jo dira beraiek duten merkatu nahiz inbertsio potentzialagatik.
- Euskal ETEek garatzeko bidean dauden herrialdeetan duten merkataritza egitekoak ugaritzea, merkataritza ganbarekin elkarlanean.
- 1.500 milioi euroko esportazioak lortzea BRICetan (Brasil, India, Errusia, Txina); munduko ekonomiarik dinamikoak dituzten herrialdeak dira horiek, eta gure enpresek 2007. urtean 850 miloi euroko ondasunak esportatu zituzten aipatutako herrialdeetara.
- Gure enpresentzat duten negozio potentzial handiarengatik hautatu izan diren arlo eta merkatuekin harreman ekonomiko-instituzionalak indartzeko estrategia abian jartzea.
- Gure industriaren marka irudia sortzea eta, hortaz, balio erantsi handiari, kalitateari, seriotasunari eta konpromisoari loturiko herrialde irudia sortzea ere bai.
- Euskarri-Basque Business Platform izeneko euskal enpresa plataformei dagokienez beste 5 ezartzea munduko herrialderik dinamikoetan, euskal enpresa sektorearekin elkarlanean.
- Atzerrian baterako biltegi logistikoak eta ETEak merkatu berrietan sartzeko ahalbidetuko duten produkzio partzuergoak martxan jartzea bultzatzea.
- Atzerrian aholkularitza proiektuen euskal funtsa eratzea, sektore horretako euskal enpresek laguntza teknikoko proiektu aldeaniztunetan duten presentzia sustatzeko.
- Legegintzaldian zehar 300 profesional gazte atzerriko merkatuetan trebatu daitezela sustatzea, beken eta euskal enpresei aditu horiek kontratatu zein trebatzeko emango zaizkien pizgarrien bidez.

- Garatzeko bidean dauden merkatuetan errotuta dauden ospe handiko negozio eskolekin lankidetzatza-hitzarmenak eta aliantzak sinatzea, gure enpresetako zuzendariak herrialde horietako errealitate sozio-ekonomikoa ezagutu ahal izan dezaten.
- 300 eragileko sare integrala garatzea, euskal enpresak nazioarteko bihurtu daitezen eta atzerrian merkatu eta negozio berriak ireki daitezen laguntzeko, SPRIko bulegoen, erakundeen ordezkartzen, merkataritzako eragileen eta euskal zentroen lana koordinatuta.
- Euskal enpresei ezagutzak, finantziazioa eta zerga-tresnak eskaintzea, atzerrian ezar daitezen eta teknologia arloko esportazioak susta daitezen.

5. arloa: Azpiegiturak garapenaren zerbitzura

Gure hitza bete dugulako...

XXI. mendeko azpiegiturak eraikitze konpromisoa hartu genuen...

“eta azken urteotan, Euskadi aurrerapenak ikusten hasi da arlo jakinetan; hona hemen: euskal Yren trenbide sarea, Donostialdeko trena metro bihurtzeko egitasmoa, Bilboko Metroa, Vitoria-Gasteizko Tranbia, Eibar-Gasteiz autobidea, edo Pasaiaiko portua handitzeko proiektua”.

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

**... Ekonomia Indarberritzeko Planaren betearazpena aurreratzeari;
Planak 12.800 milioi euroko inbertsio publikoa du. Halaber,
trenbidearen euskal Ya beteko dela bermatzea.**

Hauek dira gure Konpromisoa eta Ekimenak...

I.- Ekonomia Indarberritzeko Aparteko Plana bultzatzea:

- EAJ-PNVk Ekonomia Indarberritzeko Erakundearen arteko Planaren betearazpena aurreratzeko konpromisoa hartu du. Planak 12.800 milioi euro ditu, inbertsio publikoak egiteko eta krisi ekonomikoari aurre egiteko.
- Komunikabideen eta telekomunikabideen azpiegiturarako proiektu estrategikoak bultzatuko dira; guztira, 6.000 milioi euro.
- Ekonomia, teknologia eta energia arloetako azpiegiturak; guztira, 700 milioi euro.
- Osasun, hezkuntza eta gizarte arloetako azpiegiturak; guztira, 3.700 milioi euro.
- Kultura eta hezkuntza arloetako azpiegiturak; guztira, 450 milioi euro.
- Azpiegitura hidraulikoak eta ingurumen arlokoak: 1.500 milioi euro.
- Ekonomiaren dinamizazioarako aparteko programak: 300 milioi euro.

II.- Euskal “Y”ren trenbide sarea egiteko lanetan aurrera egitea eta ingurumenean eta gizartean integratzea dadin laguntzea:

Helburua hori dela, hurrengo ekimenak gauzatuko dira:

- Azpiegiturak uki dezakeen pertsona ororekin bana-banako elkarriketak egitea eta euskal “Y” egiterakoan ingurumenean eta gizartean integratzeari begirunerik handiena izango zaiola bermatzea.



- Udalek behin betiko proiektuak idazterakoan izaten duten partaidetza areagotzea, paisaian egingo duen integrazio modua hobetzeko eta aipatutakoa eraikitzeke prozesuan ere izaten diren kalteak txikitzeke asmoz.
- Abiadura handiko azpiegituren pertsonena zein salgaiena eraginkortasun hobea ahalbidetzea, eta, era berean, bestelako azpiegitura logistikoekin eta garraio-azpiegiturekin elkarrekiko lotura ahalbidetzea.

III.- Barnealdeko trenbide sistemaren irisgarritasuna hobetzea:

- Metroa.
Metroaren ibilbidea luzatzen jarraitzea, eta, era berean, 1. lineako zenbait tarte hobetzea (trenbidea lurperatzeko lanak Maidaganen eta Urdulizen), 2. linea Kabiezaseraino heltzeko lanak bukatzea, 3. linea eraikitzen hastea (Otxarkoaga, Txurdinaga, Zurbaranbarri eta Uribarri) eta 4. eta 5. lineak eraikitzeke azterlanak eta proiektuak burutzea.
- Tranbia sarea.
Bilbon tranbia zerbitzua luzatzeko lanetan aurrera egitea (Basurtu-Errekalde, eta tranbiaren eraztuna ixtea), Leioako eta Debagoieneko tranbia eraikitzea eta Donostiako eta Txingudiko tranbia proiektuak garatzea. Gasteizko tranbia zabaltzea, auzo berriak (Adurza, San Kristobal, Salburua, Zabalgana) eta Unibertsitate Campusa erdigunearekin lotuz.
- Euskotren XXI Plan Estrategikoa garatzea.
 - Egun dauden pasabideak kentzen jarraitzea eta trenbidea bikoizteari ekitea eta, era berean, barne mugikortasunari laguntzea eta aldiriko trenen maiztasunak ugaritzea.
 - Donostialdeko sarea bikoiztea, hobetzea eta metro bihurtzea: geltoki berriak Fanderian (Erreterria), Altza-Pasaian eta Intxaurren.
 - Beste hamar geltoki eraberritzea eta horietan irisgarritasuna hobetzea.
 - Durangaldean lurperatze lanak bukatzea eta Ermua eta Elgoibar arteko ardatz nagusia tranbia bihurtzea.
- Trenbide Sektoreari buruzko Legea eta Kableari buruzko Legea onestea.

IV.- Garraio eta logistika zentzuen sarea garatzea:

- Garraioaren Sare Intermodalaren eta Logistikoaren Lurraldearen Sektoreko Plana onestea. Euskal Autonomia Erkidegoko erabilera logistikoko lurzoruak definitzen ditu, hain zuzen ere.
- Salgai arriskutsuen joan-etorriak kontrolatzeko sistema ezartzea gure errepideetan.
- Laguntza Programa bultzatzea, garraio konbinatua eta intermodala sustatzeko.
- Zentro logistikoak eta horien irisgarritasun intermodala indartzea (errepideak, portuak, trenak eta aireportuak).
- Enpresen proiektu estrategikoak bultzatzea, Euskadin egindako eragiketa logistikoei balio erantsi handiagoa emateko.

V.- Euskal portuak eta aireportuak bultzatzea:

- "Paisaiako Portuko Plan Estrategikoa. 2009-2020" delakoan azaldutako helburuak eta programak gauzatzea, Paisaiako badia osorik leheneratzeko asmoz.
- Ondarroako Portuko Plan Berezia onestea, portua handitzeko eta lonja egiteko lanak aurrera eramateko.
- Mutrikuko portu berria supraegituraz hornitzea, portuaren arrantza erabilera eta nautika eta kirol erabilerak sustatzeko.

- Kirol kai berria eraikitzea Debako ezker aldean eta ibilgailuak Bermeoko portura sartzeko bide berria egitea.
- Bilboko, Pasaia eta Bermeoko portuetako jarduera sustatzea, baita salgaiak atera eta sartzeko trenbide lotura sustatzea ere.
- Portuetako Lurraldearen Sektoreko Plan berria idazten amaitzea, eta halakorik ez duten portuetako Plan Bereziaren antolamendua eta portu bakoitzeko Erabilera Planak garatzea.
- Aireportuen kudeaketari dagokionez, EAJ-PNVk aireportu kudeaketarako eredu moderno era eraginkorra, aireportu bakoitzetik hurbilen dagoen errealitate sozio-ekonomikoarekin bat datorrena, exijitzearen alde egin du, betiere, Gernikako Estatutuan aitortuta dauden eskumenak aintzat hartuta. Edonola ere, ez gara geldi egongo eta Euskadiko hiru aireportuen –Foronda, Loiu eta Hondarribia– sustapena bultzatuko dugu, xede horretarako eratu diren sozietate publikoen bitartez (VIA, Bilbao Air eta Ortzibia). Horrez gain, Forondako Aireportua sustatuko dugu, Estatuko iparraldeko salgaien garraiorako aireportu nagusia eta gune logistikoa izan dadin.

VI.- Salgaien garraio iraunkorra bultzatzea:

- Pasaia Portuko Agintaritzarekin elkarlanean aritzea, Pasaia Portua lehengoratzeko programak ezartzeko, era berean, trafiko garbiei lehentasuna ematea eta “Herrera hegoaldea” gunean logistika- eta portu-eremua eratzea.
- Euskal Trenbide Sarea egituratzea, salgaien garraio hobetzeko (zabalera metrikoa, iberiar zabalera eta europar zabalera).
- Urolako linea irekitzeko egitasmoa bukatzea, Lasao (Azpeitia) eta Pasaia Portuaren arteko salgaien garraioa ahalbidetuko duena.

6. arloa: Energia iraunkortasuna eta autosufizientzia

Gure hitza bete dugulako...

Instituzioen artean ingurumen estrategian lehenak izateko konpromisoa hartu genuen...

“eta Euskadik, dagoeneko, berdean pentsatu eta jarduten du. Ingurumeneko adierazleei buruzko azken ebaluazio txostenak lurzoru kutsatu, energia kontsumo, lurraldeko oreka eta klima aldaketarekiko egokitzapenaren prebentzioan eta berreskuraketan joera positiboa erakusten du. Horregatik ez da garrantzitsuena, legegintzaldi honetan Gas Naturala, lehenengoz, Euskadiko lehenengo energia iturria izan dadila lortu dugu, petrolioaren aurretik”.

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... Ingurumenaren arloko politika publikoetan Europako erreferente bihurtzea, energia berriztagarrien bidez euskal etxeetan kontsumitzen den energia elektrikoaren % 100 sortzeko plana garatuz.

Honakoak dira gure Konpromiso eta Ekimenak...

I.- Energia estrategia iraunkorrak garatzeko ekimenak, Kiotoko konpromisoak bete ahal izateko.

- Partaidetza prozesuen eta tokiko erakundeen lankidetzaren bidez, udal jabetzakoak diren parke eolikoak sustatzea, potentzia instalatua 650 MW-koa izan arte. Ekimen honek 2013. urtean etxeetako kontsumo elektrikoaren % 50eko ekoizpena emango luke.
- Energia berriztagarrien sektorean baliatutako lorketa, Garapena eta Berrikuntzaren (I+G+B) egungo inbertsioak % 100ean handitzea; horretarako, euskal ekonomian ingurumen sektorearen pisua BPGd-ren % 3 gehitu nahi da eta sektore honetan lan egiten duen langile kopurua -20.000 pertsona- gehitu nahi da, hain zuzen ere, 4.000 lanpostu gehiago sortu nahi dira.
- Sorkuntza elektrikoaren beste 2 instalazio jarri nahi dira abian biomasaren bidez (HHSak, nekazaritza eta basoko hondakinak).
- Sorkuntza elektrikoaren 2 instalazio abian jartzea uhinen bidez; horrela, 25 MW-ko potentzia instalatua lortu nahi da.
- Eraikiko diren eraikin guztiek energia elektrikoa sortzeko eguzki plakak izateko araugintza berria aplikatzea. Neurri horrek gainerako teknologia berriztagarri elektrikoaren sorkuntza mailak igoko lituzke (hidraulika handia, hidraulika txikia), eta 2013. urtean urteko 500 MWh-ak gaindituko lituzke.
- Eguzki baratzeak instalatzeko kreditu linea berezia irekitzea.
- Etxebizitzak klimatizatzeko programa berria sustatzea (A motako isolamendu, ekipamendu eta etxetresna elektriko, informazio eta sentsibilizazioaren hobekuntzak). Programa honen helburua etxebizitzetako kontsumo elektrikoa orekatzen eta jaisten hastea izango da eta 2013. urtean 3.000 GWh ez gainditzea.
- Energia eraginkortasunaren neurri berriak eta proiektuak aplikatzea helburu duten enpresentzako laguntza programetan inbertsioa % 25ean gehitzea.

II.- Ingurumen arloko politika publikoetan Europar Batasunean lehenak izateko ekimenak.

- Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian (2002-2020) aurreikusitako konpromisoak betetzea; lurzoru, ur, aire, biodibertsitate, natura baliabideen babes eta biodibertsitatearen sustapenaren arloak landuz.
- III. Ingurumen Esparru Programa (2011-2015) egitea; estrategiaren arlo bakoitzean egin beharreko egintzak zehaztuz.
- Euskadin munduko ingeniari eta espezialista eolikoaren lehen bikaintasun zentroa egotea.
- Ingurumen arloko Ikuskaritza eta Kontrolerako Planean jasotako zigorak % 10ean gehitzea, ingurumenari buruzko legeria betetzeko eta ingurumena hobetzeko.
- Euskal Administrazio Publikoen Langileentzat Ingurumen Prestakuntzako Plana sendotzea, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin (HAEE) eta Foru Aldundi eta udalerriekin lankidetzan.
- UDALSAREA-Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriz guztietara zabaltzea.
- Garapen Iraunkorrerako Eskualde Gobernuen Sarean gure presentziak garrantzi handiagoa hartzea.
- Eskolako Agenda 21 Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietara zabaltzea.
- Ekonomia eta finantza araudi berria sustatzea, industria arloko inbertsioak laguntzeko, bai ekipamenduari, bai ekologikoagoa izango den teknologiarik dagokienez.

- Ingurumen kudeaketako ziurtagirien arloan EBan egun gauden bigarren postuan egon beharrean, lehenak izatea.
- Klima aldaketaren aurkako tokiko eta eskualdeko planak sustatzea.
- Ingurumen eragineko proiektuan informazioa eta hiritarren partaidetza sustatzea.

III.- Gure airearen kalitatea hobetzeko ekimenak.

- Airearen kalitatea hobetzeko jarduera planak garatu eta ezartzea 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerri guztietan, arnasten dugun airearen % 95 kalitate oneko edo neurrizko aire gisa kalifikatzeko.
- 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerri guztietan Eraztun Berdeak sortzea. Eraztun Berdeak ingurueta natura hiri ingurunean integratu behar du biodibertsitateari lagunduz, berdeguneak gehituko ditu, eta herri sareari kalitate handiagoa eman behar dio.
- Bertoko basoko azalera handitzeko laguntzak % 10ean gehitzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Airearen Kalitatea Zaintzeko eta Kontrolatzeko Sarea hobetzea eta zabaltzea, kontrol estazio berriak instalatuz.
- 5.000 biztanle baino gehiago dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guztietan atmosferari buruzko informazio panelak instalatzea.
- Zonakatze akustikoak, 20.000 biztanletik gorako udalerrietan Zarata Mapak eta Ekintza Planak egitea, Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatzen dituen zarata maila baino altuagokoak jasaten dituzten udalerrietan % 10ean gutxitzeko.

IV.- Uraren kalitatea hobetzeko ekimenak.

- Egungo Saneamenduko Planen saneamendu eta arazketako azpiegiturak amaitzea, bai eta kolektore eta ur arazketa sistemen eta uren egoera ekologiko egokia lortzeko erabileren berrikusketa eta eguneratze sistematikaren gauzatze mailaren jarraipena ere. Horrela, industria eta ekonomia jardueren garapena eta herritarren bizi kalitate egokia bateragarriak izan daitezela bermatu nahi da.
- Jabari hidrikoaren babes neurri berriak ezartzea, bai eta zona heze, ibilgu eta ibaiertzeta ingurumena lehengoratzeko ekintzak egitea ere.
- Uren eroabideetan ihesak detektatzeko sistema eta hoditeria akastunak konpontzeko programa ebaluatu eta hobetzea, alferrikako galerarik ez izateko.
- Lurzoruan, ibaietan eta itsasertzean substantzia arriskutsuen isuriak botatzeagatik ezarritako zigorrak % 25ean gehitzea.
- Espainiako Gobernuari Itsasertzen Legea itsasertzeko kudeaketaren benetako beharrianetara egokitzeko eskatzea; besteak beste, itsas kutsaduraren prebentzio eraginkorra bermatzeko.

V.- Lurzoruaren kalitatea hobetzeko ekimenak.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Poluituen Plana (2007-2012) burutzea eta lurzoru poluituen beste 442 hektarea berreskuratzea.
- Udalerrri eta mankomunitateei lurzoru poluituak berreskuratze laguntza emateko programan inbertsioa % 10ean handitzea.
- Industria, energia, abeltzaintza eta nekazaritza jardueren eremuan lurzoruaren poluzioaren kontrol integratua ebaluatzea.
- Beste ekonomia jarduera batzuetarako lurzoruak berriro erabiltzea; horrela, lurzoruaren beharrezkoa ez den erabilera osagarria saihestu nahi da.



VI.- Hiri eta industria hondakinak gutxitu, berriro erabili eta birziklatzeko ekimenak.

- Euskadiko Hiri Hondakinen Plana egitea, per capita hiri hondakinen sorrera egonkortuz eta zabartegira doazen hiri hondakinak murriztuz.
- Industriadik eta merkataritzatik sortutako Arriskutsuak ez diren Hondakinen Plan eta Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Plan berriak lantzea.
- Eraispén hondakinen % 100 berriro erabili eta birziklatzeko dela bermatzea.
- Hondakinak ekoizteko eta kudeatzeko jardueretan aurreikusitako sustapenak % 10ean gehitzea, bai eta horien kudeaketaren sistema integratuen jardueretan aurreikusitakoak ere.
- Enpresetan sustapén bereziak eta kontrolerako neurri berriak sartzea, arriskutsuak diren hondakinen birziklapén tasa handitzeko (% 65 lortzeko).
- Enpresetan sustapén neurriak satzea, eraikuntzako hondakinen % 70, arriskutsuak ez diren hondakinen % 75 eta sortutako hiri hondakinen % 35 birziklatzeko, bai eta aurretik amaierako biltegira bota aurretik tratamendurik jaso ez duten hiri hondakinen isuria zero izateko.
- Tokiko erakundeei zuzeneko laguntza berrien bidez, linea marroiko hondakinen kudeaketa sustatzea, tresna elektriko eta elektronikoek osatua.
- Hondakinen linea zuriko kudeaketako sistema integratua finantzatzen jarraitzea, etxetresna elektrikoek –batik bat, hozkailuek- osatua.
- Egungo Arriskutsuak diren Hondakinen Kudeaketa Plana burutu eta eguneratzea.
- Erabiltzen ez diren ibilgailuen deskontaminaziorako abiarazitako egintzekin aurrera egitea.

VII.- Zona natural eta babestuak gehitzeko ekimenak.

- Natura 2000 Sarean barne hartutako habitat eta espezieak kudeatzeko, babesteko eta leheneratzeko planak garatzea.
- Galzorio espezieetat jotako guztiak kudeatzeko planak ezartzea.
- Euskadiko Korridore Ekologikoen Sarea sortzea.
- Euskadiko Biodibertsitatearen Behatoki Sarea osatzea.
- Biodibertsitateari buruzko Ingurumen arloko Prestakuntza, Hezkuntza eta Sentsibilizazio Plan Estrategikoa eguneratzea.
- Ingurumenean eragin handia duten espazio degradatuak (harrobiak, hondakindegia eta meatzeak) leheneratzeko ekintzak bikoiztea.

VIII.- Mugikortasun iraunkorra eta lurralde antolamendua sustatzeko ekimenak.

- Aldiriko trenbideen sarearengaineko eskumena eskatzea, euskal biztanleen beharrianen arabera planifikatu eta inbertitu ahal izateko, garraio publiko eta iraunkor gisa.
- Kalitatezko trenbideko garraioa ardatz duen mugikortasun sistema ezartzea. Sistema hori inguruneetako beharrianetara egokituta egongo da eta errepideko garraioaren zerbitzu on, fidagarri eta eraginkorra eskainiko du.
- Maiztasuna bikoizteko aldiriko zerbitzuak kudeatzea, tren moderno eta egokituen bidez.
- Bidegorri eta berdeguneen beste 200 kilometro gehiago egitea, egungo sarea konektatzeko, Euskadi iparretik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera igaro ahal izateko, bizikletentzako erreien bidez.

- Portu, aireportu eta bide eta trenbide sareekin ongi lotutako arlo logistikoak ezartzea, Euskadin, iraganbideko lurralde izateagatik, sortzen diren aukerak aprobetxatzeko.
- Egungo sektorearen aldean –atomizatuégia dago- errepideko garraioaren sektorean enpresa garrantzitsuak sortzeko laguntza ekonomikorako eta prestakuntza laguntzarako programa ezartzea.
- Kultura ondarea, Nekazaritza eta Basozaintza, Portuak, Harrobiak, Jarduera Ekonomikoak, Turismoa eta Itsasertzeko Antolamendua Antolatzeke Lurraldearen Arloko Planak eguneratzea; horretarako, irizpide bateratuak ezarriko dira eta antzeko jardueri buruzko Planak sortzen eta bateratzen saiatuko da, ulermena errazteko eta bikoiztasunak edota lehia arazoak saihesteko.
- Ezarri gabe dauden Lurralde Plan Partzialak ezartzea.
- Zona Hezeetako Lurraldearen Arloko Plana berrikustea eta eguneratzea.
- Urdaibaiko biosfera erreserbaren Jarduera Sozioekonomikoen Harmonizaziorako eta Garapenerako Egitaraua (PADAS) ebaluatu eta eguneratzea, arloko plan egokien bidez.
- Euskal Autonomia Erkidegoko habitat, landare eta erabileren mapa eguneratzea.
- Lurralde Antolamenduko Jarraibideak eguneratzea, modu argian jaso daitezkeen lortu nahi diren lurralde garapenerako helburu nagusiak: pertsonentzako espazioak berreskuratzea (herritarrak ardatz dituen hirigintza), lurraldeko oreka, erabilera mistoko hiri arloak, kalitatezko bide eta trenbideko sareen bidez kanpokoekin lotura ona duen lurraldea, ingurunera erabat ongi egokitutako jarduera ekonomikoko eremuak, eremu degradatuak eta deskontaminatuak berreskuratzea –industria edota azpiegituren erabileretarako, espazio berriak erabili gabe-, eremuetan dentsitate kontzeptua berreskuratzea...

7. arloa: Euskadiko lehen sektorearen garapena

Gure hitza bete dugulako...

Lehen sektorea eta herri garapena sustatzeko konpromisoa hartu genuen...

"Europar Batasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Planaren onespeneraren bidez, egiaztatu du Eusko Jaurlaritza betetzen ari dela Euskadiko lehen sektorea modernizatzeko eta lehiakorrago izateko konpromisoa. Oraintsu onetsi den "Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Legeak nekazaritzako sektorearentzat errenta duina eta kontsumorako bidezko prezioak sustatzen ditu, bai eta nekazaritzan emakumeen eta gazteen artean eragingarritasuna ere. Arrantza dela eta, Eusko Jaurlaritzak bete egin du jardueraren arrisku ekonomikoa gutxitzeko eta gure arrantzaleen bizi kalitate ona ahalbidetzeko finantza tresnak garatzeko hartutako konpromisoa."

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

...Euskadiko lehen sektorearen ekoizteko balioa % 25 handitzea.



Hauek dira gure Konpromiso eta Ekimenak...

I.- Euskadiko lehen sektorea

- "Kalitatea" markan beste 5 produktu sartzea.
- "Euskal Herriko Elikagaiak" kalitate marka sortzea eta kalitate markei 1.000 ustiapen gehitzea.
- Lehen sektorerako sarrerak gehitzea, Kalitatea Fundazioak babestutako produktuetan, % 50ean.
- Kalitate ekoizpenetan 500 M euroko fakturazioa gainditzea lortzea.
- Laborantza berrietako azalera % 100ean gehitzea.
- Arrantza ekoizpenaren % 40 kalitate marketan sartzea.
- 800 hektarea nekazaritzako lurzoruan kudeatzea.
- Arrantza ontzidiaren ahalmena egokitu eta arautzea, egungo ahalmenaren % 15ean.
- Arrantza baliabide ustiagarrien datuak biltzeko 10 lagin sare eguneratzea eta ezartzea.
- Arraina lehorreratu, bildu eta merkaturatzeko 5 portu azpiegitura egokitzea.
- Akuikulturako instalazioak % 20an gehitzea.

II.- Elikagaien industriak eta merkaturatzea

- Elikagaien klusterra sortzea eta sustatzea.
- Elikaduraren sustapeneko sozietatea osatzea.
- Arraina merkaturatzeko plataforma sortzea.
- 50 elikagai industria berri sortzea.
- Prozesu produktiboak hobetzeko 800 M euro inbertitzea.
- Kanpoko merkataritzarako ekoizpena % 20an gehitzea.
- Sektore produktibo eta transformatzaileetako 5 merkaturatze egitura sortzea.
- Arrantzako transformaziorako instalazioak, manipulazioa hobetzeko teknologien hobekuntza, arrainaren mantentzea eta aurkezpena % 30ean sustatzea.

III.- Lehiakortasun iraunkorra

- Tantaketa bidez ureztatutako lurzorua % 50ean gehitzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ehiza Legea onestea, aurreko legegintzaldian egindako proiektuari jarraiki.
- Ingurumeneko kontratuak egitea, 75.000 hektareako azalerarentzat.
- Lur ureztatuaren azaleraren % 100 baliabide hidrikoen kudeaketa iraunkorraren araupean egin dadila lortzea.
- Euskadi transgenikorik gabeko gune mantendu eta garatzea.
- FAOren "arrantza iraunkorraren" ziurtagiria lortzea, gure ontzidiko arrantzarentzat.
- Elikagai industrien hondakinen balorazioa % 40an handitzea.
- Baso masaren % 60 kudeaketa iraunkorraren ereduarekin ziurtatzea.
- Ontzietan 15 instalazio berri egitea, arrantza jardueren emaitza ekonomikoa dibertsifikatu eta hobetzeko.
- Euskal arrantzaren merkataritza bereizketaren bidez, tokiko, estatuko eta nazioarteko merkatuetan sustapenerako 15 proiektu diseinatzea; FAOren arrantza ereduaren arabera gure arrantzaren ziurtagiriaren bidezkoa.

IV.- Landa ingurunea eta itsasertza

- Landa Garapeneko Legea aldatu eta egokitzea.
- Landa gune eta itsasertzetan emakumeen enplegurako 20 proiektu sortzea.
- Landa Garapen Iraunkorraren Planaren aurrekontua egokitzea, liburu berdera egokitzeko.
- Landa gunean errenta mailak % 10ean igotzea.
- Nekazaritza eta arrantza guneetan sasoika lanean ari diren familien gizarteratzea sustatzea.
- Natura, nekazaritza eta arrantzako baliabideei lotutako turismo berdeari buruzko 10 proiektu abian jartzea.
- Arrantzaleen eta lehen sektoreko beste zenbait talderen erretiroaren baldintzen % 30 hobetzea sustatzea.

V.- EBko nekazaritza politikara egokitzea

- Ekoizpenen errenten bermaketarako mutualitateen sistema sortzea.
- Herrialdeetako sare europarretan parte hartzea, hirugarren lurralde batzuekin bost akordio sustatuz.
- Nekazaritza arloko ikasleen arteko trukerako hamar programa abiaraztea.
- LGIP aldatzea, kalitatezko ekoizpenak sustatzeari dagokionez.

VI.- Autoestimua finkatzea

- Artisautza produktuak saltzeko tokiko hogeit hamar merkatu sustatzea.
- Nekazaritza eta arrantza alorretako ikasle kopurua mantentzea.
- Prestakuntza jarraia dedikazio orduetan % 10 igotzea.
- Erauzketa arrantzaren sektorean prebentziozko ohiturari buruzko 20 proiektu garatzea.
- Nekazaritza, abeltzaintza edo arrantza ustiatzeko titular gisa 500 gazte sartzea.

VII.- Berrikuntza eta teknologia berriak

- Ustiapenen % 100ean aplikazio informatikoak sartzea.
- Bioteknologiaren garapena sustatzea.
- Itsas ingurumenean eragina gutxituko duten teknologiak sustatzea.
- Neiker eta AZTI zentroak bateratzea eta, hala badagokio, bat egitea, masa kritikoaren aprobetxamendu hobea lortzeko.
- Oinarri teknologikoko 15 enpresa sortzea.

8. arloa: Turismo eta Merkataritza Sektorea indartzea

Gure hitza bete dugulako...

Tokiko merkataritzari laguntzeko eta turismo sektorea garatzeko konpromisoa hartu genuen...

"eta legegintzaldi honetan Euskadira eginiko turismo bisiten errekor historikoa gainditu dugu. Kalitateko turismoa bilatzen duten bisitariak dira, eta hazteko aukera handiak ditu. Euskadi destino erakargarria da eta turismo sektoreak euskal BPGren % 5,3tik gora sortzen du.

Horrez gain, saltoki txikiei laguntzen ari gara, sektorea modernizatu eta berritzeko pizgarrien programen bidez, edo programa integralak eskainiz. Programa horietako bat Merkagune da eta, horri esker, 72 udalerritako hiriguneak aire zabaleko merkataritza zentro bihurtuko dira, apaindutako kaleak, animazio jarduerak, altzari homogeenak eta seinale bateratuak izango baitituzte".

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... Euskadi bisitatzen duten turisten kopurua % 20 handitzea eta 10.000 merkataritza enpresa modernizatzea.

Hauek dira gure Konpromisoa eta Ekimenak...

I. Turismoa:

- Estatuko eta nazioarteko turisten kopurua handitzea, eta 2013rako % 20ko hazkundea finkatzea 2008ko egoerarekin alderatuta.
- 2013rako, honakoa lortzea: establezimendu publikoetan ostatu hartzen duten bisitariak eguneko batez besteko gastu-gaitasun handiagoa duten atzerritarrek izatea.
- Turismoak Euskadin sortzen duen gastua handitzea, 2013an 1.500 milioi eurora iritsiz.
- Euskadik duen produktu anitzeko izaera indartzea, hala nola, gure turismo baliabideak, batez besteko egonaldia eta okupazio maila hobetzea ahalbidetuko diguten produktu berrietan oinarrituta, esaterako: Touring-a (gure herrialdean zehar eginiko ibilbidea), hondartza, natura arloko nitxo berriak (ornitologia eta surfa, adibidez). Horiek osatu egingo dute gure segmentu garatueneren eskaintza: Kultura Turismoa, City Break-ak, Gastronomia, Ardoak eta Meeting-ak (kongresuak, batzarrak eta pizgarriak).
- Euskadi ezinduentzako destino bereziki atsegina egitea, Euskadiko Turismo Irisgarritasunaren Eredua ezarriz, helburu honekin: establezimenduei eta destinoei euren jarduera dibertsifikatzeko aukera ematea eta urtaroei hainbesteko mendekotasunik ez izatea, kolektibo horren beharretara egokituz.
- Turismo enpresa berritzaileen sorrera bultzatzea eta sektore hori zerbitzu aurreratuek hornitzen duten hornitzaileei laguntzea. E-marketing eta e-commerce baliabideak bultzatzea destinoetan eta turismo enpresetan.

II. Merkataritza:

- Hiriko merkataritza egituraren iraunkortasuna finkatzea eta merkataritzaren BPG % 11 inguruan mantentzea. Sektorean lan egiten duten pertsonen bolumena % 10 handitzea, establezimendu bakoitzeko 3,5 enplegua eta 1.000 biztanleko 1.500 m²-ko azalerara iritsiz, horrela, enpresa dimentsioa irabaziz.

- Txikizkako merkataritza Europako esparru berrira Egokitzeko Plana abian jartzea. Plan horrek helburu hauek izango ditu:
 - . Modernizazio ekimenak garatzea 10.000 merkataritza enpresatan. Ekimen horiei esker, enpresa produktibitatea hobetu, kalitatea handitu eta kontsumitzaileari zuzendutako prestazio eta zerbitzu berriak bultzatuko dira.
 - . Enpresak egokitzeko prozesuak ezartzea, berrikuntza eta modernizazio teknologikoa bultzatuz, merkataritza enpresaren hainbat funtzio kudeatzearekin lotuta. Gutxienez funtzio horien % 25 hartzea da helburua.
 - . Enpresa lankidetzako tresnak bultzatzea, merkataritza atomizazioaren eta horien egiturak birdimentsionatzearen eraginak arintzeko. Horretarako, lankidetzak hitzarmenak egingo dira merkataritza elkarten federazioekin eta taldeekin.
- Merkataritza garatzeko planak bultzatzea gutxienez 50 udalerri berriren hiri eremuetan, Merkataritza Hobetzeko eta Orientatzeko Planen bidez, arreta berezia jarritz alde degradatuetan, eskualdeetako hiri nagusietan eta hirigune historikoetan. Horretarako, konpromisoa hartu dugu udaletako Merkataritza Mahaiak sortzeko eta, horietan, lan-taldeak sortzeko arlo hauetan: Merkataritza sustapena eta Hiriko marketina, Merkataritzaren modernizazioa eta berrikuntza, eta Merkataritzaren Hiri Garapena.
- Merkagune egitarauaren bidez Gasteizko merkataritza biziberritzeko egitaraua garatzea, hirigune historikoa eta hiriko beste merkataritza gune batzuk biziberritzeko asmoz.
- Sektorearen Profesionalizatzea bultzatzea, laguntza teknikoko Merkalkide programaren bidez, zona edo aldeko ("merkagune") eta sektoreko ("elkargune") lankidetzak esparruekin lotuta. Prestakuntza eta Belaunaldi-ordezkatzea ere bultzatu nahi dira, 500 gazte enpresa-sortzaile berri merkataritzan sartuz.
- Euskadiko Merkataritza Kontseilua eratzea, helburu hauekin: sektorearen interes orokorrak defendatzeko batera lan egitea eta merkataritza txikien artean asoziazionismoa indartzea.
- Commerce-gune Ikerkuntza Kooperatiboko Zentroa sortzea. Zentro hori aliantza zientifiko-teknologikoaren eredu berria izango da, bikaintasuna ikertzeko merkataritza logistikarekin eta banaketarekin lotutako gaietan.

III. Kontsumoa:

- Kontsumitzaileentzako hezkuntza bultzatzea, kontsumo arduratsua eta iraunkorra egiten ohi daitezen, eskolatik hasita (material didaktikoa, zentroko proiektuak, etab.).
- Kontsumitzaileen elkarten egiteko zabaltzea eta horiek emandako zerbitzuak hedatzea (aholkularitza juridiko integrala, hitzezko epaiketetan laguntza ematea...).
- Kontsumoko sistema arbitralera atxikitzeke plana egitea.
- Enpresetan bezeroari arreta emateko eta bezeroa leial bihurtzeko sistemak sartzea bultzatzea, bai eta kontsumo gatazkek ebazteko norberaren mekanismoak ere (bezeroak defendatzeko zerbitzu zentralizatuak).
- Merkaturako jardunbide desegokiak kontrola areagotzea. Horrela, tokiko erakundeek ikuskarpen kanpainen esku hartu behar dute, eta banaketa enpresa handiek ere parte hartu behar dute seguruak ez diren produktuak erretiratzeko orduan.
- Erreklamazioei emandako erantzuna hobetzea eta kalteen konpentsazioan aurrera egitea gizarteko sektore sentikorrenetan.

9. arloa: Administrazio eraginkorragoa

Gure hitza bete dugulako...

Erakunde guztiekin lankidetzatza leialean aritzeko konpromisoa hartu genuen...

“eta euskal erakundeek duten batasuna erakutsi dute, Europan Kontzertu Ekonomikoa babesterakoan, Ekarpunen Lege berria onesterakoan eta Finantzen Euskal Institutua eratzerakoan. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak akordio berri bat lortu du estatuarekin kupoaren legea berritzeko, eta berrikuntzaren eskumena transferitu da.”

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... Herritarrei informazioa eta arreta emateko mekanismo berriak sartzeari kudeaketa publikoan.

Hauek dira gure Konpromisoa eta Ekimenak...

1.- Herri Administrazioa Berritu eta Modernizatzeko Plana abian jartzea, herritarrentzako arreta eta zerbitzua hobetzeko.

- Herritarrei euskal Administrazioaren zerbitzu eta laguntza guztien gaineko informazioa emateko leihatila bakarra sortzea, Zuzenean jendearentzako arreta zerbitzua abian jarritz.
- Herritarrei prestakuntza emateko programa bultzatzea, Internet erabiltzearekin eta zerbitzu publikoak jasotzearekin lotuta, talde espezifikoetara zuzendua.
- Herritarrek parte hartzeko eta gizarte harremanetarako sareak sustatzea, Interneten eta zerbitzu mugikorren bidez.
- “Wifi eremuen” garapena sustatzea udalerri guztietan.
- Herri administrazioa berritu eta modernizatzeko programa berria, izapideetan eginiko errekerimenduak ahalik eta gutxien izan daitezen eta administrazio espedienteak ebazteko denbora ahalik eta laburrena izan dadin.
- Administrazio elektronikoko sistemetan aurrera egitea, arlo hauek hartuz: antolakuntza, araudia, prozesuak eta teknologia.
- Interneteko informazio ereduak hobetzea, euskarriko azpiegitura eta kudeaketa tresnak egokituz, bai eta irisgarritasun eta erabilgarritasun mailak ere.
- Administrazio maila ezberdinekiko lankidetzatza akordioak garatzea datuak trukatzeko, administrazioen arteko elkarlanean eraginkortasuna bultzatze aldera.
- Teknologia berrien erabilera normalizatua bultzatzea administrazioaren zerbitzuen eskaintzan.
- Herri administrazioetan zerbitzuak ematen dituzten pertsonen lanbide profila eta prestakuntza egokitzea.
- E-administrazio zerbitzu mugikorrak bultzatzea.
- Gobernuaren zerbitzuak digitalizatzea, prozesuak, egiturak, araudia eta postuen profilak berriz definituz.
- Edozein gailuren bitartez herritarrek eta enpresek euskal administrazioekin izan behar duten elkarlanean seguruak bermatuko duten tresnak hedatzen jarraitzea.
- Prestakuntza planak eta prozesuak garatzea informazioaren teknologia berrien erabilera eta erabileran.

- Edozein kanalen bitartez zerbitzuak ematea erraztea, Administrazio maila guztiekin etengabeko lankidetzaren eta elkarrikeraren izanaz.
- Efizientzia mailarik altuenak lortzea eta IKTek kanaleko elektronikoen bitartez zerbitzuak emateko eskain ditzaketen abantailak ahalik eta ondoen egokitzea, teknologia mugikorretan arreta berezia jarritz.

II.- Herri Administrazioetik lurralde orekan aurrera egiteko ekimenak bultzatzea.

Lurralde kohesioan sakontzeko eta eskualdeen artean ekonomia, gizarte eta ingurumen arloan dauden desberdintasunak minimizatzeko, ekimen hauek planteatzen ditugu:

- Tokiko eta lurraldeko erakundeekin lankidetzan, eskualde garapenerako behatokia sortzea. Behatoki horrek udal adierazlearen sistema bat ezarriko du, lurraldeen arteko oreka handitzeko proposamenak garatzea errazteko lurralde kudeatzaileei.
- Euskadiko lurralde kohesioaren politikari buruzko liburu berdea egitea. Liburu horrek honetarako estrategiak jasoko ditu:
 - Lurralde lankidetzaren indartzea.
 - Udalerrien parte hartzea sustatzeko mugaz harandikiko proiektuetan.
 - Europaren lankidetzaren bultzatzeko tokian tokiko esparruetan, guztion interesekoak diren gaietan.
 - Lurralde gobernantza hobetzeko proiektuak artikulatzeko, administrazio maila ezberdinen esku hartzea koordinatuz tokiko erakundeetan.
- Esku hartzeko berariazko planak garatzea. Plan horiek "komunitate sentikorrak" artikulatzeko helburua lortzen lagunduko duten faktore kritikoaren gainean eragingo dute. Herritarren beharrei arreta ona ematen dietenak dira komunitate sentikor horiek. Zehazki, berariazko plan horien helburua honako hauek hobetzea izango da: azpiegitura fisikoak, bizi kalitatea, mugikortasuna eta irisgarritasuna, landa garapena eta ingurumena.
- Tokiko asoziazionismoa sustatzea, zerbitzuen prestazio mankomunatua eta itundua egiteko dauden jardunbide egokiak identifikatuz, gizarte kohesioa eta iraunkortasuna hobetzeko helburuarekin, Europar Batasunak Lisboako Estrategian ezarritako zuzentzauekin bat etorriz.

II. 2.- Berdintasuna, gizarte orekaren eragilea: *Pertsona zaindu eta solidarioak*

EAJ-PNVn politika humanista garatzeko konpromisoa daukagu. Politika horretan, pertsona giza duintasunaren funtsezko erreferentea da. Horri dagokionez, gizarte politiken estrategia integrala planteatzen dugu, elkartasun sarea eratzeke gure gizarteko pertsona behartsuenekin. Politika horrek familia hartzen du elkarbizitzarako funtsezko nukleotzat, eta, horrez gain, modu globalean, pertsonen bizi-kalitatean eta gizarteratzeko zailtasun handienak dituzten euskal herritarren oinarritzko beharrei eman beharreko laguntzan eragin zuzena daukaten arlo guztiak hartzen ditu. Helburu horrekin, EAJ-PNVk gizarte politiken sarea aurrez ikusten du eta, sare horretan, pertsonak funtsezko erreferentia dira.

Politika hori funtsezko bederatzi jardura arlotan egituratuta dago: osasuna, familia, etxebizitza, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, adineko pertsonentzako arreta, pertsona behartsuekiko elkartasuna, justizia, etorkinen elkarbizitza eta gizarteratzea, eta, azkenik, segurtasuna elkarbizitzarako berme gisa.

Kalitatezko osasun arreta bermatzea:

Osasun arreta handiagoa eta hobe behar duten pertsonen kopurua izugarri handitu bada ere, Osakidetza erreferentziazko zerbitzu publikoa izaten jarraitzen du gure inguruan. Gehiago nahi dugu. EAJ-PNVk beste ahalegin bat egin nahi du, kalitatearen erreferentia izan gaitezen Europar Batasunean. Hori lortzeko, osasun arloko gastu publikoa handituz joango gara, biztanleko eta urteko 2.000 euro inbertitzera iritsi arte.

Familia, elkartasunaren eta gizarte politiken erreferentia:

Familia euskal gizartearen erakunde ardatza da. Sozializatzeko funtsezko era da, eta, beraz, pertsonen bizitza garatzen den esparru naturala.

Gizartearen errealitateak familia eredu berriak erakusten dizkigu, eta, eredu tradizionalarekin alderatuta desberdinak badira ere, antzeko beharrak izaten jarraitzen dute, arlo hauei dagokienez: etxebizitza izatea, euren adingabeen hezkuntza eta sozializazioa, ahultasun edo mendekotasun egoeran dauden pertsonentzako laguntza, etab.

Ikuspegi horretatik, EAJ-PNVk uste du familiari laguntzeko balio behar duten neurriak bi esparru zehatzetara zuzendu behar direla: lehenik, familia gizartea egituratzen duen erakundetzat hartu behar da, kultura eta elkarbizitzari eusten dioten balioak transmititzen dituen neurrian. Bigarrenik, familia elkartasunerako lehenengo tresnatzat hartu behar da, euren adin, gaixotasun edo ezintasunagatik eguneroko bizitzarako laguntza behar duten pertsonen laguntzeko.

EAJ-PNVren iritziz, herri administrazioek egin behar duten familia politikak bi faktore horiek izan behar ditu kontuan, eta honako hauek bideratuta egon behar du: mota guztietako familiak, familia horiek osatzen dituzten kideen garapen pertsonala, familia proiektua zehazteko askatasuna, eskubide eta erantzukizunen berdintasuna sustatzea, eta gizarte zerbitzuak garatzea. Gizarte zerbitzu horiek, arlo publikotik, familiarentzako laguntza indartu eta osatu behar dute, bereziki kide behartsuenentzako laguntza.

Etxebizitza

Familia eratu nahi duten edo bizitza proiektu independentea egin nahi duten pertsonak daukaten arazorik handiena da etxebizitza baldintza ekonomiko onargarrietan lortzea. Etxebizitza familiaren ongizatearen funtsezko faktorea da. Testuinguru horretan, etxebizitza lortzeko erraztasunak emateak lehentasuna dauka EAJ-PNVren jardun politikoan.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna

Berdintasunaren aldeko borrokak, lege neurriak hartzeaz gain, gizonen eta emakumeen gizarte portaera arautzen duten arauen arloan lan egitea eskatzen du. EAJ-PNVren iritziz, arauak, balioak eta emakumeen eta gizonen arteko botere harreman desberdinak aldatzea lortzeko, zenbait prozesutan sakontzen jarraitu beharra dago:

- Emakumeen eta gizonen parte-hartze paritarioa sustatzea erabaki esparruetan, publiko zein pribatuetan.
- Berdintasuna, eskubidea eta eskakizun etiko eta morala izateaz gain, hazkunde ekonomikoaren, gizarte integrazioaren eta egonkortasun politikoaren funtsezko elementua dela onartzea.
- Zeregin horretan gizarte osoaren aliantza lortzea, gizonena zein emakumeena.

Pertsona behartsuekiko elkartasuna

Gizarte Zerbitzuen Legea garatuz

- Gizarte politiken azken helburuak hau izan behar du: herritarren gizartea eratzea eta, gizarte horretan, pertsona guztiek, euren izaera edozein izanda ere, bizitza normala, beteak eta duina egin ahal izatea.

Gizarte Zerbitzuak ongizate estatua deritzonaren laugarren zutabea dira, Osasungintza, Hezkuntza eta Pentsio Sistemarekin batera, eta hori egia bihurtu da orain dela gutxi Eusko Legebiltzarrean Gizarte Zerbitzuen Legea onetsi eta gero. Horrek esan nahi du erantzukizun publikoa dagoela Gizarte Zerbitzuei dagokienez, beste hiru zutabeetan gertatzen den bezala. Euskal administrazioek bermatu egin behar dute gizarte zerbitzu duinak baldintza berdinetan jasotzeko pertsona guztiek daukaten eskubide subjektiboa. Horretarako, EAJ-PNVtik hiru konpromiso planteatzen ditugu:

- Gizarte Zerbitzuen Legea garatzea, eskubidea den prestazioaren norainokoa arautuz eta herritarren beharrei erantzun dieten zentroak eta zerbitzuak handituz.
- Aipatutako eskubideak eraginkortasunez erabiltzeko behar diren baliabideak sistemaren esku jartzea. Ez luke ezertarako balio izango, edo oso gutxirako, herri administrazioak araudiak egin bai, baina baliabiderik jarriko ez balu.
- Sistemaren esku jarritako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak behar bezala erabiltzen direla zorrotz kontrolatzea. Zero tolerantzia iruzur mota guztien kontra, baina, bereziki, gizarte politiketan eginiko iruzurren kontra.

Mendeko pertsonentzako laguntza indartuz

- Mendekotasun egoerek, arlo pertsonalean, errealizazio pertsonalaren proiektuari berari eragiten diote, eta, arlo kolektiboan, mendekotasuna duten pertsonen eta euren familien bizitza proiektuak errazteko baliabideak sortu eta antolatze beharri. Mendekotasun Legea, estatu mailan onetsitakoa, oinarritzko araudia da, baina Espainiako estatuak ez du baliabide publiko nahikorik bideratzen horretarako. Izan ere, lege hori aplikatzearen ondoriozko aurrekontu beharren % 30 ere ez du estaltzen.



- Beraz, EAJ-PNVtik uste dugu mendeko pertsonentzako programa, zerbitzu eta prestazio berriak indartu behar direla. Horien artean nabarmendu behar dira euren etxean laguntza kalitate egokiarekin eta modu anbulatorioan (eguneko zentroak eta lanerako zentroak) zentro espezializatuak erabiltzeko aukerarekin bizitzea ahalbidetuko dietenak. Era berean, mendekotasun handia duten eta etxean egon ezin diren pertsonen emango zaizkien programek eta zerbitzuek euren zaintza eta arreta bermatzeko ahalegina egin behar da (egoitzak, etxebizitza komunitarioak eta tutoretzapeko apartamentuak, geografia osotik banatuta).

Pertsona behartsuen gizarteratzea dugu helburu

- Hainbat arrazoi direla tarteko, gure gizartearen barruko talde batzuk oso kalteberak dira eta, askotan, bazterkeria pairatzen dute. Gizatalde horiek beharizan bereziak dituzte eta, horregatik, neurri bereziak erabaki behar dira haien egoera larria arintzeko, bai gizarteratzea ezinezkoa denean, bai emantzipazioari laguntzeko eta mendekotasunik gabeko bizimoduan has daitezen ahalbidetzeko. Nolanahi ere, babesteko neurri edo jarduera batzuk orokorrak izan behar dira eta beste batzuk, ordea, norbanakoen berezitasunen arabera. Era berean, neurri batzuk denboraz mugagabeak izan behar dira eta beste batzuk aldi baterakoak. Hala, gizarte-bazterkeria pairatzen duten lagunen egoera bereziei erantzuteko Eusko Legebiltzarrak Gutxieneko Sarreraren Bermeari eta Gizarteratzeari buruzko Legea onartu zuen 2008ko abenduan. Lege horretan, enpleguari berebiziko garrantzia aitortzen zaio gizarteratzeko bide nagusia baita. Dena dela, esan behar dugu pertsona batzuei biziki zaila zaiela laneratzea. Beste batzuei, aldiz, euskal elkartasun sistemak pentsioa osatu behar die, batere duinak ez direlako eta, gainera, estatuko gizarte segurantzaren sistemak babesten ez dituelako. Horiek horrela, gainontzeko guztiei dagokigu gizarte-bazterkeriako egoeraren bat pairatzen duten ahalik eta lagun gehien laneratzeke helburuari heltzea, lagun horien egoera betikotu eta itzulezin bihurtu baino lehen. Abiaburu horri jarraiki, helbururik behinena pertsona horiek guztiak laneratzea da, lan-merkatuaren norbanakoak gizarteratzeko ahalmena aintzat hartuta.

Adinekoentzako arreta

Gaur egun, 65 urtetik gorako pertsonen zeresan handia dute gure gizartean, inoiz baino handiagoa. Horixe dugu bizi-itxaropena handitzeak eta biztanleria zahartzeak ekarri duten ondorio garrantzitsua. Gainera, aurrerantzean ere hainbat urtetan biziko diren pertsonak ditugu eta, horretara, gogotik parte hartu behar dute gure gizartean. Zahartzaroa bete-betean eta erabateko duintasunez gozatzeko eskubidea duten pertsonak dira eta, horrenbestez, mendekotasuna ahal den heinean saihesteko neurriez baliatzeko eskubidea dutenak.

Adinekoek gizarte-eginkizun behinenak dauzkate eta, gainera, gizarte-bizitzan parte-hartzaile izateko bidezko eskubidea aldarrikatzen dute. Euskal gizarteak zor handiak dauzka gure nagusiekin eta gaur egun inoiz baino beharrezkoagoak ditugu. Hori dela eta, EAJ-PNV alderdiak konpromisoa hartzen du adinekoen parte-hartze gogotsua sustatzen duten politikak diseinatzeko, adineko gizon-emakumeak bazterturik egon ez daitezen, adin, generoa edo haien ahultasunaren zioz.

Inmigrazioa

Euskadin, migrazio-mugimenduak ez dira atzo goizekoak. Gure oraintsuko historiatik horren urruti ez dauden sasoi batzuetan antzeko mugimenduak edo are biziagoak gertatu dira. Hala eta guztiz ere, egonkortasuna 'nagusi' izan deneko hainbat hamarkada igaro ostean, etorkinen uholde izugarria iritsi da gurera arrazoi ekonomikoen ondorioz.

Etorkinen etorrerak gizarte-aldaketa nabarmenak sorrarazi dituzte gure eguneroko bizimoduaren alderdi askotan. Beste alde batetik, etorkinen jarioaren handiak berehala jarri du agerian gabezia eta eskasia izugarriak daudena Euskadira bertaratzen diren lagunen elkarbizitza eta gizarteratzeko erabiltzen diren moldeetan.

Gure iritziz, ezin diegu etorkinei laneko ikuspegi hutsez begiratu; herritarrak, eskubideak eta betebeharrak dauzkaten biztanleak direla aintzat hartu behar dugu.

Ikuspegi horretatik, behar-beharrezkoa da gizarteratzeari eragiten dioten baldintza ekonomiko hutsetan bakarrik ez, sentiberatzea eta elkarbizitza sustatzeko programetan funtsatzen den inmigrazio politikari ekin behar diogu. Eta sentiberatzea nahiz elkarbizitza ahalbidetzeko programa horiek guztiak hezkuntza sisteman bertan landu behar dira, umeak eskolatzen direnetik, baita komunitate-esparrutik ere, topaguneak eta gizarte-partaidetzako bilguneak sortuta.

Berdintasuna

Gure konpromisoa pertsonak dira

"Pertsona jaso eta solidarioak"

Arlo estrategikoak

10. Kalitatezko sanitatea
11. Etxebizitza eskubide indibidual eta sozial moduan
12. Familia, gizarte kohesioaren gunea
13. Egoerarik txarrean dauden pertsonen solidartatea
14. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna eta askotarikotasun sexualarekiko begirunea
15. Konpromisoa adineko pertsonekin
16. Herritarren zerbitzura dagoen Justizia
17. Pertsona inmigranteak gizarte ireki eta integratzailean
18. Herritarren segurtasuna, elkarbizitzaren bermea

10. arloa: Kalitatezko osasuna

Gure hitza bete dugulako...

Osasun-sarea eraberrituko genuelako agindua eman genizuen...

“eta euskal osasun-sareak gure inguruko sareetatik onena izateari eutsi dio, azken lau urteotan egindako ahaleginei eser. Izan ere, aipatu aldian, azpiegiturak eta bitartekoak hobetu dira, Osakidetza langileria gehitzeko eta finkatzeko eginahal izugarria egin da, osasun arloko ikerkuntza eta berrikuntza sustatu dira eta osasun-zerbitzu berriak eskaini dira. 2006. urteko martxotik aurrera, itxaronzerrendan dagoen zeinahi euskal herritarrek dekretuz bermaturik dauka osasun-laguntza gehieneko epe baten barruan. Gainera, legegintzaldi honetan, lege onetsi dugu bigarren iritzi medikoa izateko eskubidea”.

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... Gure osasun publikoa erreferente bihurtzea Europan, apurka-apurka osasunaren arloko biztanle bakoitzeko gastu publikoa gehitu eta pertsona bakoitzeko 2.000 eurokoa izan arte.

Hauek dira gure Konpromiso eta Ekimenak...

1.- Lehen Mailako Arreta – Arreta Espezializatua

- Lehen mailako arretako 30 osasun-etxe berri abian ipintzea.
- Lehen mailako arretako kontsultetan, 10 minutu baino gehiago egotea, eta 13 minutu baino gehiago pediatria zerbitzuan.
- Gehieneko berandutzea 30 egunekoa izateko konpromisoa hartzen dugu arreta espezializatuko kanpoko kontsulta eta proba osagarrietan, eta 48 orduetik beherakoa lehen mailako arretako kontsultetan.
- Bizimodu osasungarriaren onuren berri biztanle guztiei, eta bereziki, gure nagusiei emateko zabalkuntza programa berria onartzea.
- Euskadiko esparru soziosanitarioa bete-betean garatzea.
- Arreta-beharrizan bereziak dauzkaten gaixoen eta haien familiako kide edo/eta zaintzaileentzako arreta psikologikoa areagotzea.
- Haurren Hortzak Zaintzeko Programa hartzaileek 18 urte bete arte baliatu ahal izatea.
- Genetika Plana garatzea, herentziazko gaixotasunei hobeto aurre egin eta haiei lotutako sendabideak hobetzeko.
- Paziente kronikoentzako arreta eredu berria ezartzea, talde horren osasuna eta ongizatea ontzearren.
- Euskadiko Kalte Zerebralaren Unitatea sortzea.
- Buru-asaldura larriak pairatzen dituzten pazientei lehentasunezko arreta eskaintzea, batik bat, haur, gazte eta adinekoei.
- Norberatasunaren Nahasmenduen Unitatea hedatzea.
- Osasun-arlo guzti-guztiak IKTUS unitatez hornitzea.
- Koloneko minbizia goiz detektatzeko programa garatzea.
- Kirurgia laparoskopiko robotizatu aurreratuen bultzatzea, “Da Vinci” direlako robot gehiago eskuratuta.



II.- Azpiegitura eta sanitate hornikuntza berriak.

- Osasun Azpiegiturak Eraberritu eta Egokitzeko Plan Berezia eguneratzea eta handitzea, 900 milioi euroko inbertsioa eginda 2015. urtera arte.
- Egungo sanitate-eremuari 80.000m2 gehitzea hurrengo legegintzaldian.
- Azpiegitura hauek guztiak abian ipintzea: Debagoieneko ospitale berria, Arabako laborategi bateratua, zerbitzu orokorretako eraikin berriak Gurutzetan eta Basurtun, kanpoko kontsultetako eraikin berriak Txagorritxun, Gasteizko Santiago ospitalearen zabaltzea eta Donostian eta Transfusio eta Giza ehunen Euskal Zentro berria.
- Gernika, Urduliz eta Enkarterriko bereizmen handiko hiru ospitaleak eraikitzeke lanak amaitzea.
- Euskal osasun sarea 600 ohe gehiagoz hornitzea.
- Erradiologia-irudia kudeatzeko proiektu nagusia bultzatzea. Egitasmo horri esker, paziente bakoitzak historial kliniko erradiologiko bakarra edukiko du EAEn.
- Egonaldi ertain eta luzeko azpiegiturretan, inbertsioa % 25 handitzea.
- Diagnostiko-tratamenduetako teknologia aurreratuenak eskuratzea, batez ere, minbiziari lotutakoak.
- Arreta kasuan-kasuan egokitzea. Erditzeko gelan, banako ohe berrien kopurua % 20 eta egoera jakinetarako banako gelen kopurua % 15 handitzea.
- Ezarritako teknologia berriak eta zaharkituta geratu bide direnak ebaluatzea, Osakidetzako parke teknologia etengabe gaurkotuta edukitzeko.
- Osakidetzako erradiologia unitate guzti-guztien digitalizazioa bukatzea, pazienteei dagokienez, nork bere historial kliniko erradiologikoa izan dezan.

III.- Osasuna eta Emakumeak programa.

- Osasuna eta Emakumeak deritzon programan inbertitutako baliabideak % 25 handitzea.
- Etxeko tratatu txar eta sexu-indarkeria pairatu duten emakumeentzat gaur egun erabiltzen den sanitate protokoloa ebaluatu eta hobetzea.
- Genero-gertaeren ondorioz sortzen diren buru osasuneko gaitzei aurre egiteko arreta-programa berria gertatzea emakumeentzat.
- Haziz doazen arazoei aurre egiteko osasun programak lantzea: beharrian bereziak dauzkaten adingabeen zaintzaileak, emakume etorkinak, emakume ezinduak eta gaixotasun kronikoek jotako emakumeak.
- Koito-ondoko pilula banatzeko programa ebaluatu eta hobetzea.
- Euskadiko ama-esnearen bankua sortzea.
- Umetoki-lepoko minbiziaren gainerako baheketa antolatuko programa garatzea.
- Erditzeetan laguntzeko protokolo berria onartzea, erditzea bera leundu eta gozatze aldera, egiteko garrantzitsuena amari aitortuta.
- Down-en sindrome, fibrosi kistiko eta haurdunen beste kromosomopatia batzuen gainerako baheketa programa garatzea.
- Arrisku handiko jaioberrientzako pediatria-arretako programa berria sortzea.

IV.- Giza Baliabideak.

- Beste hiru lan-eskaintza publiko argitaratzea, guztira 5.500 lanpostu betetzeko. Neurri horri esker, plantillaren % 95 egonkorra izango da.
- Inbertsio Planak aurreikusten dituen ospitale berri eta lehen mailako arretako osasun-etxeen kopurua handitzeaz batera, beste 1.300 sanitateko profesional sartzea sarean.
- Langileentzako prestakuntza programa iraunkorra eskaintzea, laneko gaikuntza bikaina bermatzeko.

- Familiako eta laneko bizimoduak uztartzeko neurriak abiaraztea eta hobekuntzak proposatzea.
- Egoiliarren prestakuntza-eskaintza hobetzea, etorkizuneko profesionalak lanbideratzeko estrategia deigarri baten bidez.

V.- Kudeaketaren eraginkortasuna – klinika-bikaintasunaren antolaketa-eredua.

- Sendagai edo botika generikoak sustatzeko plan berria gertatzea, horiei lotutako errezeta motak % 30 areagotzearen.
- Anbulatorioko arreta arratsalde biztanleriaren % 95i eskaintzea.
- Bereizmen handiko prozesuak garatzea ospitale guztietan, barruko antolaera hobetu eta erabiltzaileek onura handiagoak har ditzaten.
- Guztion parte-hartzea gogotik bultzatzea, jarduera klinikoaren ebaluazioa egiteko bide berriak zehazteko helburuz.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) sanitate-prozedura guztietan ezartzeko ahaleginak egitea, bai kudeaketa jardueretan, bai medikuntza eta kirurgiako jardueretan.
 - a. Errezeta elektronikoa erabiltzeko modua ezartzea gure lurralde osoan;
 - b. Historia kliniko digital bakarra eskuragarri jartzea, arreta espezializatuari eta lehen mailako arretari buruzko informazioa bereiz ikusteko aukera emanda.
 - c. OSANET sanitate-ataria ONA txartela baliatuz, informazio klinikoa (alta-txostenak, larrialdi-txostenak eta abar) eskuragarri jarri herritarrentzat.
 - d. ONA txartelaren bidez, burutu gabeko txanden kontsulta ahalbidetzea herritarrei.
 - e. Txanda hartzeko prozedura erraztea tresna berriei esker, eguneko zeinahi ordutan eta urteko egun guztietan.
 - f. Telemedikuntzako programak (teledermatologiak eta beste) ezartzea.
- Zainketa Aringarrietako Plana sendotzea.

VI.- Ikerkuntza eta Berrikuntza

- Osasun Ikerkuntzako Ikastegiak sortzea Donostiako eta Gurutzetako ospitaleetan.
- Osasun ikerkuntzako bost unitate berri eratzea eta 1.000 ikerketa-egitasmo berri bultzatzea legegintzaldian.
- Ikertzeko lan-ildo estrategikoa landu bioteknologiaren eta osasun zientzien arloetan, bai eta arlo horietako aplikazioetan.
- Osasun arloko ikerkuntzak ondutako emaitzakeuska osasun sisteman, horren antolaeran eta bere pazienteentzat baliatzen eta berrikuntzan erabiltzen direla bermatzen duen lantaldia eratzea. Lan-talde hori Osakidetza ordezkariek, ikerkuntza etxeetako kideek eta osasun arloko enpresetako adituek osatuko dute.
- HIESaren aurkako txertoaren ikerkuntzan eta garapenean laguntzen jarraitzea, irabazteko asmorik gabeko antolakundearen bitartez, txerto hori lortzea denon helburua izan behar baita.

11. arloa: Etxebizitza, norbanakoen eta gizartearen eskubidea

Gure hitza bete dugulako...

Etxebizitza duina lortzeko eskubidea gauzatzeko konpromisoa hartu genuen ...

"eta Eusko Jurlaritzak babes ofizialeko 22.000 etxebizitza eraiki ditu. Inbertsio hori gure herrialdean inoiz gauzatu den asmo handiko proiekturik behinena da familien ekonomiaren arazo nagusiari aurre egiteko.

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

Etxebiden inskribatuta dauden eta zama eta erantzukizun familiarak dituzten pertsona guztiei babes ofizialeko etxebizitza bat eskaintzea; lehentasuna emango zaio alokatzeari eta ez jabetzari.

Hauek dira gure Konpromiso eta Ekimenak...

I.- Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzea:

- Hurrengo legegintzaldian onartu beharreko lehen neurria etxebizitza eskuratzeko eskubidea arautzen duen Legea izango litzateke, diru-sarrera urriak dauzkaten herritarren eskubide horri –hots, etxebizitza duina eta egokia izateko eskubideari–, eraginkortasunez erantzuteko.
- Babes ofizialeko 30.000 etxebizitza eraikitzen hasia 2013 urtea amaitu aurretik. Ekimen honek, hein handi batean, Etxebide zerbitzuan izena emanda dauden pertsonen beharrezan erantzungo die, batik bat, familia-zama eta erantzukizunak dauzkaten lagunei, gaur egun eraikuntza-sektoreak pairatzen duen krisialdia arintzen lagunduko du eta lanpostuak sortuko ditu.
- Adjudikazio prozedurak berraztertu eta hobetzea, herritarren beharrezan arabera egokitzeko, biztanleak errenta-mailaren arabera, sortzeriaren arabera edo jatorri etnikoaren arabera bil daitezkeen saihesteko.
- Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko eskatzen den diru-sarreraren gehieneko kopurua urtero-urtero eguneratzea, aurreko urteko inflazio-tasari doitu.
- Ikuskapen moduak indartzea etxebizitza esleitu ondoko urteetan.

II.- Alokairua bultzatzea:

- Babeseko alokairua bultzatzea etxebizitza eskuratzeko zailtasun handienak dauzkaten lagunei laguntzeko biderik onena delako.
- Alokatzeko erabili guztira eraikitako babes ofizialeko etxebizitzaren % 50, eta alokairuaren kostua familiako diru-sarreraren % 30 baino txikiagoa izatea.
- 5.000 etxebizitza huts merkaturatzea alokairuan ipintzeko arrazoizko prezioan.
- Udalekin elkarlanean, babes ofizialeko etxebizitzaren parke publikoa sortzea, alokairuan emateko eta hornikuntza-bizitoki gisa erabiltzeko.

III.- Iruzurraren aurka aritzea:

- Babes ofizialeko etxebizitza guzti-guztiak ikuskatuko dira, behar den moduan erabil daitezen eta etxebizitzon jabetza-transmisioan iruzurrik egon ez dadin, etxebizitzen helburu soziala haien bizitza-balioan oso-osoan bete dadin bermatzeko.
- Babes ofizialeko etxebizitzen ikuskapen zerbitzu publikoa eratuko da.
- Udal, foru ogasun, notario eta jabetza-erregistratzaileekiko lankidetzaren areagotuko da.

IV.- Erakundearen arteko lankidetzaren eta elkarlana sustatzea:

- Euskal herri-administrazio guztien arteko lankidetzaren eta elkarlana sustatzea, erakunde publikoek sustatzen dituzten ekimen guztien osagarritasuna eta koordinazioa lortze aldera.
- Hirigintza eta Etxebizitza Topagunearen esparruan, etxebizitza sustatzeko hitzarmena sinatzea, alde batetik, administrazio guztien nahitaezko koordinazioa eta parte-hartzea ahalbidetzeko, eta bestetik, aurretiaz aipatutako helburuak lortzeko.

V.- Etxebizitza politika eta beste gizarte-politika batzuk koordinatzea:

- Diru-sarrerak bermatzeko prestazioen eta gizarte-larrialdietarako laguntzen hartzaileen aldeko ekintza positiboak erabakitzea, aipatutako lagunek alokairuko gizarte-etxebizitza eskuratzeko orduan.
- Gizarte-zerbitzuen arloko alokairuko etxebizitzen kopuru jakin bat irabazi-asmorik gabeko antolakundeek kudea dezaten sustatzea, berariazko hitzarmenak direla bide.

VI.- Hiriko eremua birgaitzea eta etxebizitzak zaharberritzea

- Etxebizitzak birgaitzeko laguntza-programak bizkortu, egun erabiltzen diren 50.000 etxebizitza hobetu eta zaharberritzeko xedez.
- Renove-Etxebizitza delako programa berariazkoa ezarri 50 urtetik gorako etxebizitzen aurrealdeak edo fatxadak eta etxebizitzak eurak zaharberritzeko.
- Mendekotasun handiko egoera pairatzen duten lagunentzako eta adinekoentzako etxebizitzak egokitzeko plan berezia gertatzea.
- Hiriko eremua birgaitzeko eta etxebizitzak zaharberritzeko neurriei ekitea hiriko alde andeatuetan, biziberritzeko ekimenen bitartez, betiere udalaren nortasuna eta autonomia aintzat hartuta.

VII.- Iraunkortasuna:

- Arlo honetarako egun ematen diren diru-laguntzen zenbatekoa areagotzea, eraikitze iraunkorra bultzatzeko, batik bat, arkitektura bioklimatikoa, eragingarritasun energetikoa eta uraren erabilera eraginkorra saritzeko.
- Mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat egokitzen diren etxebizitzen erabilera aztertzeko beren beregiko lan-taldea eratzea, behar dutenak mota horretako etxebizitzetan benetan bizi daitezen bermatuta.
- Eraikinen ikuskapen teknikoa bultzatzea, haien bizitza-aldiari luzaroan eusteko etxebizitzak egiten direnetik eta, aldi berean, etxebizitzon egoera ona eta erabilera egokia bermatzeko.

12. arloa: Familia, kohesio sozialaren muina

Gure hitza bete dugulako...

Familia babesteko konpromisoa hartzen dugu...

"eta Euskadi maila gorenean dago Estatuan seme-alaben jaiotzarengatik laguntzei dagokienez. Gainera, kenkari fiskal handiagoak ditugu seme-alabak euren pentzura dituzten familientzat, eta 2007an 2 eta 3 urteko haurren % 100 eskolatuta zuen erkidego bakarra gara".

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... Legegintzaldian zehar familiei laguntzeko politika publikoak bikoiztea.

Hauek dira gure Konpromiso eta Ekimenak...

I.- Familiei Laguntzeko Plan Berria:

- Familiei Laguntzeko Plan Berria 2011-2014 abiaraziko dugu, berriki onetsi den Familiaren Legea pixkanaka garatzeko modua emango duena; izan ere, Lege horretan eskubide subjektibo lez ezarri dira familientzako laguntzak. Legea aplikatzeko, herrialderik aurreratuenen Europako estandarrak 2020an lortzean datza gure konpromisoa.

EAJ-PNVk Familiaren Legearen aurreikuspenak aurreratzeko konpromisoa hartzen du, eta familientzako laguntzen egungo politika publikoak legegintzaldi honetan bikoiztea planteatzen du.

II.- Seme-alaben jaiotzengatik edo adopzioengatik:

- Legegintzaldian pixkanaka handitzea hirugarren seme-alabarengatik eta hurrengoengatik laguntzak 10 urtera arte. Bigarren seme-alabarengatik 6 urtera arte, eta lehen seme-alabarengatik, berriz, bi urtera arte.

III.- Lana eta familia uztartzeko laguntzak.

- Pixkanaka handitzea seme-alabak zaintzeko eszedentzia eta lanaldi murrizketengatik egungo laguntzak.
- Seme-alaba adingabeak etxez etxe zaintzen dituzten pertsonak kontratatze laguntzak handitzea.
- Hiru urtetik beherako seme-alabak etxez etxe zaintzen dituzten pertsonak kontratatze laguntzak handitzea.
- Urrutiko lanari buruzko akordioak araupetzea bultzatzea, lana eta familia uztartzeko denbora errazago antolatze.
- Gizarte eragileekin batera neurriak sustatzea lan eta hezkuntzaren eremuko ordutegiak finkatzeko, lana eta familia bateratzea errazteari begira.

IV.- 0-3 urteko haurren eskolatzeta.

- Euskadi da 2007an 2-3 urteko haurren % 100 eskolatuta zuen Estatuko erkidego bakarra. 2007/2008 ikasturtean 0-2 urteko haurren % 91,86 dago eskolatuta, eta legegintzaldi honetan % 100 eskolatuko dugu.

- Pixkanaka luzatzea haurtzaindegien ordutegia, harik eta haurrak zaintzeko zentroak lan egun guztietan zabalik egon arte.

V.- Familia ugariari laguntzea.

- Famili errenta estandarizatzeko sistema bat onestea, halako moldez non, diru-laguntza bat emateko familiaren errentaren baldintza bat bete behar denean, famili unitateko kideen kopuruaren arabera doituko baita errenta hori.
- Familia ugarien aldeko programa onestea, lehentasunez metro koadro gehien dituzten etxebizitza sozialak eskura ditzaten seme-alaben kopuruaren arabera.

VI.- Familiari laguntzeko organo berriak.

- Famili Kontseilua sortzea, sektoreko erakundeek planak eta arauak egitean parte hartzeko modua izan dezaten; gainera, Familiaren Behatokia sortu da, eta familiak Euskadin duen bilakaera eta egoera aztertuko du.

VII.- Famili bitartekotza.

- Famili bitartekotzak eta orientazioko zerbitzuak bultzatuko ditugu, familiei laguntzeko eta famili gatazkak ez judizializatzeko; hartara, gatazkak konpontzeko modu baketsuak zabalduko dira.

13. arloa: Elkartasuna pertsona behartsuenekin

Gure hitza bete dugulako...

Pertsona behartsuenei laguntzeko konpromisoa hartzen dugu...

"eta gaur egun Europako pobrezia arrisku tasarik txikienetako bat dugu. Legez oinarritzko errenta bat bermatzen duen Estatuko erkidego bakarra gara, hain zuzen diru baliabiderik ez duten pertsona guztientzat, hots, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 80. Gainera, Gizarte Zerbitzuen Legea onetsi berri dugu."

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... Herri eskandinaviarrek duten gizarte babes eredua Euskadiko errealitateari egokitzea.

Hauek dira gure Konpromiso eta Ekimenak...

I.- Pertsona behartsu guztientzako oinarritzko errenta:

- Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legearen aurreikuspenak garatzea, lanbide arteko gutxieneko soldataren bilakaerara egokituta.
- Pentsiodunek osaturiko bizikidetza unitateei diru-sarrerak bermatzea, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100.
- Prestazioa etxebizitza subsidioarekin osatzea, etxebizitza behar duten pertsonak babesteko.
- Gizarte larrialdietarako laguntzari eustea aparteko laguntzako aldi baterako diru-laguntza lez.

II

KRISI EKONOMIKOA
GAINDITU, ONGIZATEA
HANDITU ETA ENPLEGUA
SORTZEKO ESTRATEGIA
INTEGRALA

- Gizarteratzeari buruzko Erakunde Arteko III. Plana (2010-2012) Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen eta horren arau-garapenaren eremuan. Horren lehentasunezko helburuetako bat bazterketaren kontrako borroka izango da, pertsona behartsuenak gizarteratuz eta laneratuz.
- Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoaren transferentzia exijitzea eta eskatzea Estatuari, pentsioen sistema publikoari eusteko pertsona behartsuenei gutxieneko errenta bermatzeko oinarritzko eta funtsezko zutabea den aldetik.

II.- Pertsona behartsuenak berriz laneratzea:

- Diru-sarrerak bermatzeko sistema gizarteratzeko kontratu bat izenpetzearekin lotzea, eta bertan ezarriko dira titularraren eta bizikidetzaren unitateko kideen arriskuaren edo bazterketaren aurrearretarako beharrezko gizarte edota laneko ekintza espezifikoak haien gizarteratzea eta laneratzea errazteko, baita kontratua betetzeko konpromisoak ere.
- Gizarteratzeko banako ibilbideak ezartzea, horrelako prozeduretan parte hartzen duen bakoitzari kalitate handiagoko jarraipena egiteko.
- Prestakuntzako, laneko, lana biltzeko eta gizarteratzeko programa berriak bultzatzea, berrikuntza eta erabiltzaileen partaidetza handia sustatuz.
- AUZOLAN programa indartzea, 23 urtetik beherakoei arreta espezifiko emanaz eta lanerako prestakuntza eta orientazioa lehenetsiz.
- Gizarte klausulak ezartzea kontratazio publikoan, laneratze-enpresetarako merkatua erraztuz eta gainerako enpresak gizarte-laneratzeko-prozesuaren helburuan partaide eginez.
- Zailtasun bereziak dituzten taldeei arreta espezifiko emateko politikak garatzea (Ezinduek laneratze plan, aldi baterako lanaren arretarako plan integrala, ijitoak sustatzeko eta gizarteratzeko plana, droga-mendekotasunaren euskal plana).

III.- Gizarte politikak ebaluatzea eta fiskalizatzea:

- Gizarte laguntzak jasotzean balizko iruzurrik ez gertatzeko ikuskapenak indartzea eta bazterketaren kontrako neurriak gizarte justiziaren eta diru-baliabideen xedearn gainera erantzukizunaren printzipioei egoki aplikatzen zaizkiela bermatzea.
- Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren prestazioak sistematikoki ebaluatzearen eredu bat egitea, erabakiak hartzeko prozesua neurtzea, kontrolatzea, zehaztea eta bideratzea ahalbidetzen duten ebaluazio adierazleak zehaztuz.
- Hartzaileen bilakaerari eta ezaugarriei buruzko aldizkako informazio sistema bat sortzea.
- Europar pertsona behartsuenak gizarteratzeko egiten diren jardun onak identifikatzeko eta jarraipena egiteko neurriak ezartzea.

IV.- Erakundearen arteko lankidetzaren eta kolaborazioa:

- Gizarte Zerbitzuen Legearen garapena lantzea Foru aldundiekin, udalerrieekin eta EUDELekin koordinatuta, gizarte zerbitzuen eta prestazioen katalogoa zehazteko asmoz.
- Gizarte zerbitzuen euskal sarea antolatu eta planifikatuko duen Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren garapena sustatzea Foru Aldundi eta Udaletxeekin koordinatuz, lurralde oreka lortzeko, zerbitzuen kalitatea sustatzeko eta administrazio bikoiztasunik ez izateko. Plan honek azpiegiturretan inbertsioak, erresidentzietan 5.000 plaza gehiago eta laguntzak jasotzeko eskubidea duten pertsonentzat gizarte zerbitzuak areagotzea bermatuko ditu.

- Norberaren autonomia sustatzearekin eta mendekotasunean bizi diren pertsonen arretarekin lotutako gizarte programak eta jarduketak garatzea, partaide diren euskal erakunde guztiekin batera eta horietako bakoitzak jarduteko duen eskumen eremua errespetatuz.

V.- Beste gizarte politika batzuekin koordinatzea:

- Udalen, aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren gizarte zerbitzuen arteko komunikazioa ahalbidetzeko tresna informatikoak abiaraztea.
- Gizarte zerbitzuen eta enplegu zerbitzuen arteko jarduketa, lankidetzeta eta koordinazio protokolo berriak gauzatzea.
- Baztertuak izateko arriskuan edo baztertuta dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko neurriak erabakitzea, gizarte babeseko sistema eta politika publikoek jarduteko duten eremu guztietan, bereziki hezkuntza zerbitzuetan, gizarte zerbitzuetan, osasun zerbitzuetan eta etxebizitz zerbitzuetan.

14. arloa: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta sexu aniztasunaren errespetua

Gure hitza bete dugulako...

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako legea gauzatzeko konpromisoa hartzen dugu...

“eta horixe izan da legegintzaldiko isileko erronka handia. IV. Berdintasun Planak 600 ekintza zehatz abiarazi ditu, eta horien artean Berdintasuna Defendatzeko Zerbitzua sortzea, tratatu txarren biktimetarako diru-laguntzak ematea eta eguneko 24 orduetan berehalako laguntza izateko telefono bidezko laguntza zerbitzua sortzea nabarmentzen dira.”

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... Euskadi munduko lehen 5 herrialdeen artean kokatzea Nazio Batuek ezartzen duten Genero Berdintasunaren Adierazleari dagokionez. Sexu aniztasunaren aintzatespen eta erabateko begirunean aurrera egitea.

Hauek dira gure Konpromisoa eta Ekimenak...

I.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, behin betiko apustua

- Erakundeen arteko jarduketa plan bat garatzea ekonomia eta gizarte eragileekin batera, emakumeen eta gizonen artean diru-sarreretan dagoen aldea % 30 murrizteko.
- Gizarte itun handi bat bultzatzea ordainsarien berdintasunean aurrera egiteko; horren bidez, ordainsarien gaineko bazterkeriaren kontra egin, emakumeek erantzukizuneko postuetan duten presentzia sustatu eta emakumeek krisialdi ekonomikoa eta finantzarioa neurri handiagoan jasan ez dezaten zainduko da.

II

KRISI EKONOMIKOA
GAINDITU, ONGIZATEA
HANDITU ETA ENPLEGUA
SORTZEKO ESTRATEGIA
INTEGRALA

- Emakumeen kontrako biktimen Legea onestea, indarkeriaren aurrearretarako, ordain ekonomikoak emateko eta gizartean aintzatesteko neurri zehatzekin.
- Emakumeak jabetzeko eskolen sorrera bultzatzea, euren autonomia sustatzeko eta egoera ekonomikoa, politikoa eta soziala indartzeko.
- Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua erraztea euskal administrazio publikoen sailletako eta haien mendeko gainerako erakundeetako zuzendaritza karguetan.
- Klausulak ezartzea administrazioak eginiko kontratuetan, azpikontrataturiko pertsonen administrazioko pertsonalaren antzeko soldatak dituztela bermatzeko, bereziki emakumeak nagusi diren sektoreetan.
- Egunean jartzeko programa espezifiko bat abiaraztea, pertsonak zaintzeko baimenak eta eszedentziak erabili izanaren ondorioz haien lanbide karrera eten duten pertsonentzat.
- Haur eskolen eta inoren laguntza behar duten beste pertsona batzuei laguntzeko zerbitzuen sarea handitzea bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzeko, baita haur eskoletan ordutegi zabalagoak ezartzea ere.
- Erakunde arteko itun bat sustatzea, euskal administrazio publikoen berdintasunerako politiketarako egun erabiltzen den aurrekontua nabarmen handitzeko.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ikerketa zentro bat sortzea, arloko ezagupen aditua bildu, emakumeak sartzeko modua erraztu eta genero ikuspegia ezagutzaren arloetan txertatzea bultzatuko duena.
- Sexuaren araberako estereotipoak eta rola desegiteko programa bat abiaraztea EAEko ikastetxe guztietan, baita emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxista prebenitzeko ere.
- Berdintasuneko teknikari adituen kontratazioa bultzatzea euskal udalerrietan.

II.- Sexu aniztasuna, berdintasunerako eskakizuna

- Yogyakartako printzipioak betetzeko prozesuan aurrera egitea, sexu orientazioaren eta genero nortasunaren inguruko giza eskubideen nazioarteko legeria aplikatzeari dagokionez.
- Euskadik erreferentzia izaten jarraitzea gay, lesbiana, bisexual eta transexualen eskubideen berdintasuna aitortzeari dagokionez.
- Egoera ikusarazteko eta jabearazteko jarduketak sustatzea, 2009-2012 plan estrategiko bat onetsita elkarleen eta taldeen partaidetzarekin, baita Berdindu Euskal Zerbitzua sortzea ere. Hartara, GLBT taldeek eta elkarteek parte hartuko duten aholkularitza kontseilu bat sortuko da.
- Ekimen berriak garatzea hezkuntzaren arloan, haur, lehen eta bigarren hezkuntzan sexu aniztasunaren tratamendua indartuz, irakasleak sexu askatasunaz trebatzeko programa espezifikoak barne. Gainera, jarduteko protokoloak ezarriko dira bullying homofobikoen kasuetan.
- Genero identitatearen unitatea hedatzea osasunaren arloan.

15. arloa: Konpromisoa adinekoekin

Gure hitza bete dugulako...

Adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko konpromisoa hartzen dugu...

“eta Gobernu honek injustizia historikoa bukatzea lortu du. Legegintzaldi honetan, Legez onetsi dugu alargunek eta pentsiodunek lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100eko konpentsazioak kobratzea. Nabarmen hobetu dira gainera besteen laguntza behar duten pertsonentzako laguntzak, adinekoen egoitzak eta urrutiko laguntzako zerbitzuak arreta emateko.”

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

Zahartze aktiboa lortzeko politika berriak bermatzea eta 80 urtetik gorako pertsonentzat aurrearreta eta laguntza zerbitzu berriak sustatzea.

Hauek dira gure Konpromiso eta Ekimenak...

I.- Gizartearen eta politikaren protagonismo handiagoa

- Zahartze aktiborako baldintza egokiak sustatzea.
- Urteko azterlan bat egitea Euskadiko adinekoen beharrak eta eskariak sakon ezagutzeko.
- Azterlanean antzemandako beharrak oinarri hartuta, hurrengo lau urterako jarduketa plan estrategikoko bat egitea, adinekoen eta ukituriko erakunde guztien partaidetzarekin.
- EAJ-PNVk katalogo bat egitea proposatzen du, adinekoen eskura dauden zerbitzuak argi zehaztuta dituen, eta zerbitzu horiek eskuratzeko modua erraztuko duten informazio espezifiko planak garatzea adinekoentzat.
- Herritar guztientzako aldizkako informazio kanpainak egitea, azterlanaren emaitzak eta adinekoen eskari zehatzak gizarteratzeko.
- Adinekoek parte hartzeko bide berriak jartzea haiei zuzenean dagozkien gaitetan. Horietako lehena parlamentuko txosten bat eratzea izango da, soilik adinekoek arduratuko dena.
- Adinekoen eskubideak eta betebeharrak ezagutaraztea.
- Adinekoak hedabideetan tratatzeko moduari buruzko eskuliburu etiko bat sustatzea.

II.- Aurrearreta eta laguntzako zerbitzuak

- Gizarte Arretako Plana ebaluatzea eta eguneratzea, adinekoekin lotutako euskal erakunde guztiak koordinatzen dituen, bereziki mendekotasuna duten pertsonen dagokienez.
- Erresidentzietan 5.000 plaza gehiago sortzea Gizarte Zerbitzuan Plan Estrategikoa garatzeko, Foru Aldundiekin eta Udaletxeekin koordinatuz.
- Gizarte Aurreikuspen Osagarriko Legea eta Plana indartzea, euskal langileen geroko pentsioak hobetzeko.
- Oinarrizko errenta ematea pobrezian bizi diren adineko guztiei.
- Aurrearretako bisitaldien zerbitzu berria sortzea 80 urtetik gorako pertsona guztientzat haien etxean, aldundien eta udalen lankidetzarekin.



- Udal lan poltsak egitea zerbitzu horretako prestakuntzarako eta enplegurako, betiere arloarekin lotutako prestakuntza edo esperientzia duten pertsonak lehenetsiz.
- Protokolo espezifiko bat sortzea, laguntza zerbitzuak era guztietako gehiegikeria ekonomiko eta tratu txar guztiak antzeman ditzan.
- Etxez etxeko urrutiko laguntzako zerbitzua sakontzea, erabiltzaileen kopurua pixkanaka handituz eta bakarrik bizi diren 80 urtetik gorakoen % 100i zerbitzua emanaz.
- Mendekotasunerako Euskal Aurrearreta Plana abiaraztea.
- Gizarte gunea erabat garatzea Euskadin.
- Egungo gizartearen kudeaketa hobetzea. Gizarte zerbitzuak modu bakarrean eskuratzeko sistema, zerbitzuen kartera bakarra, informazio sistema konpartitua eta baterako plangintza zehaztea eta kudeatzea.
- Tresna berriak adinekoen ohiko ingurunera hurbiltzea.
- Adinekoak zaintzen dituztenen edo senideen deskarga, laguntza eta orientaziorako telefono bat eta web orrialde interaktibo bat sortzea.
- Osasun Sailarekiko koordinazioa hobetzea oinarritzko arretako osasuna prebenitzeko eta sustatzeko programetan.
- Gizarte eta osasun sistemen koordinazioa sustatzea, arretaren iraunkortasuna bermatzeko eredu egonkor bat garatzeko, bai gizarte zerbitzuen sistemaren beraren barruan, bai osasun sistemaren barruan.
- Kide guztien eta adinekoen zaintzako baterako erantzukizuna sustatzea familia eta lana bateratzeko neurri berriak sustatuz, besteen laguntza behar duten adinekoei arreta emateko laguntza handia ematen duten senideentzat.
- Adinekoen berme juridikoa eta ekonomikoa babestea, batez ere erabakiak askatasunez hartzeko gaitasunik ez dutenena.
- Udaletan Adinekoen Kontseiluak sustatzea, haiei zuzenean dagozkien arloak jorratzeko.

III.- Zahartze aktiboko politika berriak

- Adinekoei jakinaraztea haien esku dituzten gizarte baliabideak.
- Unibertsitateko hezkuntza eskaintza 55 urtetik gorako pertsonen balizko eskariari egokitzea.
- Egungo programak ebaluatzea eta egokitzea adinekoek unibertsitatean ikasteko eta kultura zabaltzeko ikastaroetan parte har dezaten.
- Prestakuntza, kultura eta aisialdiko programa espezifiko berriak sustatzea adinekoentzat.
- Belaunaldien arteko programak eta gizarte intereseko jardueren programak sustatzea euren borondatez lan egiten duten adinekoen aldetik.
- Hezkuntza eta ikaskuntzako aukerak ematea bizitzako ziklo osoan. Adinekoek garapen ekonomikoko jardueretan, lan formalean eta informalean eta boluntarioen jardueretan duten parte hartze handia aitortzea eta ahalbidetzea, haiek zahartu ahala eta haien beharren, lehentasunen eta banako gaitasunen arabera.
- Adinekoentzako politikei buruzko "ezagutza kluster" bat sortzea.
- Hezkuntza eskaintza Osasunaren Munduko Erakundeak proposaturiko arlo tematikoetara egokitzea: osasunerako hezkuntza, oinarritzko hezkuntza eta hezkuntza iraunkorra gizarte partaidetzarako eta ordainsarietarako eta segurtasunerako eta bazterketaren kontrako hezkuntza, hezkuntza eta teknologia berriak, belaunaldien arteko hezkuntza, zahartze aktiboaren hezkuntza eta geriatría eta gerontologia hezkuntza.

- Adinekoen giza kapitala aintzatestea bultzatzea eta gizartean eragile aktibotzat hartzea.
- Kontratazio malgua edo ordaindutako partaidetza erraztuko da hezkuntza, osasun, industri edo herri administrazioaren eremuko irakasle edo aholkulari gisa.
- Aholkulari seniorra indartzea enpresa gazteen zerbitzura. Enpresa horien jardueran esperientzia duten pertsonak izango lirateke, denbora partzalean jarraipena eskaini ahal izango dutenak.

IV.- Etxebizitza

- Babestutako apartamentu berriak eraikitzea etxebizitza irisgarriak ez duten adinekoentzat, eta haien etxebizitzak gizarte alokairuen merkatuan jarriko dira.
- Erraz eskuratzeko moduko diru-laguntzak ematea, baita adinekoen etxebizitzak egokitzeko beharrezko laguntza tekniko ere. Barrera arkitektonikoak kentzea eta igogailuak jartzea.
- Lan osagarrietarako boluntarioak sustatzea, adinekoei laguntzea adibidez.

16. arloa: Justizia herritarren zerbitzura

Gure hitza bete dugulako...

Justizi administrazio eraginkorra bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu...

“eta Euskadik Estatuko gatazka tasarik txikiena du. Eusko Jaurlaritzaren mendeko justizia administrazioarekin lotutako alderdiak indartu egin dira inbertsio handiekin, eta ondo funtzionatzen dute. Ahalegin horiei esker, deliturik gehienen judiziamendua eta epaia (5 urtetik beherako zigorrak dituztenak) astebeteren barruan eman ahal izan dira.”

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... Justizia herritarrengana hurbiltzea, Bake Epaitegien zerbitzuak sustatuz.

Hauek dira gure Konpromiso eta Ekimenak...

I.- Bulego Judizialaren antolamendua

- Laneko barne antolaketako sistema berria ezartzea bulego judizialean eta fiskalean, zerbitzuaren espezializazioan eta zentzuzko erabileran oinarrituta.
- Bulego judizialeko herritarrentzako arreta eta pertsonalaren lan baldintzak hobetzea.
- Euskal Herriko barruti judizial bakoitzeko bulego judiziala eta fiskala osatu behar duten unitate berriak onestea.
- Antolaketa judizial berriari egokituriko pertsonal egitura bat egitea, eta arreta berezia jarriko zaie erantzukizuneko postuei.
- Bake epaitegiak garatzeko eta justizia herritarrengana hurbiltzeko programa espezifiko bat abiaraztea.

II

KRISI EKONOMIKOA
GAINDITU, ONGIZATEA
HANDITU ETA ENPLEGUA
SORTZEKO ESTRATEGIA
INTEGRALA

Horretarako, ondokoak egingo ditugu:

- Lanpostua sortzea epaitegi horietako zerbitzua jarraitzeko eta kontrolatzeko.
- Informatikaren erabilera eta dokumentuen ereduak normalizatzea.
- Epaiketa bizkorak areagotzea, batez ere emakumeen kontrako tratu txarren eta sexu erasoen biktimen kasuan.
- Bitartekotza penaleko zerbitzuak hedatzea hiru lurraldeetan, aurretiazko akordioa errazteko eta kausa penal txikietan judizializaziorik ez izateko.

II.- Informatizazioa

- Justizia Informatizatzeke IV. Plana betearaztea, administrazio izapideak bizkortzeko eta murrizteko.
- Justiziaren arloko web orrialdeak hobetzea, herritarrei justizian gardentasunez eta hurbiltasunez sartzeko modua emateko eta datuak poliziekin eta beste administrazio batzuekin trukatzeko prozesua hobetzeko.
- JustiziaBat aplikazioa erabat ezartzea kudeaketa prozesaleko tresna gisa, oinarritzat espediente elektroniko judizialaren aldeko apustua duena eta epaitegietako lana bizkortuko duena.
- Epaileei laguntzeko unitateak sortzea eta espedienteen izapidetzea idazkaritza judizialek zuzendutako zerbitzuei esleitzea.

III.- Euskalduntzea

- Herritarren euskarazko eta gaztelaniazko arreta zerbitzua hobetzea Euskadiko bulego judizial guztietan.
- Helburu horrekin, Justizia Administrazioko Hizkuntza Normalizaziorako Plan berri bat sortuko da, euskaldunek justizian euskara erabil dezaten. Ondokoak lortuko dira plan horri esker:
- Epaitegietako pertsonalaren euskalduntzea bultzatzea.
 - Euskararen erabilera bultzatzea arlo judizialeko profesionalen artean.
 - Lege testuak itzultzea eta euskarazko dokumentuak normalizatzea.

IV. Gazte justizia

- Epaitegiak laguntzeko neurriak indartzea, Estatuko gailurrean izan gaitezen adingabeen gizarteratzearen aldetik.

V.- Justiziaren deszentralizazioa

- Botere Judizialaren Lege Organikoa aldatzea eskatzea, Eusko Jaurlaritzak egin ditzan "planta judiziala" eta urteko programazioak eta Euskadin epaitegiak sortzeko erabakia har dezan.
- Espetxeetako erakundeen transferentzia exijitzea berriz ere, espetxeetako egoerak humanizatzeko eta Gernikako Estatutua betetzeari erantzuna emateko.

17. arloa: Etorkinak eta garapenerako lankidetzaren gizarte ireki eta integratzaile batean

Gure hitza bete dugulako...

Euskadi solidarioagoa eta munduari irekia eraikitzeko konpromisoa hartzen dugu...

"eta Euskadi, gaur egun, aurrekontuaren % 0,7 nazioarteko elkartasunari 2012rako epealdian legez emateko konpromisoa hartu duten lehen nazioetako bat da. Legegintzaldi honetan, nabarmen egin du gora kooperaziorako erabilitako aurrekontuak eta munduko naziorik solidarioenetakoak gara dagoeneko. Gurean, Euskadik gure inguruko gizarte zerbitzurik zabal eta osotuenetako baten errespetua eskaintzen die etorkinei".

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu ...
... Etorkinei abegia berme osoz ematea eta Garapenerako Lankidetzarako Programetan % 0,7ko konpromisoa betetzea.

Hauek dira gure Konpromisoa eta Ekimenak...

I.- Inmigrazioa

- Euskadin erroldatzen diren etorkin guztiei ongietorria emateko protokolo bat egitea. Protokolo horren helburua haien eskubide eta betebeharrak guztiak ezagutaraztea da, gure gizartearen normaltasunez integra daitezen.
- Euskadin 3 urte baino gehiago daramaten paperik gabeko pertsonen erregulazioa erraztea.
- Inmigrazio Euskal Plan berria egitea, etorkinen seme-alabak hezkuntza sistemaren bidez Euskadin gizarteratzeko neurri espezifikoak izango dituen.
- Diru pizgarriak ematea euskara ikasteko, Euskadira datozen eta diru baliabiderik ez dutenen ikaskuntza errazte aldera.
- kuskapenak eta zigorrak igotzea etorkinen ezkutuko enpleguaren eta lan esplotazioaren kontra borrokatzeko.

II.- Garapenerako lankidetzaren

- Pixkanaka handitzea Euskadik Garapenaren Kooperazioari eginiko diru-ekarpena, aurrekontu orokorrean % 0,7raino.
- Garapenerako Lankidetzaren Legean ezarritako ekimen guztiak garatzea.
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia abiaraztea.
- Laneko aliantzak eratzea lankidetzako agentziarik aktiboekin.
- Lau urteko Plan Zuzentzaile berria egitea, euskal kooperazioaren helburuak, tresnak eta lehentasunak onesteko, eguneratzeko eta ebaluatzeko.
- Helburuen artean hauek ezarrita dituzten kooperazio egitarauetako lehentasunari eustea: herrialde eta ingurune behartsuenen berdintasuna, hezkuntza, osasuna eta ingurumena hobetzea.
- Euskal erakundeen nazioarteko elkartasuna sustatzea, irabazteko asmorik gabeko proiektuetan kooperazioaren arloko erakunde arteko koordinazioa bultzatuz.
- Baterako erantzukizuna bultzatzea euskal GKEekin kolaboratzeko plangintzan, erakunde horiek euskal elkartasun publikoan duten eginkizun garrantzitsua aitortuta.

18. arloa: Herritarren segurtasuna, bizikidetzarako bermea

Gure hitza bete dugulako...

Gure gizartearen segurtasuna hobetzeko konpromisoa hartzen dugu...

“eta Euskadi Estatuko erkidegorik seguruena da bizitzeko. Krimenen tasa Estatuko batez bestekoa baino askoz txikiagoa da, eta Europako batez bestekoa baino txikiagoa. Ez da kasualitatea epealdi berean Ertzaintzaren hedapena burutu ahal izatea”.

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... Euskadiko kriminalitate tasa Europar Batasuneko baxuenetakoa izatea lortzea.

... Ertzaintza Segurtasunaren Marko Europarrean (Schengen) integratzea.

Hauek dira gure Konpromiso eta Ekimenak...

1.- Herritarren segurtasuna

- Pertsona guztien segurtasuna bermatzea, bereziki terrorismoaren kontrako borrokan, eta Terrorismoaren Biktimekiko Elkartasunaren Legea garatuko dugu.
- Herritarren segurtasuneko patruila gehiago jarriko dira kaleetan, udaltzaingoen lankidetzan. Murriztu egingo dugu herritarren segurtasuneko patruilek parte hartzen duten zerbitzuetan erantzuna emateko batez besteko denbora, 6 minututik behera hain zuzen.
- Era berean, murriztu egingo dugu trafiko patruilek parte hartzen duten zerbitzuetan erantzuna emateko batez besteko denbora, 9 minututik behera hain zuzen.
- Genero indarkeriaren kontrako borroka indartuko da, eta gehitu egingo dira bizkartzainen polizi zerbitzuak eta prebentzio eta kontrol sistemak telefono bidezko abisuekin.
- Giza eta pertsona baliabideak gehituko dira talde antolatuak jazartzeko eta droga trafikoen eta talde kriminalen emakumeen esplotazioaren kontra egiteko.
- Emakumeen aldeko diskriminazio positiboko neurri berriak bultzatuko ditugu Ertzaintzan benetako berdintasuna lortzeko.
- Egiaztagirak lortzeko prozesuak hedatuko ditugu Ertzaintzaren unitate guztietan, kalitatearen kultura zabaltzeko polizi zerbitzuan.
- Udaltzaingoei koordinazioa indartuko dugu, polizi baliabideak hobetzeko eta herritarrenganako zerbitzu hurbilagoa emateko.
- Ertzaintzaren eta udaltzaingoen kultur anitzeko trebakuntza handituko dugu, herritarrei berdintasunezko zerbitzua emateko asmoz.
- Giza baliabideak eta delinkuentzia informatikoa, adingabeen kontrako delituak eta talde kriminalen kontrako espezializazioa handituko dugu.

II.- Bide segurtasuna

- Bide segurtasunaren arloan, gure konpromisoa zauri larriak edo heriotza dakarten trafiko istripuen kopurua % 30 murriztea da egungo egoerarekiko.
- Abiadura mugak kontrolatu beharra azpimarratuko dugu, baita gidatzea eta alkohola, drogak eta telefono mugikorra bateraezinak direla ere.
- Kanpaina espezifikoak egingo ditugu adinekoen zentroetan autoek harrapatuta hiltzen diren adinekoen kopurua murrizteko.
- Garraio profesionala kontrolatuko dugu (gidatzeko eta atsedean hartzeko denborak, abiadura mugagailuak eta ibilgailuaren teknika bereziak).
- Gizartea jabeatzeko kanpainak gehituko ditugu gidarien artean, ziklisten istripu kopurua jaisteko.
- Trafiko istripuetako biktimen elkarrekin batera ariko gara lanean, baldin eta haien helburuen artean trafikoaren biktimei giza laguntza eta laguntza psikikoa eta soziala ematea eta hobetzeko ekimenak proposatzea badaude.
- Trafiko espedienteen izapidetzea telematikoa bultzatuko dugu, herritarrak administrazioarekin harremanetan izateko etxetik.
- Bide Segurtasunaren Katedra bat sortzea bultzatuko dugu, garapen eta berrikuntza teknologikoa ikertzeko bide segurtasunaren arloan.
- Gure errepideen Sentsorizazio Plana bukatuko dugu, errepideen egoera uneoro zein den zehatz jakiteko eta informazio hori gidariari berehala jakinarazi ahal izateko.

III.- Larrialdietako zerbitzua

- 112 Larrialdi Zerbitzuari eginiko deien ondoren zerbitzua emateko beharrezko baliabide guztiak bi minutu igaro baino lehen mugiaraztea hitzartzen dugu.
- Larrialdi deietarako 112 telefonoarekin lotutako aplikazio informatiko berria ezarriko dugu. Konpromiso Kartak izenpetuko ditugu, larrialdian parte hartzen duen bakoitzak betetzea hitzartzen duen zerbitzuko betebeharren katalogo batekin.
- Baliabide materialak gehituko ditugu, baita Babes Zibileko boluntarioek duten eskuzabaltasuna zati batez behintzat konpentsatzeko prestakuntza espezifiko ere. Babes zibileko boluntarioen elkarrekin erregistro bat eta babes zibileko boluntarioen aholkularitza batzordea sortuko ditugu.
- Baterako marka eta irudia garatu eta ezarriko dugu Larrialdietarako Euskal Sistemarako, ezbeharra izan den tokian identifikatuko gaituena.
- Aurrearretaren aldeko apustua egiten dugu herritarrak babesteko eta larrialdiei aurre egiteko funtsezko metodo gisa: era askotako larrialdi "simulakroak" egingo ditugu eta enpresa kimikoen kanpoko larrialdietarako plan berriak onetsiko ditugu Europar Batasunaren SEVESO araudia aplikatzeko.

IV.- Jokoak eta ikuskizunak

- Interneteko jokoaren araupetzea aztertuko dugu nazioarteko adituekin, hiru helburu lortzeko: erabiltzaileen eskubide ekonomikoak bermatzea, ludopatiak prebenitzea eta iruzur fiskala ekiditea paradisu fiskaletatik eginiko joko jardueretan.
- 2010ean, telematika bidez eta erabateko balio juridikoaz egin ahal izango da administrazio izapideen % 95 Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzan.
- Inbertsio gehiago egingo ditugu Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizunen Unitaterako baliabide materialetan; bereziki entsegu laborategia, eta buruturiko lanaren kalitateari buruzko egiaztagiria lortu nahi ditugu bertan.



- Herritarrak, herri administrazioak eta enpresa antolatzaileak jabearazteko kanpainak indartuko ditugu publikoa sartzen den lokalen segurtasunaren eta ordutegiak betetzearen arloan.

V.- Hauteskunde prozesuak

- Euskadi erreferentea izango da hauteskundearen arloan, eta tresna teknologiko aurreratuak emango ditu, baita herritarrek erabaki publikoetan parte hartzeko eta boto eskubidea erabiltzeko bermeak ere.
- Hauteskundeetako emaitzak lehenago ezagutarazteko ahaleginak egingo ditugu, betiere bi orduko tarteak ez gaitzetzeko helburua izanik, hau da, hauteskunde-lekuak itxi eta gehienez bi orduren barruan jakinaraztea emaitzak herritarrei.
- Gizarte, kultur eta hezkuntza arloan erabakiak hartzeko eta galdeketa egiteko beste prozesuetako antolaketa koordinatua eskaintzen diegu gizarte elkartei eta erakundeei.
- Bozketa elektronikoaren ikerketa teknologikoaren aldeko apustua egiten dugu, arlo horretan arauak garatuta dituen administrazio lez dugun posizioari eutsita.

II. 3.- Hezkuntza eta kultur NORTASUNA, Euskadik munduan duen proiektzioaren eragilea: *“Pertsona prestatuak eta munduari irekiak”*

Euskal kultur nortasun berritua eta indartua.

Kultur eraldaketa handi batean gaude murgilduta. Abiada handian ari dira aldatzen sentitzeko eta jarduteko moduak, banakoarenak eta taldearenak, eta eragina dute elkarbizitza demokratikoa eta kohesio sozialaren eraikuntza eraikitzeke gizarte prozesuan. Kultura zabala, askotarikoa eta integrala dela ulertu behar dugu. Ez bakarrik bitarteko gisa, baizik eta norberaren eta taldearen garapenaren argumentu eta xede gisa ere bai.

EAJ-PNVn euskal kultura zabalaren aldeko apustua egiten dugu. Munduari irekita egon behar duen euskal kulturaren biziraupena eta garapena bermatuko dituen politikarekin konprometituta gaude. Bere nortasuna duen kultura, testuinguru globalean aitortua eta aitortzeko modukoa.

Nortasunaren kontzientzia funtsezko eragilea da komunitatea garatzeko. Baina euskal nortasunaren eraikuntzak prozesu irekia eta etenik gabekoa izan behar du. Ingurune globalak euskal nazioaren nortasun iragazkorra eta dinamikoa bideratzera behartzen gaitu, barne eta nazioarte mailako proiektzioa izateko asmo argiarekin. Herri lez dugun kontzientzia bultzatuko duen nortasuna.

Azken batean, XXI. mendeko herritarren eskariak eraginkortasunez betetzeko gai den nortasuna. EAJ-PNVren iritziz, funtsezko bi sustraitan oinarritu behar da euskal nortasun berritua sakontzean: euskara eta taldeko balioak nortasun erreferente gisa.

Euskara, euskal nortasuna komunikatzeko tresna gisa hizkuntza anitzeko testuinguru batean

Euskara Euskadiko berezko hizkuntza berezia da, eta euskal nortasunaren osagairik bereizgarriena eta nabarmenena da munduko kulturen multzoan. Euskara da elkarrekin bizitzeko oinarria askotariko nazio politiko eta ideologiko batean.

Euskal gizarteak eleanitza da, zeren gaztelania eta frantsesa ere gure hizkuntzak baitira. Horiek guztiek gero eta eremu handiagoa hartzen dute, mundu mailan nagusi den ingelesarekin batera. Beraz, hizkuntza anitzeko testuinguru batean bizi gara, globalizazio eta modernotasun prozesu zabalago batekin lotuta. Ondorioz, euskal gizartearen hizkuntza gaitasun handiagoaren aldeko jarduna egin behar da. Gaitze horretan, ezinbestean eta lehentasunez, politika positiboak eta oraindik minoritarioa den gure hizkuntza normalizatzearen eta gizarteratzearen aldeko jarrera aktiboak sustatu behar dira, hots, euskararen alde.



Balioak bultzatzea nortasun erreferente gisa

Euskal gizarteak aldatzen ari da; jokabide, jarrera, balio eta gizarte jardun nagusien ereduak dagokienez ere bai.

“Euskal izaera” definitzeko balio kode bat berregokitzeko apustua egiten dugu. Bizikidetzaren balioak, giza eskubideen errespetua, aniztasuna, berrikuntza, elkartasuna, banako eta taldeko erantzukizuna eta lankidetzak bultzatu behar ditugu. Balio horiek nagusitu behar dira eguneroko gure gizarte lanean; mundu global batean bereizgarri egin behar gaituzte.

Hezkuntzako bikaintasun eredua.

Euskal gizarteak dituen erronka nagusienetako bat hezkuntza eredu bikaina eraikitzea da, nazioarte mailan faktore bereizleetako bat izan dadin. Gure munduan funtsezkoa da ezagupen aurreratua sortzea eta erakartzea, eta gure hezkuntza ereduak landu beharreko erronka nagusienetako bat da datozen urteetan.

Gure hezkuntza bikainagatik izan behar dugu ezagunak. Nazioarteko egoera berriak pasaden mendekoak ez bezalako hainbat balio eta gaitasun dituzten profesionalak behar ditu. Ezagutzaren gizartean arrakasta izateko jakin-mina, ikerketa, ikaskuntza, lankidetzak, arriskua, nazioarteko merkatuetan jarduteko gaitasuna, aniztasuna edo elkartasuna beharrezko ezaugarrietako batzuk badira, gure hezkuntza sistemak are gehiago sakondu behar du balio horien ikaskuntza eta bizipena sustatu behar du are gehiago haurtzarotik hasita.

Arrakasta esperientzietatik ikasi eta adostutako jardunbide bat bideratu behar dugu Euskadin etengabeko hobekuntza irmoki bultzatzen duten hainbat eragileren artean. Epe luzeko itun bat lortu nahi da Euskadiko alderdi politikoen, sindikatuen eta gizarte, ekonomi eta kultur erakundeen artean, hezkuntza sistema berritzailea eta bikaina eraikitzeko.

Hezkuntza sistemaren kalitatean datza etorkizuneko Euskadiren gizarte-ekonomiaren arrakastaren zati handi bat, baina prestakuntza eta hezkuntza integralaren arteko osagarritzat hartu behar da kalitatea.

Pertsona prestatuak. Pertsona irekiak. Balioak dituzten pertsonak. Bere nortasunaz eta kulturaz harro dauden pertsonak. Azken batean, etorkizuna irabazteko pertsonak. Horiexek dira nortasuneko egoera bat bideratzeko oinarritzko tresnak, betiere munduari irekita.

Identitatea

Gure konpromisoa pertsonak dira

“Pertsona prestatu eta munduarekiko irekiak”

Arlo estrategikoak:

19. Hezkuntza iraunkor eta bikaina
20. Kultura, euskal gizartearen garapen pertsonal eta kolektiboaren zerbitzura
21. Euskara, hizkuntza asko dituen gizarte baten berezko mintzaira
22. Diaspora, Euskal Herriak munduan duen ispilua
23. Gazteria, gure etorkizunaren gordetzailea
24. Kirola, gure nortasunaren ikurra
25. Kanpoko Erakunde Proiektzioa, Herria eraikitzeko konpromisoa

19. arloa: Hezkuntza iraunkorra eta bikaina

Gure hitza bete dugulako...

Hezkuntza hobetzeko konpromisoa hartzen dugu gizarteratzearen eragilea den aldetik...

“eta gure historian ondoen prestaturiko gazteen belaunaldia heztea lortu dugu. Gazteen % 80k maila ertaineko edo goreneko hezkuntza du, Euskadin ikasleko dagoen hezkuntzako gastua Estatuko altuena da eta eskola arrakastaren tasa Europako batez bestekoaren gainetik dago”.

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

...Eskolako arrakastaren tasa % 95eraino igotzea eta informazioaren teknologiak hezkuntza sisteman integratzea, ikasle bakoitzari ordenagailu bana zuzkituz.

Hauek dira gure Konpromisoa eta Ekimenak...

1.- Haur, lehen eta bigarren irakaskuntza eta pertsona helduentzako hezkuntza:

- Euskal Hezkuntza Sistemaren Legea onestea ahalik eta partaidetza sozial eta politikorik handienaren bidez, XXI. mendeko hezkuntzako erronka handiak lantzeko, hezkuntza sektoreek eta Eusko Legebiltzarreko gehiengo zabal batek konpartitua.
- 0-2 urtekoen hezkuntza lehen hezkuntzako sarean txertatzea plazen eskaintza osoa bermatu ahal izateko, betiere integrazio pedagogikoa erraztuz.
- Hizkuntza ereduak eguneratzea, ikasleek pixkanaka gaitasun osoa lor dezaten euskaraz eta gaztelaniaz, baita gaitasun egokia ere Europako hirugarren hizkuntza batean. Hizkuntza normalizazioa ere erronka da hezkuntzaren arloan hizkuntza anitzen testuinguruan. Hauxe da gure konpromisoa: hizkuntza helburu lorgarriak ezartzea eta pixkanaka finkatzea.
- Hezkuntzako finantzazioa egokitzea, gero eta eraginkortasun handiagoz eskolako sareetan aplikatzeko hezkuntza maila guztietarako baliabide garrantzitsuak, lanbide eta unibertsitateko oinarritzko irakaskuntzako eskola sareetan eta sare osagarrietan.
- Ikastetxeen eta irakasleen autonomia handiagoa erraztea, nahiz barne antolaketan, nahiz curriculum proiektu espezifikokoak egitean.
- Ikasle bikainen kopurua bikoiztea OCDEren konparaziozko frogetan ebaluatzen diren curriculumeko arloetan (irakurketa, matematika eta zientziak). Horretarako, “gaitasunen araberako curriculum” bizkor aplikatzea bultzatuko da, banakoaren, ikastetxearen eta euskal hezkuntza sistemaren mailako urteko hobekuntzak ebaluatuz eta ezarriz.
- Informazioaren teknologiak curriculumean eta tresnerian txertatzea hezkuntza maila guztietan. Helburu horrekin, ordenagailu kopurua handituko da ikasgeletan: ikasle bakoitzeko ordenagailu bat izango da euskal hezkuntza sisteman.
- Balioetan oinarrituriko hezkuntza planak garatzea, haurtzarotik bultzatu nahi diren balioen kodearen ildotik: bizikidetzatza, giza eskubideak errespetatzea, aniztasuna, berrikuntza, elkartasuna, banako eta taldeko erantzukizuna eta lankidetzatza.
- Hezkuntzako profesionalei prestakuntza iraunkorrerako pizgarriak ematea, horiek baitira benetako eragileak hezkuntzaren, hezkuntzako administrazioaren, irakasleen, zuzendari taldeen, hezkuntza bereziko pertsonalaren, etab. arloan.

- Irakasleek gizartean duten eginkizuna goraipatzeko eta aintzatesteko kanpainak bultzatzea.
- Ikastetxeetan jatorrizko irakasleak kontratatzea eta trukatzeko bultzatzea ikasleen ahozko ingeles maila hobetzeko.
- Hizkuntzetako irakasleak etengabe hobetzeko programa bat ezartzea hitz egitera bideratuta. (Ingelesezt mintzo diren herrialdeetan trebatzeko ikastaroetarako bekak, jatorrizkoekin hitz egiteko programak Internet bidez, elkartrukeak, etab.).
- Lehen hezkuntzatik eskola porrota izateko arriskuan dauden ikasleei hezkuntza laguntza eta laguntza psikosoziala emateko aurrez aurreko plan bat abiaraztea.
- Eskola arrakasta eta bikaintasuneko jardunei eta programei eustea eta ikastetxeetan egokitzeko eta orokortzeko prozesua erraztea.
- Hezkuntza Azpiegiturak Hobetzeko Plana aurreratzea eta garatzea, ikastetxeen instalazioak euskal gizartearen beharretara egokitu ahal izateko.
- Pertsona helduentzako hezkuntza sakontzea eta hedatzea Europar Batasuneko herrialderik aurreratuenen mailaraino.

II.- Berrikuntza Pedagogikoa eta hezkuntza sistemaren kalitatearen hobekuntza:

- Euskal Hezkuntza Sistemaren jardunbide eta emaitzen ebaluazioak areagotzea irakasletza, ikastaldi eta kudeaketa alorretan eta kalitatearen egiaztaketa eta ziurtapen prozesuetan.
- Irakasle goaren baldintzak hobetzea, bereziki haien hobekuntzan eta antolaketa esparruaren hobekuntzan, irakasleentzako euskarri informatikoen zuzkidura eta elkarrekiko lotura iraunkorreko sare digital baten sorrera barnebilduz.
- Eskola jardueran ikasleen eta familien parte hartzea zabaltzea bai eskola orduetan baita eskolaz kanpoko orduetan ere.
- Derrigorrezko Irakaskuntzan, Batxilergoan eta Unibertsitatean orientazio, tutoretza eta aholkularitza zerbitzuak bultzatzea orientazio zerbitzuen lotura sarea sendotuz.
- Ikasle etorkinen harrera programa berriak garatzea, haien heziketa, hizkuntza eta kultur gizarteratze maila handiena bizkortzeko.
- Eskolaz kanpoko jarduerak indartzea ikasleen prestakuntza jardueretik hezkuntza zentroek egin dezaketen ekarpen estrategiko gisa.
- Ikastetxeetan hasitako kalitate prozesuekin jarraitzea eta ziurtapena ezartzea Euskadiko berrikuntza pedagogikoan.

III.- Lanbide Heziketa:

- Lanbide Heziketa Okupazional eta Iraunkorraren transferentzia eraginkorra lortzea kontzertu ekonomikoaren sistemarekin bat datozen finantzaketa irizpideekin.
- Euskal Lanbide Heziketa Legea onartu eta garatuz, Lanbide Heziketaren azpisistema guztien integrazioa ahalbidetzea eta, era berean, berrikuntza sustatzea kalitatearen ikur bezala eta ikastetxe eta enpresa erakundeen arteko koordinazioan sakontzea.
- Lanbide Heziketako Euskal Plan berria erabaki eta onartzea, era horretara, lanbide heziketa hemengo eta nazioarteko lan merkatuetan sartzeko ahalbidetuz.
- Parte hartzea gehitzea erdi mailako lanbide heziketan.
- Orientazio eta tutoretza zerbitzuak sendotzea laneratzea lortzeko edo goi mailan prestakuntzarekin jarraitzeko.
- Lanbide Heziketako giletan irakasle eta ikasleen arteko komunikazioa eta elkarrekintzarako ordenagailuaren erabilera bermatzea.
- Lanbide Heziketako zentroetan autoenplegua eta enpresa berrien sorrera bultzatzeko jarduerak sustatzea.



IV.- Unibertsitateko Irakaskuntza:

- Unibertsitateko jardueren garapenerako beharrezko finantzaketa bermatzea irakaslegoaren eta ikertzaileen prestakuntza ahalbidetzeko. Era berean, beharrezko mekanismo guztiak abian jarriko dira askitasun eta programa kontratuen abiaburua bermatu eta kalitatearekin, etengabeko hobekuntzarekin, ikerketarekin eta berrikuntzarekin konpromiso argia duen unibertsitatea lortzeko.
- Goi mailako hezkuntzaren europar gunean, euskal unibertsitate sistemaren integrazioarekin jarraitzea eta horrek irakaskuntza-ikaskuntza metodologiaren eta irakasleen berrikuntza, irakasletzan kalitatearen aitortzea eta nazioartean aintzatetsia den ikerketaren sustapena dakar nahitaez.
- Kalitatea oinarri izango duen ikasketa eskaintza egitea euskal unibertsitateen indar akademikoa eta goi mailan prestatutako pertsonak behar dituen gizartearen eskabideak bateratuz.
- Euskal unibertsitateen eta nazioarteko izen handiko unibertsitateen arteko hitzarmenak sustatuz, Euskadin graduondoko gorentasun zentroak bultzatzea.
- Unibertsitateen eta enpresa sarearen arteko irakasletza eta ikerketa aurreratuari buruzko ereduak programak sustatzea.
- Unibertsitateko ikerketa arloan, irakasletzan eta kudeaketan gorentasuna bultzatzea ordainsari-osagarrien ebaluazio eta berrikuspenaren bitartez.
- Ikasle zein irakasleentzat mugikortasun bekak hobetzea.
- Batez beste bikain duten unibertsitateko ikasle onenei gorentasun bekak ematea. Horrez gain, "Basque Fellowship Program" sortuko da Euskadiko ikasle bikainek nazioarteko ereduak zentro onenetako programa, irakasletza proiektu zein ikerketa arlokoetan parte har dezaten.
- UPV-EHUko irakasletza, ikerketa eta kudeaketa arloak laguntzeko administrazio eta zerbitzuak langilerian beharrezko plazak sortzea Estatuko unibertsitateen batezbestekoa lortzeko.
- UPV-EHUko Campusen garapenerako Inbertsioen Urteaniztuneko Plangintzaren finantzaketa sendotzea, besteak beste, ondoko jarduketak barnebilduz: Bizkaian, Parke Zientifikoa sortu, Leioa-Erandio ingurualdearen erreformarekin jarraitu eta Sarriko Campus Juridiko-ekonomikoa zabaltu; Gipuzkoan, Carlos Santamaría Zentroa abian jarri, egoitzetan plaza eskaintza zabaltu, ikertzaile euskaldun eta atzerrikoentzako egoitza bat sortu eta "José Mari Korta" zentroa zabaltu; Araban, ikerketa eta ikasketa aurreratuaren zentroa (CIEA) abian jarri, Heziketa Fisikoa eta Kirol Zientzien Fakultatearen erreforma bukatu eta Alde Zaharrean ikasle eta irakasle bisitarientzat egoitzak sortu.

20. arloa: **Kultura Euskal gizartearen garapen pertsonal eta kolektiboaren mesedetan**

Gure hitza bete dugulako...

Kultur garapenaren aldeko konpromisoa hartu genuen ...

“eta legegintzaldi honetan, adostasun handiarekin onartu dira Museoen Legea eta Liburutegien Legea. Munduan euskal kultura zabaltzeko Etxepare Institutua eta Kulturaren Euskal Behatokia sortu dira eta, aldi berean, Kulturaren Euskal Plana garatu da”.

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu ...

...Kulturaren arloko azpiegitura berriak bultzatzea: Guggenheim Urdaibai Museoa, Gasteizko Erakusketa eta Kongresu Jauregia, eta Kultura Garaikideko Donostiako Nazioarteko Zentroa (Tabakalera).

Hauek dira gure Konpromisoa eta Ekimenak...

I.- Kultur Ondarea eta Kultur Azpiegiturak

- Kultur Ondare, Museo, Liburutegi, Artxibo eta Agiri Ondareari buruzko legeen garapena.
- Kultur Ondarearen Ikerketa Zentroa ZAIN bultzatzea Gasteizen (kultur ondareari aplikatutako I+G+B) eta Andra Maria Katedrala berritzeko faseekin aurrera jarraitzea.
- Ondarenet, Euskal Kultur Ondarearen artxibo digitalaren garapena.
- Euskadiko Artxibo Historiko Nazionala abian jartzea.
- Euskadiko museo eta bilduma museografikoetarako on line sarea ezartzea.
- Euskal Herriaren Historia eta Gizartearen Museoaren zehaztapena eta garapena Euskadiko Museoen Sistema Nazionalaren eredu gisa.
- Euskadiko Museoen Batzorde Aholkuemailea garatzea.
- Nazioarteko Kultur Erakundeak Erakartzeko Plangintza abiaraztea, erakunde berriak erakartzeaz gain, beste herrialde batzuetako arte erakundeekiko lankidetzak sareak ezarri ahal izateko; hori guztia, Euskal ARTS Hiria garatze aldera.
- Beste erakunde batzuekin batera, Guggenheim Urdaibai Museoa bezalako kultur azpiegitura estrategiko berriak bultzatzea eta abian diren egitasmo estrategikoak garatzea: Gasteizko Erakusketa eta Kongresu Jauregia eta Kultura Garaikideko Donostiako Nazioarteko Zentroa Tabakalera.

II.- Irakurketaren sustapena

- Euskal Liburutegi Digitala abiaraziz, zerbitzu presentzialak zein urrutiko sarbidekoak izango dituen Euskadiko Liburutegi Nazionala garatzea.
- Irakurketa Publikoaren Sarean 2.0 on line teknikak ezartzea.
- 0 eta 6 urte bitarteko umeei zuzendutako irakurketa ohiturak suspertzeko kanpainak bultzatzea.
- Euskaraz literatura unibertsaleko katalogoa osatzea.
- Euskal liburuak eta literatura sustatzeko plan bat sortzea.



III.- Kulturaren Sustapena

- Hemezortzi urte betetzen dituzten gazteentzat "kulturan sartzeko" programak ezartzea, Euskadin urtebeteko kultur kontsumoa eskainiz.
- Euskal Herriaren eta euskal diasporaren esparru guztiak hartzen dituen euskal kultur erkidego osoan kultur jarduerak egituratzeko asmoz, Kulturaren Euskal Plana bultzatzea.
- Euskadin eta Euskadi abiapuntutzat harturik, kultur industria eta eragileak sustatuz, bertako eduki eta produktuen sormena bultzatzea.
- Artista eta kultur kudeatzaileen elkartrukea ahalbidetzeko asmoz, nazioarteko mugikortasun plan berria sortzea. Era berean, Europako zine eskola nagusienetan ikus-entzunezkoen euskal sortzaileen presentzia errazteko beka berriak ematea.
- Arte Eder eta Arte Eszenikoen arloetan, unibertsitate programa berriak sustatzea.
- Kultur eduki berriak sortzeko eta zabaltzeko xedez, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza zentroak bultzatzea.
- Kultur Elkartegien Sarea sortzea, kultura arloko industrien garapen eta sustapenerako abiagune berri gisa.
- Etxepare Institutua abiapuntutzat harturik, euskal hizkuntza eta kultura nazioartera zabaltzeko plangintza zehaztea eta betearaztea: euskara, ikusizko arteak, dantza, antzerkia, musika, zinea, ikus-entzunezkoak, liburuak eta literatura.
- Nazioarteko Arte Beken Plangintza ezartzea euskal artista eta sortzaile gazteak ereduzko ikastegietara joateko aukera izan dezaten.
- Arte eta Kultur Industrien Institutua (IVAIC) sortzea eta Euskadin kultur edukien sormena, ekoizpena eta zabalkundea, bereziki euskarazkoena, sendotzeko beharrezko pertsona eta baliabideen zuzkidura bermatzea.
- Kulturaren Euskal Behatokia sendotzea, kultur plangintzaren eta kultur politiken esparruan nahitaezko informazio tresna gisa.
- Informazioaren Sozietatean, Euskadi Planean, kultura arloa sendotzea: Euskal Kulturaren Elkarreaginezko Ataria.
- Europako beste herrialde batzuetako arte erakundeekin lankidetzak sareak ezartzea.
- Munduan Euskadiko kultur enbaxadoreen sarea bultzatzea.

IV.- Musika eta Arte Eszenikoak

- Dantzaren Koreografi Zentro Nazionala sortzea, Euskadi eta nazioarteko zirkuituetan aurkez daitezkeen maila ertain eta handiko proiektu koreografikoak ekoizteko eta koprodukzioetan parte hartzeko.
- Euskal musikaren Ataria sustatzea eta musikari eta sortzaileen euskal elkarte bat sortzeko bidea erraztea.
- Euskal musika ondarea berreskuratzeko eta zabaltzeko bide berriak bultzatzea, lurralde bakoitzean, kalitatezko euskal elkarte koralek oraina eta geroa bermatzeko.
- "Dantza Etxeak", dantzarako baliabideen lurraldeetako zentroetan inbertsioa igo eta beren koordinazioa eta elkarren arteko lana sendotzea.
- Dantzaren eta eszena tradizionalaren gaineko agiriaren kudeaketa eta artxiboaren sistema egituratzea.
- Oinarrizko eta erdi mailako zikloetan, dantza zentro arautuen Sarea osatzea eta dantzaren goi zikloa abiaraztea.
- Babes eta laguntzarako neurriak sortzea dantzaren munduan sormen eta ekoizpen proiektuak eta taldeak edo konpainiak sendotze aldera.

- Antzerki taldeen egoitza politika bultzatzea ikastetxe publikoetan, aurrez erabakitako helburu argiak ahaztu gabe eta sentsibilizazio, sormen, ekoizpen eta zabalkunde arloak neurgarriak izanik. Era berean, kale antzerkia ere kontuan hartuko da.
- SAREA Euskal Antzokien Sarean, kalitateko nazioarteko taldeen presentzia indartzea eta euskal taldeen parte hartzea gehitzea, batez ere, gazte eta helduei zuzendutako proposamenak eskaintzen dituztenenak.
- Titulartasun publikoko antzokiek antzerki eta dantza ekoizpenak gauza ditzaten babes osoa ematea.
- Estatu mailan euskal antzerkia ezagutzera ematea.
- Ikastetxeetan arte eszeniko eta dramatikoaren presentzia sustatzea.

V.- Ikus-entzunezkoen Sustapena

- Ikastetxeetan ikus-entzunezko kulturaren prestakuntza bultzatzea (sentsibilizazioa pirateriaren aurrean, ikus-entzunezkoari buruz emango diren edukiei buruzko sistematizazioa...).
- Euskal komunikazio alorrari dagokion proposamen osoa eta koherentea egituratzea eta, horretarako, Ikus-entzunezkoaren Legea sortzea.
- Nazioartean lehiatzeko gai izango diren ikus-entzunezko euskal produktuen garapenerako plangintza berezia abiaraztea.
- Ekintza plana ezartzea zine aretoetan, DVD eta euskarri berrietan euskarazko zinea sustatzeko.
- Euskarazko ikus-entzunezko edukien kalitateko bikoizketaren etorkizuna bermatzea.
- Atzerriko merkatu, foro zein jaialdietan, ikus-entzunezko lanak sustatzea herrialdeko ikus-entzunezko guztien babesa izango duen marka bateratu batekin.
- Teknologia berrien aurrean ikus-entzunezko sektoreak bizi duen egoera aztertzea.

VI.- Komunikabideak

- Oraintsu sortutako ETB3 katea sendotzea eta ETB4 abiaraztea.
- Onda metrikoetan, frekuentziaren modulazioarekin, soinu irrati-difusio zerbitzuaren adjudikazioa araupetuko duen marko arauemailea onartzea.
- Euskal komunikazio eremuaren proposamen osoa eta koherentea egituratzea.
- 2011/2014 epealdirako EITBren kontratu programa berria onartzea.

21. arloa: Euskara, gizarte eleaniztunaren berezko hizkuntza

Gure hitza bete dugulako ...

Euskararen normalizazioarekin konprometitu ginen ...

“...eta egindako lanaren ondorengo emaitzak ikusgarriak dira. Egun 800.000 elebidun baino gehiago daude, horietatik 300.000 euskaldun berriak dira. Hamabost urtetik gorako herritarren artean, euskarak 118.000 hiztun irabazi ditu hamabost urtetan eta adinaren piramidean alderantzikatu egin da erabat: egun biztanleria gaztearen elebitasun maila handiena da, 16 urtetik beherako biztanleen % 75, hain zuzen ere”.

Aurrera egiteko erronka berria dakargu orain ...

...Gizartean euskara erabiltzeko urrats sendoak ematea, benetako elebitasun eraginkorra gauzatze aldera.

Hauek dira gure Konpromisoa eta Ekimenak...

I.- Sentsibilizazioa eta Sustapena

- Hasierako urratsetan, euskararen ikaskuntza erraztea, lehenengo mailetan euskara erraza eskainiz eta hasierako maila horietako (A1 eta A2) oinarritzko ezaguerak, Europako markoan homologaturik daudenak, eskuratuko direla ziurtatuz.
- Gazteen, euskaldun berrien, etorkinen eta aisialdiaren alorrean jarduten dutenen eremuan euskararen erabileran eragin zuzena duten egitarauak laguntzea lehenestea.
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) eguneratzea “Euskara 21: XXI. Mendeko Hizkuntza Politikarako Oinarriak” eztabaida saioan ezarritako oinarritzko abiaburuekin bat etorritik.
- Etengabe sentsibilizazio ekintzak abiaraziz, egungo gazte euskaldun berrien eta beren seme-alaben arteko euskararen transmisioa bermatzea.
- Euskara komunikazio eta kultur sormenaren mintzaira bihurtzea, euskal gizartean partaidea izateko sentimendu guztiak integratuko dituen identitatea eratzeko gai dena.
- Euskara jarrera alderdikoi eta baztertzaile guztietatik babesteko eta gizarte elebidunaren eraikuntza denon zeregina dela guztiek beregain har dezaten etengabeko jarrera eta lana bultzatzea.

II.- Komunikabideak eta teknologia berriak

- Euskarazko komunikabideetan berrikuntza prozesuak era selektiboan bultzatzea ondoko irizpideetan oinarrituz: bideragarritasuna, gorentasuna, eskariaren araberakoa izatea, edukien ekoizpena, euskarri berriak ...
- Frekuentzia modulatuaren irratian emanaldietarako lizentzia ematean euskararen presentzia bermatuko duten hizkuntza irizpideak zehaztea lurreko toki telebista digitaletarako ezarritakoari jarraituz.

- Euskara garapen teknolinguistikoaren abangoardian kokatzea: Internet, sistema elkarreragile aurreratuak (ahots teknologiak, telefonia mugikorra), ezagueraren eta informazioaren kudeaketa, euskarazko software, e-inklusioa.
- Ondoko egitasmo zehatzak garatzea: itzultzaile automatikoaren aplikazio berriak (euskara-gaztelania, euskara-ingeles, euskara-frantsesa), corpus orokorrak –XXI. mendean euskararen ereduzko corpusa eta itzultzaile automatikoan aplikatzeko corpus elebidun etiketatua-, eta euskarazko entziklopedia digitala.

III.- Erabileraren sustapena

- Euskara ikasteko banako diru-laguntzetarako zuzkidura gehitzea, HABEren 1. urratsa edo horren baliokidea eskuratzen duten ikasleen hasierako mailetan bereziki.
- Euskaltegien sarea sendotzea, urtero 8.000 euskaldun berri izan daitezen.
- Euskararen erabilera sustatze aldera aukera berriak erraztuko dituzten kalitateko produktu eta zerbitzuak sortzea, batez ere, biztanleriaren dentsitate handieneko udalerrietan, hau da, hiriburuetan eta beren inguruetan.
- Euskararen erabilera eremuak sendotzea euskal hiztunen artean.
- Gazteriaren astialdi eta aisialdiko jardueretan euskararen erabileraren normalizazio osoa sendotzea.
- Helduen euskalduntzearen arloan, euskaltegi sarearen ikasketa eskaintzen aniztasuna eta kalitatea sendotzea presentziazko zein semi-presentziazko ikastaro eta autoikasketakoen bitartez.
- Etorkinentzat lehen mailako ikastaroak (AISA) eta ondorengo ikasketa orokorreko ikastaroak sustatzea.
- Euskararen Erabilera Planak administrazio publikoen eremuan zabaltzea.
- Nafarroako Gobernuarekiko lankidetzan sakontzea, bi erakundeen arteko begirune maila handiengan euskarrituko den lankidetzat markoa eratuz.
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) 5.000 biztanletik beherako udalerrietan eta, bereziki euskal hiztunen kopurua txikia den tokietan zabaltzea.
- Etxepare Institutuaren bidez, euskara eta euskal kultura atzerrian sendotzea. Euskal gizataldeetan euskara ikasteko aukerak zabaltzea.

IV.- Arlo sozio-ekonomikoa

- Lan arloan hizkuntz normalizaziorako egitarauak sustatu eta bultzatzea, 32.000 enpresetan helburu hori lortzeko eta hizkuntz normalizazio planak dituzten enpresen kopurua % 50 handitzeko asmoarekin.
- Bikain Hizkuntz Kalitatearen Ziurtagiria kreditatuko duten enpresa eta establezimenduen kopurua % 500 gehitzea.
- 123/2008 Dekretua dela bide, kontsumitzaile eta erabiltzaileen hizkuntz eskubideak bermatzea eta, era berean, enpresa eta establezimenduetarako laguntzak gehitzea aurrez ezarritako betekizunetara mailaka eta etengabe egokitzen joan daitezen.

22. arloa: Diaspora, Euskal Herriaren erreferentzia munduan

Gure hitza bete dugulako...

Munduan diren Euskal gizon eta emakumeekiko harremanak estutzeko konpromisoa hartu genuen ...

“eta Ibarretxe Lehendakariak munduan diren euskal gizatalde guztiak bultzatu eta babesteko konpromiso pertsonala beregain hartu du. Azken aldian egindako bisita eta Gobernuaren ekintzari esker, euskal gizatalde horiek elkartuago daude eta inoiz baino arreta handiagoa jasotzen dute euskal erakundeetatik”.

Aurrera egiteko beste helburu bat dakargu orain ...

... Euskal diasporak euskal erakundeetan duen ahotsa indartzea eta euskal kolektiboen artean lanbide arloko profil eta ezaugarri egokiak dituzten pertsonak bilatzeko egitaraua sortzea, etorkizunari begira gure harremanak sendotzeko asmoz.

Hauek dira gure Konpromisoa eta Ekimenak...

- Prestakuntza jasotzeko beka berriak eta euskal enpresetan egingo diren praktika kontratuak eskaintzea, atzerrian diren euskal kolektiboetan lanbide arloko profil eta ezaugarri egokiak dituzten pertsonak bilatzeko.
- Euskaletxeak.net sare birtuala bultzatzea, munduan euskal jatorria duten pertsona guztiak harremanetan jartzeko atari bilaka dadin.
- Euskal jatorria duten enpresaburuen sarea bost kontinenteetara zabaltzea.
- Euskal Kolektiboen V. Mundu Biltzarra egitea.
- Munduan 16 Euskal Etxe berri sortzen laguntzea.
- Euskal Gizataldeetako pertsonak helburu izango dituen gizarte laguntzarako programa zehatza sortzea Gernikako Estatutuaren 7.2 artikulura bildutakoarekin bat etorritz. Artikulu horretan aipatzen ez diren pertsonentzat Euskal Gizataldeetako behartsuenei zuzendutako laguntza programak % 12 gehituko dira legegintzaldian zehar.
- Gaztemundu programan parte hartzen duten gazteen kopurua % 10 gehitzea.
- Diasporaren memoria historikoaren berreskurapen lanarekin jarraitzea.
- Euskal Etxeen bitartez, euskal kulturaren sustapena eta zabalkundea ekonomikoki laguntzea.
- Ekonomikoki euskal etxeak laguntzea, bertako gazte eta zuzendarien prestakuntza hobetzea eta azpiegiturei eusten laguntzea.

23. arloa: Gazteria, gure etorkizunaren hartzaile

Gure hitza bete dugulako...

Euskal gazteriaren etorkizunaren aldeko apustua egiteko konpromisoa hartu genuen...

“eta legegintzaldi honek euskal gazteriaren hiru erronka nagusiak konpontzen hasteko balio izan du: hezkuntza, etxebizitza eta lana. Gure gazteriaren % 80ak erdi mailako edo goi mailako ikasketak ditu. Milaka gaztek eskuratu ahal izan du etxebizitza babestu bat erosita edo alokairuan, eta inoiz baino gazte gehiago laneratu da krisi garaian egonda ere”.

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... 18-25 urte bitarteko gazte guztiei erabilera partekatuko gizarte alokairuzko etxebizitza eskaintzea.

Hauek dira gure Konpromisoa eta Ekimenak...

I.- Prestakuntza egokia eta lanerako orientazioa errazteko neurriak

- Laguntza publikoak areagotzea, lantegietan Praktiketako Heziketaren modulua egiteko Lanbide Heziketako ikasleak hartzen dituzten enpresentzat.
- Lanbide orientazioko ekintzak bultzatzea, lana topatzea errazteko eta gazteen autoenplegua sustatzeko.
- Sentsibilizazio eta aholkularitza programak zabaltzea, landa esparruko sustatzaileentzat eta gazte ekintzaileentzat.
- Lanbide kualifikazioaren aldeko apustua, gazteen laneratze maila areagotze aldera.
- Laneratzea areagotzen duten prestakuntza egintzei zuzendutako jarduera protokoloa ebaluatu eta berrikustea Lanbideren bitartez.
- Babes neurriak areagotzea, gazteei zuzendutako praktiketako eta prestakuntzako lan kontratuak errazteko. Horien bitartez, prestakuntza, eskarmentua eta laneratzea hobetu nahi dira.

II.- Neurri zuzenak laneratzearen alde egiteko

- Gazteen lana eta gazte ekintzaileen enpresa ekimenak sustatzeko laguntza publikoak hobetzea.
- Laguntzak langabezia dauden gazteen kontratazio mugagabea bultzatzeko.
- Laneratze zailtasun gehien dituzten taldeetako gazteak kontratatze babesa.
- Gazte langabetuak ekonomia sozialeko enpresetan sartzen direla sustatzea.
- Txandako lan kontratua sustatzea, erretiratze adinetik gertu dauden langileak lanetik erretiratzearen ondorioz egindako kontratazio berriak babestuz.

III.- Etxebizitza bat eskuratzea errazteko neurriak

- Gazteen emantzipaziorako laguntzak, 18 eta 25 urte bitarte eta urtean 6.000 € oso baino gutxiagoko diru sarrerak dituzten gazteentzat. Horretarako, erabilera partekatuko alokairu sozialeko etxebizitza poltsa sortuko da, alokairuaren errenta % 80an estaltzeko diru laguntzekin batera.



Laguntzak etxebizitzaren tamainaren eta bertan bizi den pertsona kopuruaren arabera zehaztuko dira.

- Gazte kooperatibek etxebizitza babestuak sustatzeko laguntza berriak.

IV.- Osasunaren alde egiteko neurriak

- Programa berriak bizi ohitura osasuntsuak hartzen direla sustatzeko eta droga mendetasuna, sexu bidez hartzen diren gaixotasunak, nahi ez diren haurdunaldiak eta elikadura nahasmenduak prebenitzeko.
- Berariazko programak trafiko istripuak prebenitzeko.
- Euskal gazteen artean natura mantentzeko ohiturak, baliabide naturalak arrazoiz erabiltzekoak, birziklapena, energia berriztagarrien erabilera nahiz ingurumenarekin errespetuzkoak diren jokabideak sustatzea.

V.- Gazteen mugikortasunerako neurriak

- Gazteen garraiorako txartel bakarra sustatzea.
- Ikasleen nazioarteko truke programa berria martxan jartzea, 18tik 29 urte bitarteko gazteentzat. Helburua atzerrian hizkuntzak ikastea izango da.
- Truke programak bultzatzea, beste kultura errealtate batzuetako gazteekin eta gazteen turismoaren bitartez.
- Gazteriari zuzendutako programa europarrak bultzatzea.
- Europako Boluntariotzaren Zerbitzua eta Nazioarteko Boluntariotza Zerbitzua sustatzea.

VI.- Neurriak elkartegintzaren eta gazteen boluntariotzaren alde egiteko

- Gazteen partaidetza bideak sendotzea eta gazteen partaidetza aktiboa bultzatzea.
- Hezitzaile soziokulturalak prestatzeko sustapena.
- Gizarte boluntariotzako eta lankidetzako programak bultzatzea.
- Babes ekonomikoa gazteen elkarte sareari.

VII.- Gazteen aisialdia eta kultura sustatzeko neurriak

- Gazte Txartela unibertsala bihurtzea gazte guztientzat eta haren onurak hedatzea, urtean gutxienez 1.200 euroko deskontu txartelak egingo direla bermatuz. Deskontuak zerbitzu soziokulturaletan (musika, antzerkia, museoak...), kirolekin eta dendetan (moda, estetika, osasuna, autoeskolak) eskuratuko lirateke.
- Gazteen topaketarako egungo lokal sarea bikoiztu egingo da (Gaztelekuak-Gaztetxokoak), udalekin lankidetzan arituz.
- Gazteen informazioa eta teknologia berriak sustatzea, Gazteukera atariaren bitartez.
- Gazteen kultura, arte eta musika sormena sustatzea, eta Euskadi barruan nahiz kanpoan barreiatzea.

VIII.- Neurriak gazteriari buruzko politika integrala sustatzeko

- Gazteriaren Legea onartzea, negoziazio oinarri modura joan den legegintzaldian onartutako proiektua hartuz.
- Gazteriaren Euskal Behatokia sendotzea, gazteriako politika integralak planifikatzeko funtsezkoa den informazio elementu modura.

24. arloa: Kirola, gure nortasunaren sinboloa

Gure hitza bete dugulako...

Euskal kirola eta kirolariak babesteko konpromisoa hartu genuen...

“eta egun inoiz baino kirolari gehiago ditugu nazioarteko kirolaren elitean eta, gainera, inoiz baino kalitate gehiagorekin. Eusko Jaurlaritzak goi mailako euskal kirolaren nazioarteko ordezkaritza bultzatu du, Euskadi Kirola Fundazioa sortzearen bitartez. Horrekin euskal kirolariak Joko Olinpikoetan eta Munduko Txapelketetan egotea bultzatu nahi izan da. Xede berdinarekin, areagotu egin dira laguntzak nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten euskal kirol klubentzat, betiere, oinarriko kirolarekiko konpromisoa ahaztu gabe”.

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... Kalitaterik handieneko kirol oinarria prestatzea, Euskal Herriko kirol selekzioen ofizialtasuna erdieste aldera...

Hauek dira gure Konpromiso eta Ekimenak...

- Euskal Herriko kirol selekzioak babestea kirol modalitate guztietan.
- Euskal kirol federazioak babestea programa guztietan.
- Goi mailako euskal kirola eta Euskadi Kirola Fundazioa bultzatzea, 34 parte hartzaile euskaldun eta bost domina lortzeko helburua jarritz Londresen egingo diren datozen Olinpiadetarako.
- Laguntza programa berezia garatzea, nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kirol klubentzat (Baskonia, Bera-Bera, Bilbao Basket, Arrate, Gross Xake Elkartea, Marianistas-Euskadi, Cespa-Euskadi, Leka Enea Elkartea...)
- Euskal Ligak kirol modalitate guztietan antolatzen direla bultzatuko da, euskal federazioen bitartez.
- Bertako kirolak sustatzea, arraun, euskal pilota eta herri kiroleko plan estrategikoen garapenaren bitartez.
- Oinarriko eskola kirolaren garapena babestuko da, foru aldundiekin batera lanean arituz eta Euskadiko Eskolako Jokoak bultzatuz.
- Entrenatzaileei eta goi mailako kirolariei bekak ematea, entrenamenduetarako eta lehiaketarako behar besteko dedikazioa izango dutela bermatzeko.
- Goi mailako kirol gertaera kopuru garrantzitsua egingo dela bermatzea: Euskal Herriko Itzulia, Donostia-Donostia Klasika, Euskadiko Ziklo Kros Txapelketa, Mundakako Surfa, Zegama-Aizkorri, Eskaladako Rock Masterra, Banku Mugikorreko Orioko Jaitsiera, Hipikako Txapelketa, Lasterketak Lasarteko Hipodromoan, eta abar.
- Osasunaren eta Dopinaren Legea onartzea kirolean, eta osasunaren prebentzioa eta kirolean dopinaren aurka egiteko borroka bultzatzea.
- Kirolaren bitartez balioak ikasi eta gizartean praktikan jartzen direla sustatzea.
- Ariketa fisikoa sustatzea, Osasun eta Hezkuntza sailekin batera.
- Errendimendu altuko Euskadiko Eskolako Txapelketak antolatzea.
- Unibertsitateko kirola bultzatzea, euskal unibertsitateekin lankidetzan arituz.
- Kirol ekipamenduen errolda eta Azpiegituren Plana lantzea.
- Donostian eraikin bat egitea (Anoetan), euskal federazioak hartzeko.



- Kirolean prestakuntza bultzatzea, Kirolaren Euskal Eskolaren bitartez.
- Kirol titulu berriak garatzea, euskal unibertsitateekin lankidetzan arituz.
- Euskadiko Abiadura Zirkuitua eraikitzea.
- "San Mames Barria" eraikitzea.

25. arloa: Erakundeen Kanpoko Proiektzioa, Herrialde konpromisoa

Gure hitza bete dugulako...

Munduan gure ahotsa entzunarazteko konpromisoa hartu genuen...

"Eta lehenengo aldiz euskara entzun egin da Europar Batasuneko Ministroen Kontseiluan. New Yorken, Parisen eta Kolonia-Venezuelan irekitako Eusko Jaurlaritzaren ordezkaritza berriek beharrezko azpiegitura sortu dute ahots hori inoiz gehiago isildu ez dezaten".

Orain, aurrera egiteko beste helburu bat planteatzen dugu...

... Euskadi munduko 50 herririk garatuenen artean izatea bermatzea.

Hauek dira gure Konpromisoa eta Ekimenak...

I.- Kanpoko sustapena

- Legebiltzarrari lege proiektu bat bidaltzea, Euskadiko Erakunde Publikoen Kanpo Ekimena arautzeko.
- Gure agerpena alde anitzeko erakundeetan eta nazioarteko foroetan bultzatzea, gure interesekoak eta eskumenpekoak diren gai horietan.
- Euskadi erreferentziako toki bat bihurtzea mundu mailan, berrikuntzaren, solidaritatearen eta garapen iraunkorraren alorretan.
- Kanpoan euskal sarea optimizatzea eta dauden sinergiak aprobetxatzea: Euskadiko ordezkaritza, SPRI nazioarteko sarea eta Etxepare Euskal Institutua.
- Aliantzak eratzea atzerrian dauden euskal enpresaburu sarearen eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuen artean.
- Lehentasunezko harremanak eta harreman erregularrak ezartzea abangoardiako herrialde eta gobernuarekin, etorkizuneko politiken alorrean.

II.- Europar Batasuna

- Eusko Jaurlaritzak Europar Batasunaren Ministroen Kontseiluan duen esku hartze zuzena areagotzea.
- Europako Gaietarako Biltzarreko 2004ko akordioak betetzea eskatzea eta parte hartzea Kontseiluko bileretara zabaltzea, Euskadik jorratzen diren gaietan eskumenak edo interesa duen kasuan.
- Eusko Legebiltzarraren partaidetza eraginkorra erreklamatzeko, subsidiarotasun eta proportzionaltasun printzipioa aplikatuz, Euskadiren autogobernurako nortasun eta gaitasuna mantendu egingo diren berme modura.

- Justizia Auzitegiaren aurrean legitimazio aktiboa erreklamatzeko, euskal gizartearen interesa defendatzeko.
- Batzorde Europarrarekin egituratutako elkarriketa sistematikoa garatzea, 1986tik hasitako ildo jarraituz eta Itunek ematen duten partaidetza eta gobernantza mekanismo berriak aprobetxatuz.
- Euskararen ofizialtasuna onartzearen bidean aurrerantz egitea.
- Bigarren Ganbera Europar baten sorreraren alde lan egitea, bertan lege eskumenak dituzten nazioak eta eskualdeak ezar daitezzen.
- Eskualde edo nazio elkartuaren kontzeptuaren garapen eta eztabaida publikoa bultzatzea, Konbentzioak Europaren etorkizunerako 2001ean egindako prestakuntza lanetan agerian utzi bezala.

III.- Lurraldeen arteko lankidetzak, mugez haraindikoa eta eskualde artekoa

- Proiektu berriak bultzatzea, mugaren bi aldeetako euskal lurraldeen artean, lankidetzak egituratzeko oinarritzko eremuetan, adibidez: euskara, hezkuntza, garraioak, industria, nekazaritza, arrantza, osasuna, kultura, teknologia eta berrikuntza.
- 2007an sortutako Euro Lurraldeko Konferentzia sustatzea, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Akitaniako Lurralde Kontseiluaren, Pirinio Atlantiarretako Kontseiluaren, Iparraldeko Hautetsien Kontseiluaren eta gobernu frantziarraren partaidetzarekin.
- Europako Mugetako Lurraldeen Asanbladan (ARFE) partaidetza sendotzea, Batzorde Exekutiboan egonez eta esperientziak trukatzuz, osasunaren alorrean batez ere.
- Eskualdeen sarearen jarduna dinamizatzea lege eskumenekin, batez ere Europar Batasunari uztartutako eskualdearen kontzeptuaren garapenarekin.
- Kanpoaldeko eta Itsasaldeko Eskualdeen Konferentzia (CRPM) izaten den partaidetza areagotzea, Arku Atlantikoko Batzordeko partaidetza areagotzearekin batera. Helburua partaidetza biziagoa lortzea da, garraioen eremuan koordinazioko erantzukizunaren bitartez eta organo exekutiboetan parte hartzearen bitartez.
- Pirinioetako Lan Komunitatean izaten den agerpena eta partaidetza sendotzea, 2005-2007 euskal presidentziaren ondotik.
- Akitaniarekin lankidetzak finkatzea, bereziki azpimarratuz berrikuntzaren eta ikerketaren eremua.



**KULTURA
POLITIKO BERRIA
NORMALKUNTZARAKO
ETA BIZIKIDETZARAKO**





Garai politiko berria

Euskal gizarteak azkenaldian egindako berrikuntza politikoko saiakerak, eta, bereziki, egungo estatutuaren esparru juridiko eta politikoa erreformatzeko egindako proposamena, hain zuzen ere Eusko Legebiltzarreko gehiengo osoak onarturikoa eta Espainiako Gorteek gaitzetsitakoa, saiakera antzua izan dira. Ondorioz, ez zaio erantzunik eman gizarte gehiengo baten nahiari, hain zuzen autogobernua areagotzeko eta Estatu espainiarrarekin harreman politikoko esparru berri bat planteatzeko nahia duen gehiengoari, euskal nortasun nazionala onartzetik eta Euskadiren eta Estatuaren artean elkarrekiko berme sistemari errespetua izatetik abiatuz.

Euskal herriaren etorkizuna defendatzen dugu. Kanpoko ezarpenik gabe. Aldebikotasun berezi eta eraginkorretik Estatu espainiarrarekiko harremanean. Elkarri zor zaion konfiantzatik, leialtasunarekin eta elkarrekiko errespetuarekin eutsia.

Ez diogu ezer inori ezarri nahi; aitzitik, inork guri ezer galaraztea ere ezin dugu onartu.

Estatu... euskaldun gehiago

Estatu nazionalik ez dugun euskaldunok baliabide ekonomiko, politiko eta erakunde kopuru garrantzitsua du Estatua egiten joateko. Baliabide horien bitartez biztanleriari ematen zaizkion zerbitzuek Estatu egite hori legitimatzen dute. Gizarte Demokrazia batean, Estatu espainiarrak euskal herritarren eskaerak bete ezin baditu edo bete nahi ez baditu, euskal erakundeak izan beharko dira, subsidiariorotasun printzipioa agerraraziz edo aplikatuz, biztanleriaren ongizatea bermatzen duten behar eta zerbitzuei erantzuteko erantzukizuna gain hartzen duena.

Kontzertu Ekonomikoaren garapenak kontzertu politikora garamatza

Azken hiru hamarkada hauetan, Kontzertu Ekonomikoari esker aurrerantz egin dugu autogobernuan, eta Estatutua nahita urratzen aritu bada ere. Legearen urradura horren aurrean, ez gara geldirik geratu, kontrakoa baizik: eskumenak gain hartu ditugu eta inbertsioak aurreratu ditugu. Esan dezakegu arriskuak hartu ditugula, gobernu espainiarrak egiten ez zuen horretan erantzukizuna hartuz. Eraitza positiboa izan da, izan ere, praktikan herritarren eskaera eta beharrei erantzuten jakin dugu.

Erabateko ezezkoaren eta blokeoaren ildo horretatik jarraitzen badugu, eremu politikoan aurrerantz egiteko filosofia aplikatu beharko dugu. Hau da, Estatuaren etengabeko urradurek jarraitzen badute eta euskal herriari ezezkoa ematen jarraitzen bazaio bere etorkizuna erabakitzeke, orduan beste urrats bat eman beharko dugu, eremu politikoan kasu honetan.

Hausnarketa horrek Kontzertu Politikoaren proposamen batera garamatza, eta politikari Kontzertu Ekonomikoaren irudiaren printzipioak eta filosofia aplikatzea esan nahi du: akordioa, ituna, aldebikotasuna, inor ez bestearen gainetik eta koordinazioa inposaketarik gabe.



Erabakitzeko eskubidea demokratikoki erabiltzea

Zuzenean eragiten diguten gaiei buruz erabaki nahi dugu. Erabakitzeko ahalmena, gure autogobernua sakontzea eta euskal gizartearen ongizatea areagotzea ahalbidetzen duten gai guztietan aplikatzeko.

Legebiltzarrean ordezkaturik dagoen euskal biztanleria gehienak babesten duen konpromisoa dugu, erabakitzeko eskubidean laburbiltzen den konpromisoa. Egokitzapenak denboratik edo hura adierazteko unetik erator daitezke, baina konpromiso soziala irmoa da: legebiltzarreko gehiengoak erreklamatu egiten du, eta berriro erreklamatu du datozen hauteskundeetan. Estatutu Politiko Berriaren proposamenean eta Kontsulta Legearen onarpenean islatzen dugu, biak Estatu espainiarrak gaitzetsitakoak. Denboraldi berri bat ireki behar dugu, izaera politikoko gatazka historikoa konpontzeko.

Denboraldi berriak elkarrekiko konpromiso berria behar du Euskadiren eta Estatuaren artean. Egun, ez dago elkarrekiko berme sistemarik. Estatutuen aldeko eskualdaketa ez dira egiten beste erremediorik geratzen ez denean salbu, ikerketa zientifikoaren eta ikerketa teknologikoaren eskumen eksklusiboarekin ikusi ahal izan den moduan -hogeita hamar urte geroago-.

Euskadik denboraldi berri bat behar du, horizonte argi eta garbi batekin, eta bertan Estatuarekin harreman esparru berria aurrera ateratzea, erabakitzeko eskubidea eta hura baliatzea erantsiz.

Denboraldi berri horretan, Kontzertu Ekonomikoaren baliabidea Euskal Estatuaren aukerak igarotzen diren bidea da. Euskal Estatutzat hartzen da globalizazioak, krisi ekonomiko eta finantzario modura, gure artean planteaturiko gaiak erantzuteko gai izango den entitate politikoa.

Normalkuntzarako eta bizikidetzarako denboraldi politiko berri honi erantzuteko, EAJ-PNVk hiru jarduera ardatz planteatzen dizkio euskal gizarteari:

- Giza eskubide guztien babesa, konpromiso modura bizikidetzarekin eta presazko horizontearekin eta horizonte saihestezinarekin: Bakearekin, alegia.
- Partaidetzako demokraziaren kultura berriaren garapena. Bertan, herritarrek dagokien protagonismoa hartuko dute, taldeko konpromisoaren eragile modura.
- Erabakitzeko eskubidea demokratikoki baliatzea, gure ongizatearen eragilea izateko gure autogobernua sakonduz. Autogobernua, Estatuarekin 1979an sinatutako ituna erabat betetzetik ulertua. Eta autogobernua euskal gizarteak Estatu espainiarrarekin izan nahi duen harreman esparru berriaren nahi modura ulertua. Bertan, gure nortasun nazionala eta bermeen aldeko sistema onartuko lirateke, alderdietako batek hori urratzea galaraziz.

1. ardatza: Giza Eskubideen babesa: *“Bakea, funtsezko konpromisoa”*

Bakea, funtsezko konpromisoa

Euskal gizarteak denbora asko darama ETaren indarkeriarekiko gaitzespen handiena adieraziz. Bakea eta Elkarriketa; horiek dira gure herriaren aldarrikapen nagusienak eta haiei lehentasunezko arreta eman behar diegu. Indarkeria desagertu egin behar da gure bizitzetatik, eta ordezkari politikoak hitz egitera eseri behar gara akordio berriak lortzeko. Hain sinple eta biribila da.

ETAk egindako hilketek, hainbat familiaren bizitza hondatzeko helburua izateaz gain, euskal gizartearen gainean mehatxua mantentzeko helburua ere badute.

Euskal gizartea nekatuta dago jada indarkeriaz, eta azken elkarriketa prozesuaren porrotaren ondotik jasandako atentatuak gaitzesten ditu.

Euskal gizarteak ezin hobeki bete du bere erantzukizuna. Gu gara, ordezkari politikook, gure erantzukizuna bete ez dugunak. Gure betebeharra da politika Giza Eskubideen eta Bakearen zerbitzura jartzea. Gure eskura dauden mekanismo demokratiko guztiak erabili behar ditugu, konponbideak topatze aldera. Orain 30 urte esan eta egiten genuen gauza bera esan eta egiten jarraitzen badugu, gu aukeratzeko oinarrian zeuden arazoak konpondu gabe, ezin gara harritu gizartea bizitza politikotik aldentzen bada.

Oker egon gaitzke, baina ezin dugu etsi. Onartezina da sufrimendu prozesu luzea gain hartzea indarkeriaren amaierara arte, eta Bakera eraman dezaketen bide guztiak ustiatzea errefusatzeari. Euskal gizarteak ulertuko du saiakera egin eta lortu ez izana, ez du, ordea, inoiz barkatuko etsi izana.

Herri honen gehiengoak Giza Eskubide guztien errespetua erreklamatzeko du. Ertzaintzak eta justizia auzitegiek herrialde honetako emakume eta gizon guztien segurtasuna eta oinarritzko eskubideak bermatu behar dituzte. Aitzitik, ordezkari politikook gure gaitzespena azaldu baino zerbaitek gehiago egitera behartuta gaude.

Giza Eskubideak Sustatu eta Defendatzeko Plan Integrala

EAJ-PNVk konpromiso irmoa aldarrikatzen du, egunero lan egiteko Bakea ahalik eta lasterren eraginkor bihurtzeko. Bihar etzi baino hobea. Bakea oraingo eta etorkizuneko inbertsio onena da.

EAJ-PNVrentzat, Bakearen alde lan egiteko modu onena demokrazian sakontzea eta pertsona guztien giza eskubideak defendatzea da.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, EAJ-PNVk **Giza Eskubideak sustatu eta defendatzeko Plan Integrala** bultzatuko du. Haren zutabeak jarraian adieraziko dira.



1.- Indarkeriari legitimazioa kentzea

Indarkeria ekintza politikoko metodo gisa erabiltzeak ezin du inolako legitimaziorik bilatu euskal gizartearen. EAJ-PNVk euskal gizartearen konpromiso etikoaren buruan egoteko konpromisoa hartzen du, bizitzeko eskubidea osotasunez errespeta dadin eta gure proiektu politikoaren bihotzean dagoen ideiatzat har dezaten. **Gure konpromisoa** indarkeriaren erabilera zuzena edo zeharkakoa legitimatzen duten diskurtso guztiei aurre egitea da.

Ekimenak:

- Giza Eskubideentzako Nazio Batuen Goi Komisarioarekin Lankidetzaz Hitzarmena zabaltzea, bake eta giza eskubideen kultura sustatze aldera.
- Giza Eskubideen alorrean, udal sentsibilizazioko programak barreiatzea 5.000 biztanletik gorako udalerri guztietan.
- Eusko Jaurlaritzak Europako Batzordetik bultzatutako bakearen eraikuntzarako Sare Europarrean sartzea.

2.- Solidaritatea terrorismoaren biktimekiko

EAJ-PNVk terrorismoaren biktima guztiak babestu eta haiei solidaritatea adierazteko erantzukizun politiko eta soziala hartu du. Biktimekiko Solidaritatearen Legea, Eusko Legebiltzarrean onarturikoa, Biktimen Zuzendaritzaren lana eta erakundeetatik sustatutako omenaldiak horren adibide garbiena dira. Gure konpromisoa solidaritate legean bildutako neurriak eraginkorrak bihurtzea eta Giza Eskubideen antzeko urradurak jasan dituzten pertsona guztiei zabaltzea da.

Ekimenak:

- Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko Legearen aukerak araudi bitartez garatzea.
- Memoriaren, duintasunaren eta justiziaren konpromiso etikoaren lider izatea, terrorismoaren biktimekiko.
- Terrorismoaren biktimak udal esparruan onartzen direla bultzatzea, horretarako pertsona horien senideak bizi diren udalerri guztietan omenaldiak eginez.
- Terrorismoaren biktimak errekonozitzeko Erakunde Jardunaldi berriak egitea urtero.
- Terrorismoaren Biktimekiko Solidaritatearen Legea arautzen duten dekretuak onartzea.

3.- Eskubide zibilen eta politikoen babesa

Giza Eskubideak ezin dira zatitu edo nahi bezala interpretatu. Bizitzeko eskubidea gainerako banakako eta taldeko eskubideekin erabat badoa bakarrik gara daiteke. Gure herrialdean, azken hamarkadetan jasandako urradura eta mugaketaren ondorioz, bereziki garrantzitsua da eskubide zibilak eta eskubide politikoak defendatu eta sustatzea. **Gure konpromisoak** Alderdi Politikoen Legea berehala erreforma dadila eskatzea, hedabide ezberdinak ixtea ahalbidetu duten neurri judizial guztiak berrikustea eskatzea, eta Kongresuaren ebazpena betetzea dira, espetxeetako politika berria garatzea eskatuz dispartsiorekin amaitzeko eta Bake prozesuan hobeki laguntzeko.



Ekimenak:

- Eskubide zibilak eta politikoak mugatzen edo ahultzen dituzten lege arau guztiak aldaraztea eskatzea.
- Giza Eskubideen nazioarteko erakundeen partaidetza sartzeara, atxilotuen arretarako protokoloa aplikatzerakoan.

4.- Bakerako hezkuntza

Etorkizun ezberdin baterako, beharrezkoa da gure ikastetxeetan bakerako hezkuntza ahalik eta gehien sustatzea. Indarkeriari legitimazioa kentzea, biktimekiko solidaritatea eta eskubide zibil eta politikoen babesa gazteenen hezkuntzara erantsitako balioak izan behar dira. Gure konpromisoa probako esperientziak zabaltzea da hezkuntza sarean, Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Komisarioaren ikuskarpenpean bultzatuak.

Ekimenak:

- Elkarleen Foroarekin batera, Bakerako Hezkuntzaren II. Euskal Plana lantzea.
- Bakerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntzaren gaiko unitate didaktikoak ikastetxe guztietan zabaltzea.
- Bakerako Hezkuntzaren alorrean arduradunak prestatzea sare publikoko ikastetxe bakoitzean.

5.- Adiskidetzeko Memoria

Ezin da bakea ahaztutakoaren gainean eraiki. Etorkizunak egia, justizia eta konponketa eskatzen ditu. Gure konpromisoa frankismoan eta trantsizio garaian ere jazotako Giza Eskubideen urradurak argitzea da.

Ekimenak:

- Egiaren Batzordea eratzea, frankismoak eta trantsizio garaian izandako Giza Eskubideen urradurak argitzeko.
- Giza Eskubideen urradura horiek jasan zituzten pertsona guztien ikus-entzunezko lekukotzak bildu eta argitaratzea, Irargi "Gerra Zibileko, Erbesteko eta Frankismoko Dokumentu Ondarearen Zentroa" agiritegiaren bitartez.
- Gernikako bonbardaketaren 75. urteurrena ospatzea, eta Gernikako hiriaren sinboloa Bake erreferente gisa hedatzea mundu osoan zehar.

2. ardatza: Partaidetzako demokraziaren kultura berria. *“Partaidetza: taldeko konpromisoaren eragilea”*

Partaidetza: taldeko konpromisoaren eragilea

EAJ-PNVrentzat, herritarren partaidetza demokraziaren ideiaren gunean bertan dago. Balio demokratikoei atxikitako herritarrak, beren erantzukizun zibikoez jabetzen diren herritarrak eta bizitza politikarekin konpromisoa hartzen dutenak sistema demokratiko ororen indar bizia dira.

Errealitateak agerian uzten du “Politikak”, letra larri, erabateko zentzua izaten jarraitzen duela globalizazioaren garaian. Guztia herritarrekiko harreman moduak planteatzeko moduaren arrakastaren mendekoa izango da. Alderdi batzuk demokrazia anestesiatua egiten dute, hedabideetako kolpeetan oinarriturikoa, baina elkarrizketak edukitzearen eta euskal gizartearen iritzia ezagutzearen aurkakoa. EAJ-PNVtik, aldiz, politika egiteko modu berri bat bideratuko dugu, eta haren oinarrian herritarren iritzia etengabe alderatuko dira, gizarte eskaera berriei behar bezala erantzute aldera.

Kontratu sozial berria sinatzea proposatzen dugu. Botere publikoak herritarren ordezkariitza legitimoa dugu, baina elkarrizketa, negoziazio eta adostasunerako mekanismo iraunkorrak ezarri behar ditugu gizartearen oinarriarekin, erabaki garrantzitsuenak hartzeko. XXI. mendeko demokrazia konpromiso maila altua eskatzen du, pertsonen arteko kontratu lotura. Orain arte ezinezkoa izan da hura erabat garatzea, baina, dudarik gabe, politika egiteko moduak aldatuko ditu. Gizartearen partaidetza erroturiko herria gara aspalditik. Hori dela eta, EAJ-PNVk iraultza demokratiko berri honen buruan egon nahi du.

Herritarren partaidetza: demokrazia biziberritzeko pizgarria

EAJ-PNVk partaidetzako demokrazian sakontzeko konpromisoa hartzen du, eta euskal gizartearen biziberritze politikoaren prozesuan lider izan nahi du, bizikidetzak sozialerako oinarritzko printzipioak biziberrituz:

- **Gardentasuna.** Herritarrei ahalik eta aukera onenak eman behar dizkiegu, politika publikoei buruzko informazio osoa izan dezaten. Elkarrizketa mekanismo berriek bidean dauden proiektuen legitimotasuna areagotuko dute, eta parte hartzeko ohitura berriak sortzen joango dira.
- **Autokritika.** Bada garaia euskal politikak herritarrei gehiago entzuteko eta haiengandik gehiago ikasteko. Partaidetzako demokrazia lagundu egingo du politika publikoetan kalitatezko jauzi berri bat ematen, etengabeko autokritika beharra barneratzeko gai izatera iristen bagara. Eusko abertzaletasuna hainbat gauza ongi egiten ari da; beste hainbatetan, ordea, hobetu egin behar dugu eta herritarren ahotsa da hori nola egin dezakegun esango diguna. Irreitasunez eta apertasunez lan egitea, hori da bidea.
- **Elkarrizketa.** Elkarrizketa politikoak ezin die bakarrik alderdien arteko harremanei eragin. Ez dute legitimaziorik elkarrizketaren txapelak direla dioten eta, ondoren, herritarrek, zuzenean eragiten dieten gaietan, beren iritzia adieraztea galarazten duten horiek. Benetako elkarrizketa kultura batek arazoak jorratu eta herritarrekin konponbideei buruzko eztabaida izatera garamatza. Beharrezkoa da komunikaziorako bide berri iraunkorrak eratzea ordezkari politikoaren eta gizartearen oinarriaren artean.



- **Kalitatea.** Argi dago benetako partaidetza duen demokraziak areagotu egiten duela erabakien eraginkortasuna eta hobetu egiten duela herritarrek politika publikoen gainean duten iritzia. Eusko abertzaletasunak gorentasuna lortu nahi du herritarrei eskainitako zerbitzuan, beraz, ezin dio eremu honetan lider izateari utzi.
- **Sormena eta berrikuntza.** Mende honetan, berrikuntzak gure bizitzako alderdi guztiak zipriztindu behar ditu. Eremu politikoan, ezin diegu XXI. mendeko erronkei aurre egin despotismo ilustratuko printzipioak aplikatuta. Neoerrepublikanismoa, komunitarismoa, deliberazio demokrazia edo kapital sozialaren teoriak noranzko berdinean doaz: pertsonak jardun politikoaren gunean kokatzea. Euskal arazoaren gune nagusiei dagokienez: subiranotasuna eta lurralde harremanak, partaidetzako demokraziak aukera eremu zabala ere eskaintzen digu, gatazka zaharrei konponbide berriak topatzeko.
- **Bakea.** Partaidetzarako mekanismoek eranstean dituzten elkarrizketa eta akordio prozesuek ere funtsezko ekarpena egin dezakete negoziazioaren eta kontzertazioaren kultura gure gizartean zabaltzerakoan. Herritarren partaidetza bakearen eraikuntzako eragileetako bat izan da beti gure herrialdean, beraz, eraldatzeko gaitasuna ahalik eta gehien bizitu behar dugu.

Hitzetatik egintzetara igarotzea. Hiru jarduera arlo estrategiko

Inork ez du zalantzan jartzen herritarren partaidetza funtsezkoa dela erronka global berriei aurre egiteko. Jarduera demokratikoak berritu eta modernizatzea maila globaleko lehentasuna da, Euskadiko bizi kalitatea hobetzeko erronka nagusienetako bat izatearekin batera.

Baina iritsi da egintzetatik hitzetara igartzeko garaia. EAJ-PNVtik iraultza politiko eta demokratikoaren lider izan nahi dugu, herritarren partaidetza prozesua bultzatuz hiru eremu estrategikoren bitartez:

1. arloa: Herritarrei informazioa eman, haiek entzun eta haien iritzia errespetatzea

Ekimenak:

1.- Herritarren kontratu berria

EAJ-PNVren hautagaiek herritarren kontratua sinatzeko konpromisoa hartzen dute, kanpainen zehar hatutako konpromisoak edozein euskal herritarrek legegintzaldian zehar argi eta aldizka ebaluatzea posible izan dadin.

2.- Gardentasun konpromisoa

EAJ-PNV alderdiak administrazio publikoei informazioa eskatzeko eskubidea arautuko du. Datorren legegintzalditik aurrera, herritar guztiak gobernuko edozein sail eta arduradunarengana jo ahalko dute egoki irizitako informazio eske, eta hura gai izan beharko da 30 egunetik beherako epean erantzuteko.

3.- Bost proiektu herritarren partaidetzarako

EAJ-PNVk herritarren partaidetzarako 5 proiektu estrategiko martxan jartzen direla sustatuko du. Proiektu horietako bakoitzak gizarte entzunaldiko prozesua irekiko du, eta bertan nahi duten pertsona guztiak parte hartuko ahalko dute. Halaber, zerikusi zuzena



duten pertsona eta taldeei gonbite zehatza luzatuko die. Euskal erakundeek planteatutako gomendioei erantzuteko betebeharra izango dute. Planteaturiko bost proiektuek bat egiten dute euskal gizarteak taldean aurre egin beharreko bost erronkekin:

- Berrikuntza. Zeintzuk dira egin behar ditugun apustu handiak krisi ekonomikoa etorkizunerako aukera bat bihurtzeko?
- Iraunkortasuna. Nola lor dezakegu energia garbia euskal etxebizitza guztietarako?
- Gizarte politikak. Nola gara dezakegu sozialki aurreratua den eta ekonomikoki iraunkorra den eredu bat?
- Estrategia kulturala. Zein urrats egin dezakegu nortasun kultural irekia indartzeko eta hura munduan proiektatzeko?
- Erakundeen horizonte politikoa. Zein da Estatu espainiarrari planteatu nahi diogun harreman politikoaren esparrua?

4.- Partaidetzako demokraziaren behatokia

Partaidetzako demokraziari buruzko behatoki askea sortzen laguntzea, partaidetza mekanismoen gaineko jarraipena eta ebaluazioa egin dezan. Behatokiak txostenak argitaratuko ditu urtero gai hauen martxaren gainean.

2. arloa: Euskal herritarrei kontsultatzeko gaitasuna garatzea

Herritarrei kontsulta zuzena egitea partaidetza demokratikoko baliabide bat da, eta normaltasunez funtzionatzen du herrialde garatuenetan. Baliabide horri ezin zaio uko egin, gure bizi kalitatea hobetzeko balio izango baitu.

Ekimenak:

1.- Herritarren Partaidetzari buruzko Legea

EAJ-PNVk demokrazian sakondu eta berritzeko praktika hau arautuko duen legea bultzatzeko konpromisoa hartzen du. Herritarrei zein gairen inguruan kontsultatu behar zaien eta horretarako zer prozedura erabili behar den argitzea proposatzen dugu. Lege horrek Herri Ekimen Legegile bat bultzatzeko behar den sinadura kopurua gutxitu nahi du (egungo 30.000 sinaduretatik 15.000ra), parte hartzeko prozesuak gizarte eragin handiko proiektu guztiei erantsiz.

2.- Parte hartzeko leiho elektronikoak

EAJ-PNVk Leiho elektronikoak irekitzea sustatuko du, herritarren iritzia jasotzeko gizarte interes handieneko gaien gainean. Europako Batzordearen eredu jarraituz, erakundeen proiektu adierazgarrienek edo gizarte eragin handienekoek ezaugarri horiek biltzen dituen herritarren partaidetzarako baliabidea izan beharko dute.

Behin probako lehenengo proiektuak eginda, ONA txartelaren barreiapenak teknologia aurreratua ematen du berme guztiekin kontsulta handiak egiteko.

3.- Tokiko Demokraziaren Liburu Zuria

Gaia aditu direnek, tokiko arduradunek eta arduradun akademikoek parte hartuko dute bertan; helburua tokiko demokrazia praktika ezberdinak aztertu eta gure testuingurura egokitzea da, nazioarte mailan existitzen baitira jada horrelakoak.

3. arloa: Lidergo partekatua eta integratzailea bultzatzea

Euskadi eta bere etorkizuna taldeko erronka dira. Partekatua ere izango den lidergoa behar duen proiektu partekatua. Partekatze gaitasuna edukiko duen errealitate anitza aberastasunaren sinonimoa da.

EAJ-PNVren ustez, egun ezinezkoa da euskal gizartearen beharrei eremu publikotik bakar-bakarrik erantzutea. Erakunde publiko eta pribatuok lagundu egin behar dugu, elkarrekin egin behar dugu bidea. Harreman gehiago eta hobeak izango ditugu, gure artean nahiz kanpoaldearekin. Kapital soziala eta harremanen alorrekoa jarriko dugu gure proiekturako. Gizarte konplexuek lidergo partekatua behar dute, dudarik gabe.

Ekimenak:

1.- Politika Publikoen Euskal Kontseilu berria

EAJ-PNVk Politika Publikoen Euskal Kontseilua sortzea bultzatuko du. Bertan, lehendakaria, diputatu nagusiak, euskal hiriburuetakoko alkateak eta Eudeleko presidentea egongo dira, lidergo berri hau errealitate bihurtzeko eremu konstituzionaletik. Politika Publikoen Euskal Kontseilua urtean bitan bilduko da gutxienez, eta elkarrekin bultzatuko dira bertan herrialderako eta datorren legegintzaldirako aurreikusitako proiektu handiak.

2.- Hausnarketarako Talde Estrategikoa

Lehendakariak formalki izendatuko ditu Hausnarketarako Talde Estrategikoko kideak, eta taldearen helburua gobernuaren lana aholkatu eta orientatzea izango da aurrerantz, datorren legegintzaldian. Diziplina anitzeko talde honen barruan herrialdeko pertsona garrantzitsuak eta adituak egongo dira, hurrengo alorretan ekarpenak egiteagatik ezagun: gizartea, kultura lanak, berrikuntza, enpresa, Giza Eskubideak, eta abar. Funtzio nagusien artean, gobernuaren jardunerako proposamen zehatzak aurkeztea egongo da, gizarte zibileko erakundeekin zubi lanak egitearekin batera.

3.- Herriarren Partaidetzarako Agenteen Sarea

Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta Eudelen arteko lankidetzak akordio baten bitartez, herriarren partaidetzarako agenteen sarea bultzatuko da toki eremuan.

Eratzen den sarea gure herrialdearen partaidetzaren eragile nagusia bihurtuko da. Erabakitzen diren ekimenak aholkatu eta bultzatuko dira toki mailan.

3. ardatza: Erabakitze Eskubidea demokratikoki baliatzea.

“Autogobernua: gure ongizatearen eragilea”

1. proposamena: Gernikako Estatutuan onartutako autogobernua garatzea

Euskadik beharrezko baliabide guztiak eskura izan behar ditu globalizazioaren erronkei aurre egiteko etengabe aldatzen ari den mundu batean.

Egungo autogobernu esparrua bidegurutze batean dago, eta, are kezagarriagoa dena, Gobernu espainiarrak jarraitutako estrategiak Estatutuaren beraren aukerak “geldiarazi” ditu. Ondorioz, gure sare ekonomikoaren lehiakortasuna eta Euskadiren bigarren eraldaketaren oinarrian egon beharreko zutabeak arrisku larrian jartzen ari dira.

Egun, eta ia 30 urteko autonomia igarota, ziurtasun ezeko aldia irekitzen da; bertan, Europako eta nazioarteko agertoki berriari eta 2007ko amaieratik jasaten ari garen krisi ekonomikoari aurre egiteko dugun ahalmena mugaturik dago.

Ekimenak gure autogobernua baliatzeko

EAJ-PNVtik Akordio Globala planteatzen dugu Estatuarekin, Gernikako Estatutua oso-oso bete dadin eta egun oraindik eskualdatzeko dauden 36 eskumenak eskualdatu daitezen, Eusko Legebiltzarrak 1995ean onartutako txostenarekin bat etorritz.

Estatutua urratzen jarraitzen den bitartean, EAJ-PNV ez dago prest ezer egin gabe eta besoak gurutzatuta geratzeko. Euskal gizartearen egungo eta etorkizuneko ongizatea da jokoan dagoena.

EAJ-PNVk konpromisoa hartzen du pixkanaka Estatutuan jasotako, eta egun oraindik eskualdatzeko, gai eta eskumen horiek guztiak baliatzeko. Funtsezkoak iruditzen zaizkigu krisiari aurre egiteko eta nazioarteko lehengoratzeko ekonomikoaren abangoardian kokatzeko hura gertatzen denean.

Horri dagokionez, hurrengo gaiak pixkanaka garatuko ditugu:

Lanaren eta Enpleguaren arloan:

- Enplegu programak
- Laneko bizitza eta familiakoa bateratzea.
- Etengabeko prestakuntza
- Laneko ikuskapenak babesteko zerbitzua, laneko ezbeharren aurka borroka egiteko.
- Euskal Enplegu Bulegoak garatzea -Lanbide-.
- Lan egiteko adinean dauden biztanleen kualifikazioa sustatzea.



Azpiegituren, Garraioaren eta Ingurumenaren arloan:

- Jabari publiko hidraulikoaren plangintza eta kudeaketa
- Hiru euskal aireportuak sustatzea
- Meteorologia eta klimatologia
- Azterlan zerbitzua, laguntza teknikoa ematea eta ikerketa herri lanen gaian
- Errepide bidezko garraio mekanikoa antolatzea, koordinatzea eta ikuskatzea

Nekazaritzaren eta arrantzaren arloan:

- Merkataritzako egiturak eta arrantzakoak hobetzea
- Arrantzaren eremua ikuskatzeko zerbitzua
- Itsasoko laguntza ekipoak
- Arrantzaren merkatua eta itsas haztegiak sustatzea

Kulturaren eta turismoaren arloan:

- Ikus-entzunezko sektorea sortu, garatu eta sustatzea.
- Turismoari buruzko informazioa eta turismoaren alorreko profesionalen sustapena

2. proposamena: Esparru Politiko Berria. Euskal Nortasun Nazionala, erabateko autogobernua eta elkarrekiko berme sistema onartzea.

EAJ-PNVtik eskaintza irekia egiten diegu euskal alderdi politikoei, Estatu espainiarrarekin Itun Politiko berria antolatzeko. Haren oinarrian bost zutabe egongo litzateke:

Bost zutabe Itun Politiko berri baterako:

- 1.- Euskal nortasun nazionala onartzea, Estatu espainiarreko nazio aniztasunarekin bat etorritz.
- 2.- Beste lurralde eta euskal komunitateekin lurralde harremanak eratze gaitasuna, toki bakoitzeko herritarren erabaki asketik abiatuz.
- 3.- Erabateko autogobernua euskal herritarren ongizate ekonomikoa, soziala, kulturala eta erakundeetako eratzten duten gai guztietan.
- 4.- Euskadiren proiektzioa Europan eta munduan.
- 5.- Bermeen alde biko sistema, Kontzertu Politikoan oinarriturikoa, eskuratutako ituna alde bakar batek mugatzea ezinezkoa izanez.

Lehenengo zutabea:

Euskal Herriaren nortasun nazionala eta erabakitze duen ahalmena onartzea.

Normalkuntza Politikorako eta Bizikidetzarako Itun berriak koherentzia izan behar du Euskal Herriaren nortasun nazionala onartzearekin, eskubideen subjektu politiko oso modura.

Beharrezkoa da euskal gatazka behin betiko konpontzea, Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitze duen eskubide demokratikoa errespetatuz, Herrien autodeterminazio



eskubidearekin bat eginez. Eskubide hori Eskubide Zibil eta Politikoen nazioarteko itunetan jaso da. Halaber, Estatu espainiarrak berretsitako Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunarekin bat egingo litzateke.

Erabakitzeko eskubidea baliatzea printzipio demokratikoa da, eta Euskadiren eta Estatuaren artean negoziatzeko betebeharra jartzen du, euskal gizartearen borondate demokratikoa elkarrekin adostea posible izan dadin baldintza politiko berriak jartzeko.

Printzipio hori ez da gauza berria; nazioarteko jurisprudenzian agertzen da jada Kanadako Auzitegi Gorenaren epai baten ondotik, Kanadaren eta Quebec eskualdearen arteko gatazka politikoaren konponbide demokratikoari dagokionez. Gainera, Irlandako gatazkaren konponbide baketsua oinarritu duena izan da.

Euskal Herria nortasun propioa duen Herria da, Europako Herrien multzoan. Euskal gizartearen gehiengoak barneratutako hori ez da bakarrik ondare historiko, sozial eta kultural berezi eta paregabearekin frogatzen. Horrez gain, 1979ko Estatutuko bertako 1. artikuluan jaso zen jada, Konstituzioko Lehen Xedapen Gehigarrian bezalaxe. Bertan, onartu egiten da eskubide historiko batzuk zeudela aurretik, eta subjektu politiko ezberdin bati dagozkiola.

Bigarren zutabea:

Euskal Herria eratzen duten komunitate ezberdinen artean lurralde harremanak eratzeke gaitasuna, toki bakoitzeko herritarren erabaki asketik abiatuz.

Historia, hizkuntza, kultura, ohitura eta harreman ekonomiko eta sozialen arrazoiek Euskal Herria modura ezagutzen den errealitatea eratzen dute Nafarroako, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroa Beherako, Lapurdiko eta Zuberoako lurraldeen historian zehar. Hori dela eta, aipatutako lurraldeetako herritarrei, egun horiek eratzen dituzten komunitateei, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoari, Nafarroako Foru Komunitateari eta Iparralderi onartu egin behar zaie harremanen esparru komun batean lotzeko eskubidea, haien borondatea hori bada.

Euzko Alderdi Jeltzaleak egunero egingo du lan euskal lurralde guztietan partekaturiko nortasun sentimendua barreiatzeko. Helburua egungo euskal komunitateak erakunde harremanen esparru bateratuan uztartzea da.

Hori da gure helburua. Hori egiteko erritmoa eta abiadura herritarrek ezarri behar dute. Edonola ere, eta helburu hori gauzatzen ez den bitartean, Normalkuntza Politikorako Itunaren alde egiten dugu, lurralde harremanen erakunde esparru berria posible izan dadin herritarren borondatearen muga besterik izan gabe.

Hirugarren zutabea:

Erabateko autogobernua euskal herritarren ongizate ekonomikoa, soziala, kulturala eta erakundeetako eratzen duten gai guztietan.

Ongizate ekonomikoa:

Itun Berri baten Proposamena Euskadiren bigarren eraldaketa ekonomikoa ahalbidetuko duten zutabeak sendotu, finkatu eta garatzeko prestazio behar modura agertzen da. Hau da:

- Pertsonen heziketa eta prestakuntza iraunkorra
- Ikerketa, ezagutzaren gizartea eta telekomunikazioak
- Baliabide naturalen eta azpiegituren politika integrala
- Euskal esparru soziolaborala garatzea



Gizarte ongizatea:

Gizarte babeseko araubide integrala eratzen duten gai horietan guztietan erabateko autogobernuaren alde egiten dugu, euskal herritar guztientzat.

Bereziki, gizarte babeseko eta solidaritateko benetako politika integratu baten garapena aldarrikatzen dugu. Bertan, euskal botere publikoei gizarte segurantzaren araubide publikoa ematea jasotzen da, euskal herritar guztiei laguntza eta prestazio sozial egokiak bermatuko dizkiena egungo nahiz etorkizuneko behar egoeren aurrean.

Euskal Erakundeek gizarte babeseko politikaren dimentsio guztiak onartzeak aukera emango du egungo zatiketa gainditzeko (oinarrizko errenta, pentsioak, langabezia, sorospena, kotizazio gabeko aurreikuspenak, eta abar), eta aukera emango digu ongizateko politika integrala garatzeko. Ondorioz, Europaren buruan kokatuko gara biztanle bakoitzeko gizarte babesaren alorrean; hori guztia Estatuarekiko solidaritatearen kaltetan izan gabe egingo litzateke.

Kultura ongizatea:

Harreman politikoko esparru berri bat planteatzen dugu; bertan, euskal erakundeek eskusibitatea bermatuko da euskal herritarren eskubideen eta betebeharren politikak ezartzeko hizkuntza ofizialen erabileraren alorrean, lehentasun berezia emanez euskarari eta haren normalkuntzari hezkuntzaren, kulturaren eta gizartearen eremuan.

Kultura, arte eta monumentu ondarearen babeseko eremuetan, gizarte komunikabideen araubidearenean eta adierazteko eta komunikatzeko oinarritzko eskubideen garapenarenean eskumen eskusiboak aldarrikatzen ditugu, irakaskuntzako askatasuna bezala.

Euskadiren nortasunari eta bertako kultura eta nazioa atzerrian proiektatzeari dagokionez, ituna planteatzen dugu Estatuarekin. Horren bitartez, euskal nortasunaren nazioarteko ordezkaritza bermatuko litzateke, kultura eta kirol adierazpen guztietan.

Erakundeengizatea:

Ahalmen eskusiboa planteatzen dugu, erakunde komunak eta foru lurraldeen nahiz udal entitateen artean barne harremanak, harreman politikoak, ekonomikoak eta finantzarioak arautzeko. Euskadik berezkoa duen Foru Zuzenbide Zibila; hauteskunde araubidea; alderdi politikoen sorrera, erregulazio eta desagerpen araubidea, eta Eusko Legebiltzarraren barne autoantolamendua arautzea.

Laugarren zutabea:

Euskadiren proiektzioa Europan eta munduan.

a) Agerpen zuzena Europan

Planteatzen dugun Itun Politiko berrian, mekanismo egokiak jarriko dira Euskal Erakundeek Europar Batasunean partaidetza izan dezaten. Horiek benetako agerpen eraginkorra bermatuko digute gure autogobernuari eragiten dioten erabaki guztietan.

b) Kanporako proiektzioa

Geroz eta irekiagoa eta geroz eta harreman gehiago dituen mundu batean, Euskadik, berezko nortasuna duen herri modura, kanpoan proiektzio ekonomiko, sozial eta kulturala izateko gaitasuna eduki behar du.

Horri dagokionez, Estatuarekin Itun Politiko berria planteatzen dugu; horrek mundu global batean izango dugun presentzia proiektatzeko gaitasuna aintzat hartuko du, horretarako Euskadiren eta Estatuaren arteko aldebiko konferentzia eratuz kanpoko egintzen gaian koordinatzeko.



Bosgarren zutabea:

Erakundeen egonkortasuna ahalbidetuko duen eta eskuratutako Ituna alde bakarrak apurtzea galaraziko duen bermeen alde biko sistema.

- Ezinezkoa da Estatu espainiarrarekin harreman politikoen esparru berria edukitzea, argi eta garbi ezartzen ez bada alde biko harremanean eta botereen orekan oinarritutako berme juridikoko araubidea, lortutako Ituna alde batek bere kabuz apurtzea galarazteko.
- Estatutua 30 urtez urratzen aritu dira, eta erakunde harremanak esparru juridikora eramaten, beraz, horrek iraganeko akatsetan berriro ez erortzeko balio izango du.
- Mekanismo berriak jartzea proposatzen du, Euskadiren eta Estatuaren arteko harremanen erakunde egonkortasuna bermatzeko eta harremanen alde bikoitasuna irmotzeko.
- Berdintasuneko harreman sistema aldarrikatzen dugu; horrela, Estatuak euskal erakundeek hartutako xedapenak, araudiak eta ebazpenak aurkaratzen dituenean, horrek ez du horien etendura automatikoa suposatuko.
- Estatuarekin kontzertu politiko berria planteatzen dugu, horretarako bermeen alde biko batzordea sortuz. Bertan, Estatu espainiarrak nahiz Euskal Erkidegoak ordezkariak izendatuko dituzte, kopuru berdinean, eta, ezer baino lehen, Itun Politiko berrian jaso den eskumen araudia urra dezaketen araudiak negoziatzea izango du xede.

Estatuarekin Kontzertu Politiko berria formalizatzeko baliabideak

Benetan borondate politikoa baldin badago. Normalkuntza politikoko benetako proiektua eta bizikidetzakoa sortu nahi badugu, egungo ordenamendu juridikoan hainbat prozedura eta baliabide daude eta inolako arazorik gabe erabil daitezke.

EAJ-PNVk hurrengo baliabideak erabiltzea proposatzen du, bizikidetzarako itun politiko berriari erantzuteko:

- Gernikako Estatutuko Xedapen Osagarria

"Estatutu honetan finkatu den erregimen autonomikoaren onarpenak ez du esan nahi Euskal Herriari gisa historian barrena dagozkien eskubideei uko egiten zaienik, ordenamendu juridikoak erabakitzen duenaren arabera gaurkotu daitezkeelarik".

- Konstituzioko Lehen Xedapen Gehigarria

"Konstituzioak lurralde forudunetako eskubide historikoak babestu eta errespetatzen ditu. Foru araubide horren eguneratze orokorra, hala denean, Konstituzioaren eta autonomia estatutuen eremuan burutuko da".

- Konstituzioko Bigarren Xedapen Indargabetzailea

"Nolabaiteko indarra izan lezakeen neurrian, behin betiko indargabeturik geratzen da 1839ko urriaren 25eko Legea, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintziei dagokienez. Era berean, behin betiko indargabeturik geratzen da 1876ko uztailaren 21eko Legea".

- Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen 1966ko abenduaren 19ko Nazioarteko Ituna.

"Espainiako Erresumak berretsia 1977ko apirilaren 13ko berrespen baliabide bitartez, eta Estatu Aldizkari Ofizialean argitaraturikoa 1977ko apirilaren 30eko 103. zenbakian".

Azken batean, Mendebaldeko Europar erabili izan diren eta egun oraindik erabiltzen diren oinarri juridiko eta politikoak erabiltzen dituen proposamena da, horren bitartez



modu baketsu eta demokratikoan estatu berdin baten barruan izaera nazional ezberdinak egotetik eratorritako gatazkak edo Estatu ezberdinei dagozkien izaera nazionaletatik sortzen diren harreman gatazkak ebazteko.

Egiteko dagoen eztabaida handiaren aurrean gaude, eta horri aurre egin behar diogu benetako ituna eskuratzeko. Horrek euskal gatazka politikoa ebatziko du, hau da, euskal errealitate nazionala juridikoki, sozialki eta politikoki nola kokatu argituko du. Euskal nazioaren nortasuna nola errespetatu. Nola bideratu euskal nazioaren presentzia, eskubideak eta kezkak. Nola ezarri harreman esparru bat mundu mailako orden berriaren aurrean; hori ezin da oinarritu norberaren nortasun ezaugarriak deuseztatzean, baizik eta errespetuan eta erabaki askean.

Hori da gizarte gisa dugun erronka. Euskal gizartearen eta gizarte espainiarraren erronka bateratua. Elkarriketaren bidetik hari aurre egiteko gai izan behar gara, normalkuntza politikoa eta bizikidetza demokratikoa bermatzeko.